

TRANSIZIO PROGRAMA

Leon Trotsky



Federiko Engels
Fundazioa

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

TRANSIZIO PROGRAMA

Leon Trotsky

Itzulpena: Federiko Engels Fundazioko Itzulpen Taldea

Lehenengo argitalpena: 2009ko Azaroa

ISBN: 978-84-96276-59-8

Lege-gordailua: M-49728-2009

Argitaratzaile eta banatzaileak:
Federiko Engels Fundazioa • Euskal Herria Sozialista
www.engels.org • www.euskalherriasozialista.net

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
------------------	---

TRANSIZIO PROGRAMA: KAPITALISMOAREN AGONIA ETA LAUGARREN INTERNAZIONALAREN EGINKIZUNAK

Iraultza sozialistarako baldintza objektiboak	13
Proletalgoa eta bere zuzendaritzak	15
Programa minimoa eta trantsizio programa	17
Soldaten eta lan orduen eskala mugikorra	18
Sindikatuak trantsizio garaian	20
Lantegietako komiteak	22
“Sekretu komertziala” eta ekoizpenaren langile kontrola	24
Talde kapitalista jakin batzuen desjabetzea	26
Banku pribatuen desjabetzea eta kreditu sistemaren estatizazioa	27
Greba piketeak, borroka destakamenduak, langile miliziak, proletalgoaren armamendua	28
Langileen eta nekazarien aliantza	31
Inperialismoaren eta gerraren aurkako borroka	33
Langileen eta nekazarien gobernuak	39
Sobietak	42
Herrialde atzeratuak eta trantsizio programa	44
Trantsizio programa herrialde faxistetan	46
SESBeko egoera eta trantsizio garaiko arazoak	50
Printzipiorik gabeko oportunismoaren eta errebisionismoaren aurka	55
Sektarismoaren aurka	58
Eman bidea gazteriarri! eman bidea emakume langileei!	59
Laugarren internazionalaren banderapean	61

LAUGARREN INTERNAZIONALAREN MANIFESTUA GERA INPERIALISTAREN ETA IRAULTZA PROLETARIO MUNDIALAREN INGURUAN

Egungo gerraren arrazoi orokorrak	64
Lenin eta inperialismoa	65
Gerraren berehalako arrazoiak	66
Estatu batuak	68
“Aberriaren” defentsa	72

“Demokraziaren aldeko borroka”	73
Nazien kontsigna belikoak	75
Alemaniarren nagusigoa	77
“Bake programa”	78
SESBn defentsa	80
Stalinen frakzio bonapartistaren uzkaizte	
iraultzailearen alde	83
Herri kolonialak gerran	86
Txinako irakaspen handia	87
Iraultzaren eginkizunak Indian	88
Amerika Latinoaren etorkizuna	90
Buruzagi traidoreen ardura gerran	91
Bigarren internazionala	92
Hirugarren internazionala	94
Sozialdemokratak eta stalinistak kolonietan	96
Zentrismoa eta anarkismoa	98
Sindikatuak eta gerra	99
Laugarren internazionala	100
Boltxebismoan oinarritutako programa bat	101
Froga pasatu dugu!	102
Iraultza proletarioa	104
Zuzendaritza iraultzailearen auzia	105
Sozialismoa edo esklabotza	107
Zer egin?	108
Langileek arte militarra ikasi behar dute	109
Hau ez da gure gerra!	110

Aurkezpena

Trotskyren Trantsizio Programa lehendabiziko aldiz euskaraz argitaratzeko unea ezin liteke hobeia izan. Hogei urte pasa dira Berlingo Harresia erori zenetik eta ondorengo Sobietar Batasunaren kolapsotik. Une hartan, jende askok pentsatu zuen Komunismoa eta Sozialismoa hil egin zirela.

Burgesia euforiko zegoen. “Historiaren amaieraz” hitz egiten zuten eta merkatu aske batean oinarrituko zen etorkizun zoragarri eta baketsu bat aurreikusi zuten. Orain, bi hamarkada ondoren soilik, burgesiaren eta kapitalismoaren defendatzaileen ametsak hondamendian daude eta sozialismoaren eta marxismoaren ideiak, beste behin, eguneko ordenean daude.

Zientzian eta teknologian aurrerapen ikaragarriak egon arren, XXI. mendeko lehen hamarkadan, gizateriaren gehien-go gosez egoteko arriskuan dago. Milioika pertsonak ez dute zerbitzu publikoetarako sarbiderik, ez dute ur edangarririk, ez hezkuntzarik eta ezta medikuntza zerbitzurik. Eta hala ere, bankuen erreskateetan gastatu den dirua, nahikoa izango litzateke berrogeita hamar urtetan zehar munduko pobrezia arazoa amaitzeko. Leku guztietan, krisi kapitalistak honakoa esan nahi du: burgesiak herri zapalduaren bizkarrean jarri nahi du karga guztia, langileetan, klase ertainetan, langabetuetan, zaharretan eta gaixoetan.

Sobietar Batasunean hutsegina zuena ez zen sozialismoa edo komunismoa izan, atzerapen material eta kultural izugarrien baldintzetan Errusiako Iraultzaren isolamenduaren ondorioz sortutako karikatura burokratiko eta totalitarioa baizik. Errusiako Iraultzaren degenerazio burokratikoak eragin zuen Stalinen diktadura basatia. Eraitza, marxismo iraultzailearen ideiak langile mugimendutik hainbat hamarkadetan baztertutik geratzea izan zen.

Leninen kolaboratzaile guztiak erailak izan ziren 1938rako Stalin eta burokraziak antolatutako epaiketa fartsen ondoren.

Hala ere, Trotskyk modu tinkoan altxa zuen bere ahotsa Stalinen krimenen aurka, leninismoaren benetako tradizioen eta Urriko Iraultzaren defentsan: langile demokraziaren tradizioak eta internazionalismo sozialista.

Trotsky eta Ezkerreko Oposizioko bere jarraitzaileek, Sobietar Batasunetik kaleratuak izatean, Alderdi Komunistak eta Internazional Komunita erreformatzen saiatu ziren, hauerata Leninen ideiak eta programa itzuli nahian. Trotskyk uste zuen 1933ko Hitlerren garaipenak (Stalinen politikaren ondorio zuzena izan zena) Alderdi Komunisten barnean internazionalki mugimenduak eragingo zituela. Baina Kominternaren degenerazio stalinista oso urrutira helduta zegoen dagoeneko. Stalinistek adierazi zuten nazien garaipena motza izango zela eta kontsigna ikaragarri bat jaurti zuten “Hitlerren ondoren, gure txanda da!”. Alderdi Komunita alemaniarra, munduko bigarren alderdi komunita handiena zena, deuseztatua izan zen eta patu berbera izan zuten sozialdemokratek eta sindikatuek.

Alemaniko esperientziaren ondoren, Trotsky ondorio batera iritsi zen: Internazional Komunistak Bigarren Internazionalaren (sozialista) bidea jarraitu zuen eta ez zen gai gizartearen eraldaketa sozialistaren erreminta izateko. Trotsky bandera berri baten beharra aldarrikatu zuen, Internazional berri bat. Trantsizio Programa Laugarren Internazionalaren Kongresu Fundatzaileko programa bezala idatzi zuen gerra hasi baino bi urte lehenago.

Testuinguru hartan, trotskysten indarrak txikiak eta isolatuak ziren, jazarpen handienera azpiratuak. Alemanian beren jarraitzaileak Gestapoaren presondegietan zeuden, Sobietar Batasunean Stalinen kontzentrazio esparruetan eta Estatu espainiarrean GPUren kartzeletan. Trotskyren helburua, Trantsizio Programarekin, erakunde gaztearen indar isolatuak gainditzea eta borrokan zeuden langileetara zubi bat eraikitzea izan zen. Trotskyk landutako errebindikazioak ez ziren zerutik erori, hauen sustraiak Leninen eta Alderdi Boltxebikearen programa eta politikan sartzen ziren, eta Internazional Komunistaren lehenengo lau kongresuen dokumentuen esentzia ziren, hauetako asko Trotskyk idatziak izan zirelarik. Hemen dugu sozialismo zientifikoaren ideien,

programaren eta metodoaren laburpena, Marx eta Engelsek orain dela 150 urte baino gehiago idatzitako Manifestu Komunistari jarraituz.

Jarraipen lerro garbi bat dago ideia hauetan. Aldatuko zen xehetasun bat edo bestea, baina esentzian marxismoaren ideiak 1938an edo 1848an bezain baliagarriak dira. Ekonomista eta politikari burgesak berriz, lotsatu egingo lirateke orain dela urtebete bakarrik argitaratu zutenaz.

Hamarkadetan zehar ekonomilari burgesek Marxek bere analisi eta iragarpenetan huts egin zuela mantendu dute eta krisiak iraganeko zerbaite zirela. Baina gertakizunek erakutsi dute ekonomilari burgesen iragarpenen faltsutasuna. Orain mundu mailako krisi ekonomikoak sozialismoaren auzia planteatzen du, burgesia hondamendirantz begiak itxita irristatzen den bitartean. Azken urteetako boom ekonomikoak irtenbide indibidualen aukerak eskaintzen zituen: lana gogor egin, ordu estrak... Baina atzeraldi ekonomikoaren hasierak suntsitu egin du burbuila eta biztanleria sistema kapitalista dudan jartzera bultzatzen du. Errealitatean, kapitalismoa zalantzan jartzea zabaltzen ari da. Etortzeke dagoen garai nahaspilatsuan areagotu egingo da ideia hau eta langile klasea mugitzen hasten denean, giroa azkar aldatuko.

Ekonomilari burgesek ziklo komertziala zabalkundearen adierazpen eta kredituaren uzkurdura bezala hausnartzen dute. Behin eta berriz kredituen lehorteari buruz ari dira. Hala ere, kredituen eskasia boom-atzeraldi zikloaren sintoma bat besterik ez da, eta ez honen arrazoia. Krisiaren benetako arrazoia ekoizteko indarren errebelamendua da jabetza pribatuaren eta Estatu burges nazionalaren aurka. Azken finean, ekoizteko indarren jabetza pribatua eta Estatu burges nazionala dira giza garapenaren benetako oztopoak.

Langile klasearen helburua bi oztopo hauek suntsitzea eta boterea hartzea izan behar da. Baina hori egiterako ezkerreko alderdi eta sindikatuak masak konkistatu behar dituzte programa iraultzaile batekin. Lan prestakuntza luze horretan beharrezkoak dira propaganda, formakuntza eta agitazioa. Nola lortu marxismoaren programa zientifikoa langile mugimendurekin konektatzea? Trantsizio Programan, Trotskyk erantzunaren zati batzuk ematen dizkigu. Bertan errebindikazio

sozialisten proposamen konkretua aurkituko dugu, erreformismoaren programari alternatiba ematen diona.

Zoritzarrez, munduko sindikatuen gehiengoetako zuzendaritzek politika erreformista bat defendatzen dute. Ez zaizkie grebak eta borroka batere gustatzen. Burokrata guztiak nahi dutena amesten dute: bizi lasai bat. Denboraldi batean, lor dezakete masen haserrea geraraztea. Baina krisi ekonomikoaren ondorio gogorrek ez diete bizi lasai hori bermatzen. Zenbat eta gehiago atzeratu langileen borroka masiboak, orduan eta lehergarriagoak izango dira heltzen direnean. Eta helduko dira.

Gizartea bi klase antagonikotan dago banatuta. Sozialista irlandar batek modu honetan planteatu zuen: bi klase daude, dena ekoizten duena eta ezer ez duena, eta ezer ekoizten ez duena eta denaren jabe dena. Hau sinplifikazio arin bat da, noski, erdi bideko beste klaseak ere badaudelako. Hala ere, gizarteko bi klase nagusiak ondo deskribatzen zituen: proletargoa eta burgesia.

Ez da posible proletargoaren eta burgesiaren interesak adiskidetzea. Langile klasearen interesak babestu daitezke, hau da, gizarteko gehiengoarenak, edo gutxiengo aberats bizkarroien interesak babestu daitezke: bankarrienak, lurjabe handienak eta kapitalistenak. Baina ezin dira bienak batera babestu. Klase antagonikoen interesak adiskidetzea bultzatzen duen politika erreformistak, azkenean klase dominatzailearen interesak defendatzen amaitzen du beti langile klasearen kalterako.

1938an Trotskyk idatzi zuen hamar urtetan langile alderdi zaharrak, sozialdemokrazia eta stalinismoa suntsituta geratuko zirela. Iragarpen hau ordea historiak gezurtatu zuen. Bigarren Mundu Gerra Trotskyk uste ez zuen moduan garatu zen. Hitler, Stalin, Churchill edo Rooseveltek ere ez zuten asmatu zer gertatuko zen. Edozein kasutan, gerrak prozesu iraultzaileak eragin zituen, 1943tik hasita, eta zuzendaritza stalinistek eta sozialdemokratek suntsitu egin zituzten. Honak ezarri zituen kapitalismoaren erredukzioerako oinarriak eta hainbat hamarkada iraun zuen goraldi ekonomikoa.

1940ean, Trotsky agente stalinista batek eraila izan zenean, langile mugimendua bere lider eta teoriko garrantzitsuena

gabe geratu zen une erabakigarri batean. Zoritzarrez, Laugarren Internazionalerako agintariak ez ziren gai izan historiak eskatutako mailara iristeko. Akats larriak egin zituzten, ultraezkerkeriaren eta oportunismoaren artean ibiliz.

Leninek eta Trotskyk behin eta berriro egin zieten aurre langile mugimenduaren alboan azaltzen diren sektario ultraezkertiarrei. Langileen alderdi tradizional erreformistei sekula ez diete garrantzirik eman ultraezkertiarrek, bertan parte hartzen duten langileekin kontatu beharko ez balitz bezala borroka iraultzailerako. Ahaztu egiten dute masen erakunde hauek langile klasearen babes handia izaten jarraitzen dutela. Langileak borrokan hasten direnean beren erakunde tradizionaletara zuzentzen dira eta ez talde txiki “iraultzaileetara”. Beren alderdi eta sindikatuak proban jarriko dituzte behin eta berriro, eta gertakizun garrantzitsuen (iraultza, gerra...) ondoren ez dutela balio ikusten badute, orduan soilik bilatuko du gehiengoak beste alternatiba bat.

Objektiboki, burgesiaren posizioa iraganean baino askoz ahulagoa da. Trotskyk Trantsizio Programa idatzi zuenean klase dominatzaileak erreserba handiak zituen nekazarietan baina hau dagoeneko ez da existitzen. Garai haietan ikasleen gehiengoak familia aberatsetakoa zen eta faxismoa babesten zuten. Gaur ordea asko ikusiko ditu ezkertiarrek, antikapitalistak eta iraultzaile bidea hartu nahi dutenak ikastetxeetan.

Burgesiaren aliatu nagusiak alderdi eta sindikatuetakozuzendaritza erreformista eta stalinistak bihurtu dira. Hauek dira gizarteko elementu kontserbadoreenetakoak. Horregatik, beharrezkoa da marxismoaren ideiak langile mugimendura eta hauen alderdi eta sindikatuak eramatea. Trotskyren hitzetan, gizateriaren krisia proletalgoaren zuzendaritzaren krisira mugatu daiteke. Klaseen arteko amildegia gero eta gehiago ari da handitzen mundu guztian baina langileen agintari erreformistak eskuinerantz doaz. Hala ere, prozesu honek ere bere mugak izango ditu. Langile klasearen haize freskoa putz egiten hasten denean, langile klasearen psikologian aldaketak bat emango da.

Honek ez du esan nahi iraultza datorren astean hasiko denik. Egoera objektiboa kontraesankorra da oraindik. Herrialde kapitalista industrialetako proletalgoaren batailoi handiak

mugitzen hasi besterik ez dira egin. Geldi egon den kirolari baten moduan, proletalgoak denbora behar du bere musku-luak berotzeko.

1917-39ko garaia krisi sozial sakonekoa izan zen. Orduan ere boomak egon ziren, askotan langile klasearen borroka gogorrek lagunduta lehenago kendu zitzaiena eskuratzeko helburuarekin. Honek eragina izan zuen proletalgoaren masa erakundeetan. Herrialde ezberdinetan korronte zentristak, krisiak eta zatiketak sortu ziren. Prozesu honek sozialdemokraziari eragin zion baina ez alderdi komunistei, hauek erabat monolitikoak baitziren, Sobietar Batasunaren autoritate itzela islatuz. Hau dena aldatu egin da ordea. Alderdi komunistek alboratu egin dute edozein ikuspegi iraultzaile eta alderdi erreformista bihurtu dira azken finean. Horregatik, kapitalismoaren eta erreformismoaren krisiak zuzenean eragingo die. Hala ere, lehen esan dugun bezala, honek ez du esan nahi alderdi hauetara, oraindik mantentzen duten izenagatik ere, hainbat langile eta gazte zintzo gerturatuko ez direnik kapitalismoarekin amaitzeko helburuarekin.

Mundu mailako egoera ez da oso lasaia. Guztiz kontrakoa, leku guztietan egoera lehergarri bat existitzen da. Klase dominatzailea beldurtuta dago. Erreformistak krisian daude. Langileak eta gazteria ideia iraultzailetara inoiz baino irekiago daude. Auzia ez da langile klasea mugituko den edo ez, baizik eta mugitzen denean, zein programa izango duten. Horregatik, beharrezkoa da ez uztea biharko marxismoaren ideiak zabaltzearen eta defendatzearen lana. Marxismoaren ideiak Euskal Herri osoko langile eta gazteengana eramateko helburu honetan pauso txiki baino garrantzitsu bat gehiago izango dela uste dugu Trotskyren Trantsizio Programa euskaraz argitaratzea. Gora langile internazionalismoa eta iraultza sozialista! Gora Euskal Herria Sozialista!

TRANSIZIO PROGRAMA

Kapitalismoaren agonia eta Laugarren
Internazionalaren eginkizunak

IRAULTZA SOZIALISTARAKO BALDINTZA OBJEKTIBOAK

Egungo nazioarteko egoera politikoari izaera ematen dion ezau-garrria, ororen gainetik, proletalgoaren zuzendaritzaren krisi historikoa da.

Iraultza proletarioaren baldintza ekonomikoak duela den-bora asko iritsi dira kapitalismoan lor dezakeen puntu gore-neraino. Gizateriaren ekoizpen indarren hazkuntza eten egin da. Asmakizun berriek eta aurrerapen teknikoek ez dakarte aberastasun materialaren hazkuntzarik. Krisi koiuntural berri bakoitzak, sistema kapitalista osoaren krisi sozialeko tes-tuinguru batean, masei beti ere murrizpen eta oinaze handia-goak ekartzen dizkiete. Langabeziaren hazkuntzak aldi bere-an Estatuaren krisi finantzarioa sakontzen du eta moneta sistema zalantzatiei azpiak jaten dizkie. Gobernuak, bai de-mokratikoak bai faxistak, etengabeko krisi finantzarioek era-ginda aurkitzen dira .

Burgesiak berak ere ez du irtenbiderik ikusten. Bere bu-rua faxismoaren kartaren alde apustu egitera beharturik iku-si zuen herrialdeetan ere hondamendi ekonomiko eta milita-rreza zuzentzen ari da begiak zapi batekin estalirik. Histori-koki pribilegiatuak diren herrialdeetan, hau da, aurretiko metaketa nazionalari esker demokraziaren luxua baimendu dezaketen haietan (Britainia Handian, Frantzia, Estatu Ba-tuetan) kapitalaren alderdi tradizional guztiak nahasmen egoera batean aurkitzen dira, une batzuetan, borondatearen paralisi izatera ere ia iristen dena. “New Dealak”¹, lehen une batean harrokeriaz izaera ausart bat erakusten bazuen ere

1. *New Deal*, Franklin D. Roosevelt (1882-1945, Ameriketako Estatu Batuetako presidentea 1932tik bere heriotzararte) administrazioak 1929ko Depresio Han-

nahasmenduaren forma jakin bat besterik ez du islatzen, burgesiak aberastasun erraldoiak metatu ahal izan dituen herrialde batean bakarrik posible dena. Egungo krisiak, oraindik ere bere osotasunera iristetik urrun aurkitzen denak, ez Estatu Batuetako “New Deal” politikak ez Frantziako Fronte Herrikoiarenak² ez dutela arazo ekonomikoari konponbiderik emateko balio erakutsi digu.

Nazioarteko harremanen koadroak ez du itxura hoberik. Gainbehera kapitalistaren presioa dela eta antagonismo imperialistek, jada gatazka eta eztanda odoltsuak (Etiopia, Espainia, Ekialde Urruna, Ertaeuropa...) mundu mailako sute batekin nahasten diren, muga gurutzatu dute. Izatez, burgesiak sumatzen du gerra berri batek bere agintearentzat zein arrisku hilgarria suposatuko lukeen, baina egun mila bider gaitasun gutxiago du berau saihesteko 1914aren bezperetan baino.

Sozialismorako baldintza historikoak oraindik ere ongi “helduta” ez daudela azaltzen duten mota guztietako hitzontzikeriak ezjakintasunaren eta engainu kontzientearen fruitu dira. Iraultza proletariorako baldintza objektiboak ez daude helduta bakarrik, desegiten ere hasi dira. Hurrengo garai historiko batean iraultza sozialik ematen ez bada, giza zibilizazioa hondamendi batek birrindua izateko mehatxupearan aurkituko da. Proletalgoaren esku dago dena, hau da, bere

diak eragindako arazo larri ekonomikoak eta langile klasearen erradikalizazio-gatik sortutako ondorio politikoak konpontzen saiatu zen planari emandako izena da. Roosevelten administrazioak aurrera eraman zituen errekupezioko proiektuak eta *National Recovery Act* (NRA) bezalako erreforma legislatiboak. *Nex De-alaren* erreformismoak aukera eman zion klase kapitalistari langileei hainbat eskubide itxuraz eskaintzeko, nahiz eta errealtatean hauek sakonki murriztea besterik ez izan. 1936ean, AEBtako Alderdi Komunistak Roosevelt babestu zuen, bertsio amerikarraren taktika frenteherrikoa, langile mugimendua Alderdi Demokratara bideratzea bultzatuz, justu langile alderdi independente baten beharra nabariki zabaltzen ari zen uanean.

2. Fronte Herrikoa edo taktika frenteherrikoa Internazional Komunistaren aldaroka eskuindarra izan zen 1935ean: langile alderdien eta alderdi kapitalista liberaleen edo demokratikoen arteko gobernu koalizio politika. 1936ean, Frantzian, Fronte Herrikoiaren gobernuak okupazioekin eta beste ekintza militanteekin lotua zegoen erradikalizazio prozesu baten une gorenean aukeratua izan zen. Leon Blum, Alderdi Sozialista frantziarreko kidea, epealdi motzeko gobernu honen lehen ministroa izan zen. Langile klase frantziarraren grebak hausteko jarrera mantendu zuen eta uko egin zion langile eta nekazari espainiarrak laguntzeari une erabakigarrietan, Frankoren estatu kolpeari aurre egiteko erresistentzia saiakeran.

abangoardia iraultzailearen esku. Gizateriaren krisi historikoa zuzendaritza iraultzailera laburtzen da.

PROLETALGOA ETA BERE ZUZENDARITZAK

Gizartearen egoera aurre-iraultzailearen ezaugarri den krisi sozialak sakonki eragiten du ekonomian, Estatuan, burgesiarren politikan eta bere nazioarteko erlazioetan. Egoera aurre-iraultzailea iraultzaile bilakatzeko bidean aurkitzen den oztoporik handiena zuzendaritza proletarioaren izaera oportunistata da, bere koldarkeria burges txikia eta bere agonian azken hauekin mantentzen duen konexio traidorea.

Herrialde guztietan proletalgoa egonezin sakon batek ukitzen du. Milioika lagunek osatutako masa handiak etengabe mugimendu iraultzailerantz datoz, baina bide horretan euren zuzendaritza propioaren aparatu burokratiko kontserbadorearekin tupust egiten dute beti.

Proletalgo espainiarrak 1931ko apiriletik hainbat eta hainbat saiakera heroiko egin ditu bere eskuetan boterea eta gizartearen patuaren zuzendaritza hartzeko. Hala ere, bere alderdi propioek (sozial-demokratek, stalinistek, anarkistek eta POUMak) bakoitzak bere erara, balazta lana egin dute eta honela Frankoren garaipena prestatu dute.

Frantzian, greba olatu boteretsuak, lantegien okupazioekin, batez ere 1936ko ekainean, proletalgo sistema kapitalista eraisteko prest zegoela argi erakutsi zuen. Bestalde, erakunde zuzendariak, sozialistek, stalinistek eta sindikalistek, Fronte Herrikoiairen etiketarekin, korronte iraultzailea, aldi baterako behinik behin, kanalizatzea eta gelditzea lortu zuten.

AEBetan, lantegien okupaziodun greben aurrekaririk gabeko errekorra eta sindikatu industrialen hazkuntza azkar miresgarria (CIO)³ langile amerikarrek historiak atxiki dien

3. CIO: *American Federation of Labourers* (AFL)barruan eraturako komite batetik sortu zen. AFLko agintari kontserbadoreek uko egin zioten fabriketako langile erradikalizatuenak ordezkatzeko erakunde berriak sortzeko eskaerari; 1938an CIOko sindikatuak kaleratu zituzten, beren erakunde nazionala sortzera behartuz. Batasunerantz zeramatzan elkarrizketen ondoren, AFL eta CIO fusionatu egin ziren 1955ean.

eginkizunaren altueraraino igotzeko duten senezko gogoaren adierazpen eztabaidaezinak dira. Baina hemen ere erakunde zuzendariek, sortu berria den CIO berak ere bai, ahal duten guztia egiten dute masen ofentsiba iraultzailea eteteko eta geldiarazteko.

Internazional Komunista⁴ ordena burgesaren aldera igaro izanak, mundu osoan izaten ari den paper zinikoki kontrairaultzaileak, batez ere Espainian, Frantzia, Estatu Batuetan eta gainerako herrialde “demokratikoetan”, zailtasun gehigarri latzak sortu dizkio munduko proletalgoari. Urriko iraultzairen zeinuean, “Fronte Herrikoiaren” politika kontserbadoreak langile klasea inpotentziara darama eta faxismoari bidea irekitzen dio.

“Fronte Herrikoiak” alde batetik, faxismoa bestetik, inperialismoaren azken baliabide politikoak dira iraultza proletarioaren aurkako borrokan. Hala ere, ikuspuntu historikotik, bi baliabide hauek ez dira fikzio hutsa baino. Kapitalismoaren usteltzeak bai Frantziako txano frigiarraren⁵ bai Alemaniako esbastikaren zeinuean jarraitu egingo du. Burgesiaren botatzeak bakarrik konpon dezake gaur egungo krisia.

Masen orientazioa deskonposaketa egoeran dagoen kapitalismoaren baldintza objektiboek baldintzaturik dago, batetik, eta langile alderdi zaharren traizio politikoagatik, bestetik. Bi faktore hauetatik faktore erabakigarria lehenengoa da, noski; historiaren legeak boteretsuagoak dira aparatatu burokratikoak baino. Erabiltzen dituzten metodo sozial-traidoreen aniztasuna edozein dela ere (Blumen⁶ legedia “sozialetik” hasita Stalinen faltsutze judizialtararte), ezingo dute proletalgoaren borondate iraultzailea apurtu. Geroz eta eskala handiagoan,

4. Hirugarren Internazionalaren edo Internazional Komunistaren izen laburra, 1919an Leninen zuzendaritzapean Bigarren Internazionalaren alternatiba iraultzaile bezala eratu eta 1943an Hitlerri aurre eginez demokrazia inperialistekin aliatzeko Stalinekin suntsitua. Hitler boterera heltzea, Alderdi Komunista alemaniarren politika hondagarriaren ondoren eta Komintern stalinistaren onarpenarekin, izan zen Trotsky eta Ezkerreko Oposizio internazionala Hirugarren Internazionalaren porrotaz eta 1938an eraturako Laugarren Internazionala eraikitzearen beharraz konbentzitu zituena.

5. Frigio txanoa errepublikanismo frantziarraren eta 1789ko iraultzaaren sinbolo bat da. Svastika naziek errekuuperatutako sinbolo germaniar zahar bat da.

6. Ikus 2. oharra.

historiaren gupila gelditzeko burutzen dituzten saiakera etsipengarriek masei zera erakutsiko die, proletalgoaren zuzendaritzaren krisia, giza zibilizazioaren krisi bilakatu dena, Laugarren Internazionalak bakarrik konpon dezakeela.

PROGRAMA MINIMOA ETA TRANTSIZIO PROGRAMA

Datorren garaiko (agitaziorako, propagandarako eta antolaketarako garai aurre-iraultzailerako) eginkizun estrategikoa iraultzarako baldintza objektiboen heldutasunak eta proletalgoaren eta bere abangoardiaren heldutasun ezak (zuzendaritza zaharraren nahasmenegatik eta desmoralizazioegatik, eta gazteen esperientzia faltagatik) sortzen duen kontraesana gainditzea da. Beharrezkoa da masei, borrokaren prozesuan, euren egungo errebindikazioen eta iraultza sozialistaren programaren arteko zubia aurkitzen laguntzea. Zubi honek errebindikazio trantsitorioen sistema bat izan behar du, egungo baldintzetatik eta langile klasearen kapa zabalen egungo kontzientziatik abiatuz ondorio bakar eta berera eramango duena: proletalgoaren botere konkistara.

Sozialdemokrazia klasikoak, bere ekinbidea kapitalismo gorakorren garaian garatu zuenak, bere programa bi zatitan banatzen zuen, bata bestearengandik independente: programa minimoa, gizarte burgesaren testuinguruaren barruan erreforma batzuk egitera mugatzen zena, eta programa maximoa, etorkizun zehaztu gabe baterako kapitalismoa sozialismoagatik ordezkatzeko hitz ematen zuena. Programa maximoaren eta programa minimoaren artean ez zegoen inongo zubirik. Sozialdemokraziak ez zuen zubi horren beharrik, sozialismoari buruz festa egunetan bakarrik hitz egiten baitzuen.

Internazional Komunista, kapitalismoaren deskonposaketaren aroan, sozialdemokraziaren bidean sartu da, azken honek erreforma sozial sistematikoen inguruan ezer ere egin ezin duenean, ezta masen bizi maila igo ere; burgesiak eskuin eskuarekin ezker eskuarekin eman zuenaren bikoitza hartzen duen garai honetan (zergak, aduana-eskubideak, inflazioa “deflazioa”, bizitza garestia, langabezia, greben arautze poliziala, etab.); proletalgoaren edozein errebindikazio seriok eta baita

burgesia txikiaren edozein errebindikazio aurrerakoik ere, nahita ez, jabego kapitalistaren eta Estatu burgesaren mugetatik haratago eramaten gaitu.

Laugarren Internazionalaren helburu estrategikoa ez da kapitalismoa erreformatzea, hau eraistea baizik. Bere xede politikoa proletalgoak boterea konkistatzea da burgesiaren desjabetzea aurrera eramateko. Hala ere, helburu estrategiko honen lorpena pentsaezina da taktikaren inguruko auzi guztien, baita txikienen eta partzialenen, inguruko jarrerarik zainduena izan gabe.

Proletalgoaren frakzio guztiak, kapa guztiak, profesionalak eta talde ezberdinak mugimendu iraultzaileak herrestan eraman behar ditu. Egungo garaiaren bereizgarria ez da alderdi iraultzailea eguneroko lan prosaikotik salbuetsita gertatzen denik, borroka hori iraultzaren helburuekin batasun bereiztezinean burutzea baimentzen duela baizik.

Laugarren Internazionalak ez ditu programa “minimo” zaharrekoak alde batera utzi, hauek indar esanguratsu apur bat mantendu baitute. Nekerik gabe, langileen eskubide demokratikoak eta bere konkista sozialak defendatzen ditu, baina lan hau ikuspegi zuzen baten testuinguruan burutzen du, ikuspegi errealekin, beste era batera esanda, iraultzaile batekin. Masen errebindikazio partzialak minimoak kapitalismo dekadentearen joera suntsitzaile eta umiliagarriekin gatazkan sartzen diren neurrian —eta hau aldi oro gertatzen da—, Laugarren Internazionalak errebindikazio trantsitorioen sistema bat babesten du, eta bere zentzua geroz eta modu ireki eta ausartagoan erregimen burgesaren oinarrien aurka zuzentzea da. “Programa minimo” zaharra etengabe gainditua da trantsizio programaren eskutik eta honen helburua masen mobilizazio sistematikoa da iraultza proletarioaren bidean.

SOLDATEN ETA LAN ORDUEN ESKALA MUGIKORRA

Deskonposaketa egoeran dagoen kapitalismoaren baldintzetan, masek zapalduen bizitza tristea bizitzen jarraitzen dute, orain inoiz baino gehiago, pobreziaren amildegitik behera

boteak izateko arriskuak mehatxaturik daudelarik. Euren ogi zatia defendatu beharra dute, hau ezin baitute ez handitu ez hobetu. Ez da posible ezta beharrezkoa ere une oro testuinguru konkretu, nazional, lokal eta profesioaletatik sortzen diren errebindikazio partzial guztiak zerrendatzea. Baina bi oinarriko zorigaitz ekonomikorik, hau da, langabeziak eta bizitzaren garestitzeak, borrokarako kontsigna eta metodo orokorrak exijitzen dituzte.

Laugarren Internazionalak gerra gupidagabea aldarrikatzen dio kapitalisten politikari, hein handi batean euren agenteena dena, erreformistena, langileen bizkarren gainean militarismoaren, krisiaren, moneta sistemen desordenaren eta agonia kapitalistaren gainerako zorigaitzen fardel osoa jartzeko joera baitute. Laugarren Internazionalak lanerako eskubidea eta existentzia duin bat errebindikatzen ditu dementzat.

Ez inflazioak ez monetaren egonkortzeak ez dute balio proletalgoaren kontsigna bezala, txanpon beraren bi aldeak baitira. Bizitzaren garestitzearen aurka, zeina gerra hurbiltzen den heinean geroz eta gehiago sakonduko den, kontsigna bakar batekin borroka daiteke: soldaten eskala mugikorrarekin. Lan-hitzarmen kolektiboei soldaten igoera automatikoa segurtatu behar dute kontsumo artikuluen salneurriak igotzearekin batera.

Degeneraziora borrodatez errenditzeko zigorraren arriskuagatik, proletalgoak ezin du geroz eta handiagoa den langile multzo bat langabetu kroniko bilakatzerik eta deskonposizioan dagoen gizarte baten ogi apurretatik bizi den behartsu talde bihurtzerik baimendu. Lan egiteko eskubidea langile baten esplotazioaren gainean oinarritzen den gizarte batean duen eskubide bakarra da. Hala ere etengabe eskubide hori kendu egiten zaio. Langabeziaren aurka, bai “egiturazkoaren” aurka eta bai “koiunturalaren” aurka, ezinbestekoa da lan orduen eskala mugikorraren kontsigna bultzatzea. Sindikatuek eta gainerako masa erakundeek elkartu egin behar dituzte lana duten haiek lanik ez dutenekin, elkartasunezko elkarren arteko konpromisoen bitartez. Dagoen lana dauden langile-esku guztien artean banatu behar da eta honela zehaztu lan astearen iraupena. Langile bakoitzaren soldata jardunaldi

zaharrarekin zuen berdina izan behar da. Soldatek, hertsiki segurtaturiko minimo aseguratatu batekin, salneurrien mugimenduei jarraitu behar die. Ezin da bestelako programarik onartu egungo egoera hondagarrian.

Kapitalistek eta euren abokatuek errebindikazio hauek “burutzea ezinezkoa dela” erakutsiko dute. Zenbateko txikiagoko kapitalistek, batez ere hondamendirantz doazen haiek, euren kontabilitate liburuen laguntzari dei egingo diote. Langileek erabat baztertu behar dituzte argudio eta erreferentzia horiek. Ez gara ari hemen kontrako interes materialen arteko talka “arrunt” bati buruz. Proletalgoa dekadentziatik, desmoralizaziotik eta hondamenditik babesteari buruz ari gara. Klase sortzaile eta aurrerakoi bakarraren bizitzari eta heriotzari buruz ari gara, eta horrexegatik, gizateriaren etorkizunari buruz. Kapitalismoak berak eragiten dituen gaitzetatik hutsik gabe sortzen diren errebindikazioak asetzeko gaitasunik ez badu, ez zaio hiltzea besterik geratzen. Errebindikazioak burutzeko “aukera” edota “aukerarik eza”, oraingo egoeran, in-dar erlazioen auzi bat da, borrokaren bitartez bakarrik konpon daitekeena. Borroka hau oinarriztat harturik, eta berehalako arrakasta praktikoak edozein direla ere, langileek, modurik hoberenean, zera ulertuko dute, beharrezkoa dela esklabotza kapitalista suntsitzea.

SINDIKATUAK TRANTSIZIO GARAIAN

Errebindikazio partzialen eta trantsitorioen aldeko borrokan, langileek, orain inoiz baino gehiago, masa erakundeak behar dituzte, oroz gain sindikatuak. Frantziako eta Estatu Batuetako sindikatuen goraldia sindikatuak “garaiz kanpo” zeudela predikatzen zuten doktrina ultraezkertiar haientzako erantzunik hoberena da.

Boltxebike-leninistak⁷ borroka mota guztien lehen lerroan aurkitzen dira, baita langile klasearen interesik xumeenen aldeko borroka haietan ere. Paper aktiboa jokatzeko dute masa

7. Ezkerreko Oposizioaren kideek euren buruari ematen zioten izena fideltasun bikoitz nabarmentzeko boltxebismoari eta Lenini stalinisten kalumnien aurrean.

sindikatuena eguneroko bizitzan, borroka izpiritua sendotzeaz eta handitzeaz arduratuz. Gupida gabe borrokatzen dute sindikatuak estatu burgesari makurtzeko edota proletalgoari “derrigorrezko arbitrajearekin” eskuak lotzeko saiakera guztien aurka, eta gainerako esku hartze polizial mota guztien kontra, ez faxistenak bakarrik, baita “demokratikoenak” ere. Lan hori oinarritzat harturik bakarrik borroka daiteke sindikatuen barnean burokrazia erreformisten aurka, stalinisten aurka barne. Sindikatu “iraultzaile” txikiak sortzeko edota mantentzeko saiakera sektarioek, alderdiaren bigarren edizio bat bailiran, izatez langile klasearen zuzendaritzarengatiko borroka suposatzen dute. Beharrezkoa da hemen printzipio aldaezin bezala honako hau planteatzea: masa sindikatuetatik kanpo koldarki auto-isolatzea, iraultzari traizio egitearen parako dena, ez dator bat Laugarren Internazionalako kide izatearekin.

Aldi berean Laugarren Internazionalak adorez baztertzen eta salatzen du sindikatueta fetitxismo oro, tradeunionistek eta sindikalistek bere-berea dutena.

a) Sindikatuak ez dute eta ezin dute, euren helburuengatik, osaeragatik eta errekrutatzaile izaeragatik, programa iraultzaile biribilik izan; horregatik ezin dute alderdia ordezkatu. Alderdi iraultzaile nazionalen eraketa, Laugarren Internazionalaren sekzioena, trantsizio garaiko helburu nagusia da.

b) Sindikatuak, boteretsuenak direnak ere, ez dira langile klasearen %20ra edo 25era baino iristen, eta beste aldetik, klasearen kaparik kalifikatuenetara eta hobekien ordainduenetara iristen dira. Langile klasearen masarik zapalduena langile mugimenduaren ohiz kanpoko goraldi garaietan bakarrik da aldian behin borrokara eramana. Garai hauetan beharrezkoa da espresuki une honetan behar diren antolaketak sortzea, borrokan dagoen masa guztira iritsiko diren greba komiteen, lantegietako komiteen, eta azken batean, sobieten bitartez.

c) Proletalgoaren kapa gorenaren erakundeak diren neurrian, sindikatuak, esperientzia historikoa guztiak erakusten digun bezala, Espainiako sindikatu anarko-sindikalisten esperientzia freskoak barne, erregimen demokratiko burgesarekin adiskidetzeko joera indartsuak garatzen dituzte. Klase borrokaren

garai zorrotzetan, sindikatuen zuzendaritza aparatuek masa mugimenduaren jabe bihurtzeko esfortzua egiten dute, berau otzantzekoa. Hau jada greba sinpleenetan gertatzen da, batez ere lantegi okupazioetan, non jabego burgesaren printzipioak astinduak diren. Gerra edo iraultza garaietan, burgesiaren egoera benetan latza denean, sindikatuen buruzagiak maiz ministro burges bilakatzen dira.

Aurreko guztiagatik, Laugarren Internazionalaren sekzioek etengabe lan egin behar dute sindikatuen aparatua berritzeko, une kritikoetan borrokarako prest dauden lider berriak kemenez eta ausardiarekin proposatuz funtzionario errutinari eta karreristen ordeztu, eta ez hori bakarrik, baita posible den kasu haietan guztietan beharrezkoa balitz beldurrik gabe borroka antolaketa autonomoak sortzeko ere, gizarte burgesaren aurkako masen borrokaren helburuei hobeto egokituko zaizkienak, sindikatuen aparatua kontserbadorearekiko haustura ireki baten aurrean. Fikzio sektarioekin gogobetarik masa erakundeei bizkarra ematea kriminala bada, ez du kriminaletik gutxiago masen mugimendu iraultzailea "aurrera-koi" bezala mozorrotzen diren taldexka erreakzionario eta burokratikoen menpe egotea pasiboki onartzeak. Sindikatua ez da helburu bat bere baitan, erabili beharreko baliabide bat baizik iraultza proletariorako bidean.

LANTEGIETAKO KOMITEAK

Trantsizio garaiko langile mugimenduak ez du izaera erregular eta barerik, sukartsua eta lehergarria baizik. Kontsignak, antolatze moduak bezala, mugimenduaren izaera horren menpe jarri behar dira. Errutinatik izurritik bezala ihes eginez, zuzendaritzak arretaz begiratu behar die masen ekimenei.

Lantegi okupazioak dituzten grebek, inizatiba honen azkenetariko adierazpenetako hauek, erregimen kapitalista arrunt baten mugak zeharkatzen dituzte. Grebalarien errebindikazioak edozein direla ere, enpresen denbora bateko okupazioak kolpe gogor bat ematen dio jabego kapitalistaren idoloari. Okupaziodun greba orok lantegiaren jabea zein den

erabakitzearen auzia planteatzen du azken finean: kapitalis-tarena edota langileena.

Okupazioak auzi hau aldiari behin sustatzen badu, lantegiko komiteak beroni adierazpen antolatua bat ematen dio. Enpresako langile eta enplegatu guztiek hautaturik, lantegiko komiteak, bat-batean, administrazioaren borondatearen kontrapisu bat sortzen du.

Erreformistek eredu zaharreko patroiei, "eskubide jainkotiarreko patroiei", esplotatzaile "zintzo" eta "demokratikoak" kontrajarriz egiten dieten kritikari, guk lantegietako komiteen kontsignarekin erantzuten diogu, bai aurrenekoen eta bai bigarrenen aurkako borroka zentro bezala.

Sindikatuetakoa burokratek, orokorrean, aurre egingo diote komiteak sortzeari, masen mobilizazioaren ibilbideko pausu ausart guztiei aurre egiten dien bezala. Hala ere, oposizio hau apurtzea are eta errazagoa izango da mugimenduaren hedapena zenbat eta handiagoa izan. Garai "lasaietan", enpresako langileak jada sindikatueta erabat barneraturik aurkitzen diren leku haietan, komitea formalki bat etorriko da sindikatuaren organoarekin, baina bere konposaketa berrituko du eta bere funtzioak zabaldu. Alabaina, komiteen esangura garrantzitsuena sindikatua orokorrean iristen ez den langile kapa haien estatu nagusi bilakatzea da. Eta hain zuzen kapa zapalduenatariko horietatik sortuko dira iraultzaren aldekoenak izango diren destakamenduak.

Lantegiko komitea agertzen den une beretik, izatez, bostere bikoitz bat finkatzen da. Esentzian trantsitoriotik badu zerbait bere baitan, bi erregimen adiskidezin gordetzen baititu beregan: erregimen kapitalista eta erregimen proletarioa. Lantegietako komiteen garrantzia hain zuzen erregimen burgesaren eta erregimen proletarioaren arteko garai aurreiraultzaile bat, eta ez zuzenki iraultzailea, irekitzean aurkitzen da. Hainbat herrialdetan piztu den lantegi okupazioen uholdeak erakusten digu modurik garbienean lantegietako komiteen aldeko propaganda ez dela goiztiarra eta artifiziala. Mota horretako olatu berriak saihestezinak dira etorkizun gertu batean. Beharrezkoa da lantegietako komiteen aldeko kanpaina bati ekitea gertakariak ustekabeen ez hartzeko.

‘SEKRETU KOMERTZIALA’ ETA EKOIZPENAREN LANGILE KONTROLA

Lehian eta merkatal askatasunean oinarritutako kapitalismo liberala bizi hobera pasa da. Hau ordezkatu zuen kapitalismo monopolizatzaileak ezin izan du merkaturako anarkia murriztu, alderantziz, izaera bereziki asaldua eman dio. Ekonomiaren gaineko “kontrol” baten beharra, estatu “zuzendaritza” batena, “planifikazio” batena orain behintzat babesten dute —hitzetan behinik behin— pentsamendu burgesaren eta burges-txikiaren korronte ia guztiek, faxismotik hasita sozialdemokrazia-arte. Faxismoaren kasuan batez ere herriaren harrapakaria “planifikatu” bat esan nahi du, helburu militarrekin. Sozialdemokratek anarkiaren ozeanoa “planifikazio” burokratikoaren koilara batekin hustu nahi dute. Ingeniariek eta irakasleek “teknokraziari” buruz artikulua idazten dituzte. Baina gobernu demokratikoak, euren “arautze” saiakera lotsatietan, kapital handiaren sabotaje gaindiezinarekin topo egiten dute.

Esplotatzaileen eta “kontrolatzaile” demokratikoen arteko lokarria gertakari honek erakusten du: jaun “erreformatzaileak”, zirrara santu batek harturik, trusten atarietan gelditu egiten dira, hauen industria eta merkatal “sekretuen” aurrean. Hemen “ez esku hartzearen” printzipioak agintzen du. Kapital isolatuaren eta gizartearen arteko kontuak kapitalismoaren sekretu bat dira: gizarteak ez du zerikusirik hauekin. “Sekretu komertziala”, kapitalismo liberalaren garaian bezala, “lehiaren” interesak aipatuz justifikatzen da. Errealitatean, trustek ez dute sekreturik euren artean. Egungo aroan merkatal sekretua kapital monopolizatzaileak gizartearen kontra duen konplot etengabea da. “Eskubide jainkotiarreko patroien” absolutismoa mugatzeko proiektuek iruzur tamalgarriz izaten jarraituko dute ekoizpen baliabide sozialen jabe pribatuek ekoizleei, eta kontsumitzaileei, esplotazioaren, harrapakariaren eta engainuaren mekanika ezkututzen jarraitu ahal duten bitartean. “Sekretu komertzialaren” abolizioa industriaren gaineko egiazko kontrol bat eskuratzeko lehen pausua da.

Langileek ez dute kapitalistek baino eskubide gutxiago enpresaren, trusten, industriaren adarren, ekonomia nazionalaren

osotasunaren “sekretuak” ezagutzeko. Bankuek, industria astunak eta garraiobide zentralizatuek izan behar dute lehenak behaketara behartuak izaten.

Langile kontrolaren lehen eginkizunak gizartearen irabaziaz eta kostuak zein diren argitzea, enpresa isolatutik hasita, kapitalismo isolatuak eta kapitalistek errenta nazionalaren osotasunean betetzen duten egiazko zatia determinatzea, korridoretako konbinazioak eta bankuen eta trusten iruzurrei mozorroa kentzea dira; azken batean, gizarteari kapitalismoaren anarkiak eta irabaziaren jazarpen eksklusiboak suposatzen dion giza lanaren alferrik galtze beldurgarria argitara ematea.

Estatu burgeseko funtzionario bakar batek ere ezin du eginkizun hau bete, jaso dituen botereak edozein direla ere. Mundu osoak ikusi du Roosevelt presidentearen eta Leon Blum kontseiluko presidentearen inpotentzia “60” eta “200”⁸ familien konplotaren aurrean, bakoitzak bere herrialdean. Esplotatzaileen erresistentzia apurtzeko proletalgoaren presioa behar da. Lantegietako komiteek eta hauek bakarrik segurta dezakete ekoizpenaren gaineko egiazko kontrol bat, horretarako herriarekin zintzoak eta ondraduak diren espezialistek kontseilari moduan, eta ez teknokrata bezala, laguntzeko dei eginez: kontulariei, estatistikariei, ingeniarietara, zientzialarierara, etab.

Langabeziaren kontrako borroka, bereziki, ezin da aurrera eraman “obra publiko handien” antolaketa zabal eta ausart bat izan gabe. Baina obra handi horiek ezin dute garrantzia iraunkor eta gorakor bat izan, ez gizartearentzat ez langabe-tuentzat, plan orokor baten barnean aurkitzen ez badira, hainbat urte hartuko lituzkeena. Halako plan baten testuinguruan langileek lanera itzultzea errebindikatu dute, gizartearen kontura, krisiaren ondorioz itxi diren enpresa pribatu haietara. Langile kontrola, kasu horietan, langileek buruturiko kudeaketa zuzen batek ordezkatu luke.

8. *Americas sixty families* (“Amerikako hirurogeita hamar familiak”) Ferdinand Lundbergen liburua da, non aristokrazia finantzario amerikarra deskribatzen den, sekulako aberastasuna duten hirurogeita hamar familien menpean. “200 familien” izendapena beren baliokide frantziarrak tradizionalki deituko erabili da.

Plan ekonomiko baten lanketa, oinarrizkoena ere pentsa ezina da, langileen eta ez esplotatzaileen interesen ikuspuntutik, langile kontrolik gabe, langileen begirada ekonomia kapitalistaren ustezko eta ezkutuko erresorteen bitartetik zeharkatu gabe. Enpresa ezberdinetako komiteek, horretarako apropos eginiko bileretan, trustetako, industria adarretako, eskualde ekonomikoetako, eta azkenerako, industria nazionalaren osotasuneko komiteak hautatu behar dituzte. Modu horretan, langile kontrola ekonomia planifikatuaren eskola bihurtuko da. Kontrol honen esperientzia gainean izanda, proletalgoa industria nazionalizatua zuzenki kudeatzeko prest egongo da ordua iristen denerako.

Kapitalistek, batez ere garrantzia txiki eta ertaineko haiek, batzuetan euren kabuz proposatzen dute euren kontu-liburuak langileen aurrean irekitzea —gehien bat soldaten jaitzieraren beharra erakusteko—; kasu hauetan, langileek erantzun behar dietena zera da, beraiei ez zaiela lur jota edo erdi lur jota dauden enpresen kontabilitatea interesatzen, esplotatzaile guztien kontabilitatea baizik. Langileek ezin dute eta ez dute nahi euren bizi maila beraien erregimen propioaren biktima bilakatu diren kapitalista isolatu haien interesetara egokitzerik. Eginkizuna ekoizpen eta banaketa sistema osoa berreraikitzea da, printzipio arrazional eta duinagoen arabera. Sekretu komertzialaren abolizioa langile kontrolerako beharrezko baldintza bada, kontrol horrek ekonomiaren zuzendaritza sozialistarako lehen pausua adierazten du.

TALDE KAPITALISTA JAKIN BATZUEN DESJABETZEA

Desjabetzearen programa sozialistak, hau da, burgesiaren bostere politikoaren suntsiketak eta bere aginte ekonomikoaren deuseztapenak, ez du, inola ere, egungo trantsizio aroan, aitzakia ezberdinengatik, oztopo izan behar zenbait industria adarren desjabetzea errebindikatzeko, burgesiaren talde bizkarroienak diren haien existentzia nazionalaren biziraupenerako ezinbestekoak diren haiek desjabetzeko.

Honela, jaun demokratek Estatu Batuetako “60” familien edota Frantziako “200”en diktaduraren inguruan egiten dituzten

prediku kezatiei guk kapitalismoaren 60 edo 200 jaun horien desjabetzearen errebindikazioarekin erantzuten diegu.

Era berean gerra industria, burdinbideena, lehengai iturri garrantzitsuenen industria, etab. monopolizatzen dituzten konpainia haien desjabetzea errebindikatzen dugu.

Errebindikazio hauen eta erreformisten “nazionalizazioaren” kontsigna zaharkituaren arteko desberdintasuna honakoa da:

1) Guk kalte-ordaina errefusatu egiten dugu.

2) Masak Fronte Herrikoiko hitzontzien inguruan ohartarazten ditugu, nazionalizazioa hitzetan proposatzen duten bitartean, ekintzetan kapitalaren agenteak izaten jarraitzen baitute.

3) Masei euren indar iraultzailea bakarrik kontuan hartzea aholkatzen diegu.

4) Desjabetzearen arazoa langileen eta nekazarien boterearen auziarekin lotzen dugu.

Desjabetzearen kontsigna eguneroko agitazioan, eta ondorioz, modu zatikatu batean, jaurtitzaren beharra, eta bestalde, eta ez ikuspuntu propagandistiko batetik bakarrik, modu orokor batean jaurtitzekoa, industria adar ezberdinak garapen maila ezberdinetan aurkitzen direlako sortzen da, gizartearen bizitzan leku desberdinak betetzen dituztelako eta klase borrokaren etapa desberdinetatik igarotzen direlako. Proletalgoaren goraldi iraultzaile orokorrak bakarrik ipin dezake burgesiaren desjabetze orokorra eguneko ordenean. Errebindikazio trantsitorioen helburua proletalgoa eginkizun hau burutzeko prestatzea da.

BANKU PRIBATUEN DESJABETZEA ETA KREDITU SISTEMAREN ESTATIZAZIOA

Inperialismoak kapital finantzarioaren agintea esan nahi du. Konpainien eta trusten alboan, eta askotan berauen gainetik, bankuek euren eskuetan ekonomiaren zuzendaritza kontzentratzen dute. Euren egituran, 105 bankuk, modu kontzentratu batean, egungo kapitalismoaren egitura osoa islatzen dute: monopoliorako joera anarkiarako joerarekin konbinatzen dute. Teknikaren mirariak, enpresa erraldoiak, trust boteretsuak

antolatzen dituzte, eta bizitza garestia, krisiak eta langabezia ere bai. Ezinezkoa arbitrarietate monopolistaren eta anarkia kapitalistaren aurkako borrokan aurrerapausorik ematea bankuen aginte palankak bidelapur kapitalisten eskuetan uzten badira. Inbertsio eta kreditu sistema bakar bat sortzeko, nazio guztiaren interesei dagokien plan arrazional baten arabera, bankuak erakunde nazional bakar batean bateratu behar dira. Banku pribatuak desjabetzeak eta kreditu sistema osoa Estatuaren eskuetan kontzentratzeak bakarrik ipiniko dituen eskuetan ekonomiaren planifikaziorako beharrezko baldibideak, errealak, hau da, materialak, eta ez fikziozkoak eta burokratikoak bakarrik.

Bankuen desjabetzeak ez du inola ere banka gordailu txikien desjabetzea esan nahi. Bestalde, gordailugile txikiak Estatuaren banka bakarrik banku pribatuek baino baldintza mesedegarriagoak sortuko lituzke. Era berean, Estatuaren bankuak bakarrik ezarri ahal izango ditu nekazariarentzako, artisauentzako eta merkataritxikiarentzako kreditu pribilegiatuarentzako, hau da, merkeagoentzako baldintzak. Hala ere, garrantzitsuen zera da, ekonomia osoak, lehen lekuan industria astunak eta garraioentzako, Estatu nagusi finantzari bakar batek zuzendurik, langileen eta gainerako behargin guztien hil ala biziko interesei zerbitzatzea.

Halaber, bankuen estatizazioak emaitza mesedegariak emango ditu, estatu-boterea esplotatzaileen eskuetatik langileenetara igarotzen bada bakarrik..

GREBA PIKETEAK, BORROKA DESTAKAMENDUAK, LANGILE MILIZIAK, PROLETALGOAREN ARMAMENDUA

Lantegien okupazioarekin amaitzen duten grebak masek biddaltzen dituzten ohartarazpen oso garrantzitsuak dira ez burgesiarentzat bakarrik, baita langile erakundeentzat ere, Laugarren Internazionalarentzat barne. 1919-1920an langile italiarrek, euren ekimen propioz, lantegiak okupatu zituzten euren "buruzagiei" iraultza sozialaren etorrera erakutsiz. "Buruzagiek" ez zuten ohartarazpena kontutan hartu. Eraitza faxismoaren garaipena izan zen.

Okupaziodun grebak oraindik ere ez dira italiar erarako lantegi harketak: baina pausu erabakigarri bat dira bide honetan. Egungo krisi honek muturreraino akuilatu dezake klase borrokaren bilakabidea eta ondorioa azkartasunez ekar dezake. Hala ere ez da pentsatu behar egoera iraultzaile bat bat-batean sortzen denik. Bere gertutasuna, errealtatean, konbultsio sail oso batek adieraziko du. Lantegi okupaziodun greben uholdea horietako bat da hain zuzen. Laugarren Internazionalaren sekzioen eginkizuna abangoardia proletarioari gure aroaren izaera orokorra eta erritmoak ulertzen laguntzea da, eta masen borrokan kontsigna geroz eta ausartagoak eta erasorako antolaketa neurriak ereitea.

Proletalgoaren borrokaren areagotzeak kapitalaren erresistentzia metodoen areagotzea esan nahi du. Lantegi okupaziodun greben olatu berriek burgesiaren erreakzio neurri bortitzak eragin ditzakete eta eragingo dituzte. Erantzunaren prestaketa lana monopolioen estatu nagusietatik hasita dago dagoeneko sekretupean. Zorigaiztokoak erakunde iraultzaileak, zorigaiztoko proletalgoa, berriro ere ustekabeen harrapatua izaten uzten bada!

Burgesia ez da inon polizia eta ejertzito ofiziala bakarrik erabiltzera mugatzen. Estatu Batuetan, "barealdiko" uneetan ere, destakamendu horiak edota izaera pribatuko banda armatuak mantentzen ditu lantegietan. Nazi talde iparramerikarren zabaltzea ere gehitu behar zaio honi. Burgesia frantziarrak, arriskuaren hurbiltasuna sentitu zuenean, destakamendu faxista erdi-ilegalak eta ilegalak mobilizatu zituen, baita ejertzito ofizialaren barnean ere. Nahikoa izango da langile ingelesek euren bultzada berriro ere handitzea Lord Mosleyren bandak bikoizteko, hirukoizteko, hamar bider ere handitzeko, eta langileen aurkako gurutzada odoltsu bati ekiteko. Burgesiak argi du egungo aroan klase borrokak, zalantzarik gabe, gerra zibil bilakatzeko joera duela. Kapitalaren ugazabek eta morroiek Italiako, Alemaniako, Austriako eta beste herrialde batzuetako adibideekin ikasi dute hau, eta proletalgoaren buruzagi ofizialek baino hobeto gainera.

Bigarren eta Hirugarren Internazionalako politikariek, sindikatueta burokraten modu berean, begiak kontzienteki ixten dituzte burgesiaren ejertzito pribatuaren aurrean, bestela

ezingo bailukete honekin duten aliantza 24 ordutan ere mantendu. Erreformistek, sistematikoki, langileei sartu nahi dieten ideia zera da, burgesia hortzetaraino armaturik eta langileak armarik gabe dauden leku haietan demokrazia sakrosantua seguruago aurkitzen dela.

Laugarren Internazionalak morroi-politika honekin behin betiko amaitzeko betebeharra du. Demokrata burges txikiak, eta baita sozialdemokratek, sozialistek eta anarkistek ere, faxismoaren aurkako borrokaren inguruan oihu gerroz eta handiagoak botatzen dituzte, honen aurrean koldarki kapitulatzen duten bitartean. Banda faxistei euren atzean milioika langileren babesaren sentitzen duten langile armatuen destakamenduek bakarrik erantzun diezaiekete arrakastaz. Faxismoaren aurkako borroka ez da orri liberal baten erredakzioarekin hasten, lantegietan hasten da eta kalean amaitzen da. Lantegietako elementu horiak eta jendarme pribatuak faxismoaren ejertzitoaren oinarrizko zelulak dira. Greba piketeak proletargoaren ejertzitoaren oinarrizko zelulak dira. Hortik hasi behar da. Ezinbestekoa da kontsigna hau sindikatuetakoa hegal iraultzaileen programetan idaztea. Ahal den leku guztietan, gazte erakundeetatik hasita, nahitaezkoa da ia-ia autodefentsarako miliziak osatzea, armen erabileran heziz.

Masen mugimenduaren olatu berriak ez du milizia horien kopurua handitzeko bakarrik balio behar, baita auzoka, hirika eta eskualdeka batzeko ere. Beharrezkoa da grebak apurtzen dituzten elementuen, pistolari banden eta faxisten aurkako langileen zilegizko gorrotoari adierazpen antolatu bat ematea. Beharrezkoa da langile miliziaren kontsigna jaurtitzea, erakundeen, bileren eta langile prentsaren bortxaezintasunaren berme bakar gisa.

Agitazioan eta propagandan egindako lan sistematiko, iraunkor, nekazekin eta ausart bati esker bakarrik, beti ere masen esperientziarekin erlazioa izanez, lor daiteke hauen kontzientziatik otzantasun eta pasibotasun tradizioak erauztea: langile guztientzako eredu izan daitezkeen borrokalari heroikoen destakamenduak heztea, kontrairaultzaren bandei porrot taktiko multzo bat eragitea, esplotatuek euren buruarekiko duten konfiantza haztea, burgesia txikiaren aurrean faxismoa deskreditatzea eta proletargoaren botere konkistarako bidea garbitzea.

Engelsek Estatua “elementu armatuen destakamendu multzo” bezala definitzen zuen. Proletalgoaren armamenduak ezinbesteko faktorea osatzen du bere askapen borrokan. Proletalgoak nahi duenean, bere burua armatzeko bideak eta baliabideak aurkituko ditu. Honetan ere Laugarren Internazionalako sekzioek hartu behar dute zuzendaritza.

LANGILEEN ETA NEKAZARIEN ALIANTZA

Nekazal langilea, landan, industria langilearen anaia eta laguna da. Klase bakar eta berberaren bi zati dira. Beraien interesak bereiztezinak dira. Industria langileen errebindikazio trantsitorioen programa, aldaketa bat edo besterekin, nekazal proletalgoaren programa ere bada.

Lurren jabe diren nekazariak beste klase bat ordezkatzeko dute: landako burgesia txikia da. Burgesia txikia kapa desberdinek osatzen dute, erdi-jabeetatik hasita esplotatzaileetararte.

Honen arabera, industriako proletalgoaren eginkizun politikoa klase borroka landara eramatea da: honela bakarrik lortuko du bere aliatuak bere etsaietatik bereiztea.

Herrialde bakoitzaren garapen nazionalaren berezitasunek euren adierazpenik biziena aurkitzen dute nekazariaren eta hein batean hiriko burgesia txikiaren (artisaunen eta merkatarien) egoeran, klase hauek, ugariak badira ere, funtsean ekoizpenaren forma aurrekapitalisten biziraupenak islatzen baitituzte. Laugarren Internazionalaren sekzioek, ahal duten modurik zehatzenean, lur jabe diren nekazariarentzako eta hirietako burgesia txikiarentzako errebindikazio trantsitorioen programak landu behar dituzte, herrialde bakoitzaren baldintzei dagokienaren arabera. Langile aurreratuek erantzun argi eta zehatzak ematen ikasi behar dute euren etorkizuneko aliatuen arazoei.

Nekazariak ekoizle txiki “independente” izaten jarraitzen duen neurrian, kreditu merkearen beharra du, nekazal maki-neriarentzako eta ongarrirentzako salneurri eskuragarrien beharra, garraibideen baldintza mesedegarriena, nekazal produktuentzako negoziazioetarako erakunde zintzo batena. Alabaina bankuek, trustek eta merkatariek alde guztietatik dirua

ateratzen diote. Nekazariak bakarrik zigortu dezakete harrapakeria hau, langileen laguntzarekin. Beharrezkoa da lur jabe txiroen komiteak ekiten hastea, langileen komiteekin eta bankako enplegatuen komiteekin batera komunean lan eginez, eta nekazaritzari interesatzen zaizkion garraio, kreditu eta merkataritza operazioen kontrola hartzea euren eskuetan.

Langileen “gehiegizko” eskakizunak iruzurrez inbokatuz, burgesia handiak artifizialki merkaturagaien salneurriaren arazoa langileen eta nekazarien artean, langileen eta hirietako burgesia txikiaren artean sartzen duen hesi bat bilakatzen du. Nekazariak, artisauak eta merkataritza txikiak, langileak, enplegatuen edota funtzionario txikiak ez bezala, ezin dute prezioen igoerarekin bat datorren soldata igoera bat erreklamatu. Bizitzaren garestitzearen aurkako borroka burokratiko ofizialak ez du masak engainatzeko besterik balio. Nekazariak, artisauak eta merkatariek, hala ere, euren kontsumitzaile izaezagatik, parte hartze aktibo bat izan behar dute, langileekin batera, prezioen politikan. Ekoizpen, garraio eta merkataritza kostuen inguruko prediku kapitalistei kontsumitzaileek honela erantzun behar diete: “erakuts itzazue zuen liburuak, prezioen politikaren gaineko kontrola exijitzen dugu”. Kontrol honen organoak lantegietako, sindikatueta, kooperatibetako, nekazarien erakundeetako, hirietako burgesia txiki txiroaren elementuen arteko, etxe zerbitzuko langileen arteko, eta abarretako ordezkariak osatutako prezioen zaintzarako komiteek izan behar dute osatuko dituztenak. Era honetan langileek nekazariari prezioen igoeraren arrazoa ez dela soldata altuetan aurkitzen, kapitalisten gehiegizko irabazietan eta anarkia kapitalistaren xahuketan baizik, erakutsiko die.

Lurraren nazionalizazioaren eta nekazaritzaren kolektibizazioaren programa, nekazari txiroen desjabetzearen edota beharturiko kolektibizazioak burutzearen ideia erradikalki alde batera uzteko moduan formulatu behar da. Nekazariak bere lursailaren nekazari izaten jarraituko du berak hori beharrezko eta posible ikusten duen bitartean. Programa sozialistak nekazarien begien aurrean prestigioa irabazteko, beharrezkoa da kolektibizaziorako metodo stalinistei gupidarik gabe mozorroa kentzea, burokraziaren intereserako eginak izan baitziren eta ez nekazarien eta langileen intereserako.

Desjabetzaileen desjabetzeak ere ez du artisau txiroen eta merkatari txikien indarrezko lumatzea esan nahi. Bestalde, bankuen eta trusten gaineko langile kontrolak, eta enpresen nazionalizazioak arrazoi gehiagorekin, krediturako, erosketarako eta salmentarako baldintza mesedegarri konparaezina sor ditzake hirietako burgesia txikiarentzat, monopolioen gaineko menderakuntza mugagabepean kapitalarekiko enpresa hauen mendekotasuna Estatuarekiko mendekotasunagatik ordezkaturia izango baita, eta honek bere partaide txikien eta agenteen beharrei eskainiko dien arreta handiagoa izango baita, langileek Estatuaren gainean duten kontrola zenbat eta zortzagoa izan.

Nekazari esplotatuek ekonomiaren adar ezberdinen gaineko kontrolean parte hartze praktikoa izateak, lurraren lan kolektibora euren buruak gehitu behar dituzten edo ez eta zein epetan eta zein mailatan egin behar duten euren kabuz erabakitzea ahalbidetuko die nekazariei. Langileek euren sindikatuen, lantegietako komiteen eta batez ere langile eta nekazarien gobernuaren bitartez bide honetan euren ekarpen osoa eginez kolaboratzeko prest egon behar dute.

Proletalgoak ez klase ertainei orokorrean, baizik eta hiriko eta landako kapa esplotatuei esplotatzaile guztien aurka, esplotatzaile "ertainen" aurka barne, proposatzen dien aliantza ezin da bortxaz eraiki, "itun" berezi batekin finkatu behar den akordio aske baten bidez bakarrik baizik. "Itun" hau, hain zuzen, errebindikazio trantsitorioen programa da, bi aldeek libreki onartua.

INPERIALISMOAREN ETA GERRAREN AURKAKO BORROKA

Egoera mundial osoa, eta ondorioz, herrialde ezberdinen barne bizitza politika, mundu gerra baten mehatxuaren aurrean aurkitzen dira. Gerturatzen ari den hondamendiak, oraindik bertatik, larritasunez betetzen ditu gizateriaren masa sakonenak.

Bigarren Internazionalak bere 1914ko traizio politika geroz eta uste handiagoarekin errepikatzen du, Internazional Komunista chauvinismoaren lehen biolinaren papera jokatzeko ari den bitartean. Gerraren arriskuak izaera konkretu bat hartu

duenetik, stalinistak, bakezale burges eta burges txikien gainetik nabarmenduz, ustezko “defentsa nazionalaren” gertariak bilakatu dira. Gerraren aurkako borroka iraultzailearen egin-kizuna Laugarren Internazionalaren sorbaldeen gainean ezar-tzen da beraz bere osotasunean.

Boltxebike Leninistek auzi honetan duten politika Idazkaritza Internazionalaren tesi programatikoetan formulatua izan da, oraindik ere euren balio osoa gordetzen jarraitzen dutelarik (Laugarren Internazionala eta Gerra, 1934ko maiatza). Alderdi iraultzaileak datorren aroan izango duen arrakasta gerraren auziaren inguruan duen politikak eta masen esperientzia propioan sostengatzeko duen arteak baldintzatuko du.

Gerraren arazoarekin, beste edozein arazorekin baino gehiago, burgesiak eta bere agenteek herria abstrakzioekin, formula orokorrekin eta esaldi patetikoekin engainatzen dute: “neutraltasuna”, “segurtasun kolektiboa”, “bakearen defentsarako armamentua”, “defentsa nazionala”, “faxismoaren aurkako borroka”, etab. Formula hauek guztiak, laburki esanda, gerraren auziak, edo bestela esanda, herrien etorkizunak, inperialisten, hauen gobernuen, diplomaziaren eta estatu nagusien eskumenekoa izan behar duela esatera murrizten dira, herriaren aurkako euren azpijoko eta konplotekin.

Laugarren Internazionalak suminduraz arbuiatzen ditu abstrakzio hauek guztiak, faxisten artean “ohoreak”, “odolak” eta “arrazak” jokatzeko duten paper berbera jokatzeko baitute demokraten artean. Baina sumindura ez da aski. Beharrezkoa da masei irizpide, kontsigna eta errebindikazio trantsitorio egokiekin laguntzea errealtatea deskubri dezaten, abstrakzio iruzurtien atzean zehaztasunetik zer dagoen bereizteko.

Desarmatzea? Baina desarmatzearen auzi osoak desarmatzailea zein izango den eta desarmatua nor izango den jakitean oinarritzen da. Gerra saihestu edo gelditu dezakeen desarmatze bakarra burgesiaren desarmatzea da, langileen eskutik. Baina burgesia desarmatzeko, beharrezkoa da langileak armatzea.

Neutraltasuna? Baina proletalgora ez da erabat neutrala Japoniaren eta Txinaren arteko gerraren inguruan, edota Alemaniaren eta SESBen artekoan. Txinaren eta SESBen defentsa esan nahi al du honek? Noski baietz! Baina ez inperialisten laguntzarekin, Txina eta SESB itotzen saiatuko baitira.

Aberriaren defentsa? Baina abstrakzio honekin burgesiak bere irabazien eta harrapakariaren defentsa ulertzen du. Aberria atzerriko kapitalisten erasoetatik defendatzeko prest gaude, baina behin gure kapitalista propioei hankak eta eskuak lotu eta besteen aberriei eraso egitea eragotzi diogunean, behin langile eta nekazariak gure herrialdearen egiazko ugazaba izatera iritsi direnean; behin herrialdearen aberastasunak gutxiengo murriz baten eskuetatik herriaren eskuetara igaro direnean; behin ejertzittoa, esplotatzaileen instrumentua, esplotatuen instrumentu bilakatu denean.

Beharrezkoa da oinarritzko ideia hauek ideia partikular eta zehatzagoetan itzultzen jakitea, gertakarien bilakabidearen arabera eta masen orientazioaren eta izpirituaren egoeraren arabera. Beharrezkoa da, bestalde, diplomatikoaren, irakaslearen eta kazetariaren pazifismoa, arotzaren, nekazal langilearen eta arropa garbitzailearen pazifismotik zorrozki bereiztea. Lehen kasuan, pazifismoa inperialismoaren maskara bat da. Bigarrenean inperialismoarekiko mesfidantzaren adierazpen nahasi bat da.

Nekazari txikiak edota langileak aberriaren defentsaren inguruan hitz egiten dutenean, euren etxea, familia eta beste familiak etsaiaren, bonben eta gasen aurka defendatzea etortzen zaie burura. Kapitalismoak eta bere kazetariak aberriaren defentsaz ari direnean kolonien eta merkatuen konkistaz, eta harrapakariaren bitartez irabazi mundialen zati "nazionala" hedatzeaz ari dira hitz egiten. Abertzaletasun eta pazifismo burgesak iruzur hutsa dira. Pazifismoan, zapalduen abertzaletasunean bezala, alde batetik gerra suntsitzailearen aurkako gorrotoa islatzen duten elementuak daude, eta beste aldetik beren intererako onena izango denera bultzatzen dituztenak. Beharrezkoa da elementu hauek beharrezko ondorio iraultzaileak ateratzeko erabiltzea. Beharrezkoa da pazifismoaren eta abertzaletasunaren bi forma hauek aurrez aurre zintzoki jartzen jakitea.

Hausnarketa hauetatik abiatuta, Laugarren Internazionalak errebindikazio oro babesten du, hauek nahikoa ez izanda ere, hauek masak, maila ahul batean bada ere, politika aktiboago batetara, euren kritika esnatzera eta burgesiaren trikimailuen gaineko kontrola indartzera eramateko balio baldin badute.

Ikuspegi honetatik eta berau kritikatu, gure sekzio amerikarrak, gerraren aldarrikapenaren auziaren inguruko erreferendum bat antolatzeko proposamena babesten du. Inongo erreforma demokratikok ezingo du, bere kabuz, agintariak beraien nahi dutenean gerra eragitea saihestu. Beharrezkoa da ohartarazpen hau modu irekian egitea. Baina erreferendumaren inguruko masen ilusioak edozein direla ere, errebindikazio honek langileek eta nekazariak gobernuarekiko eta burgesiarren parlamentuarekiko duten mesfidantza islatzen du. Masen ilusioak sostengatu eta garatu gabe, beharrezkoa da zapaltzaileekiko zapalduen mesfidantza hazkorra gure indar guztiekin babestea. Erreferendumaren aldeko mugimendua gehiago hazten den neurrian, lehenago isolatuko dira pazifista burgesak, lehenago galduko dute euren izen ona Internazional Komunistako traidoreak eta biziagoa bilakatuko da langileek inperialistekiko izango duten mesfidantza.

Ikuspuntu honetatik defendatu behar da hemendik aurrera gizon eta emakumeak hemezortzi urterekin botoa emateko eskubidea izatearen aldeko errebindikazioa. Bihar “aberrigatik” hiltzera deitua izango denak bere ahotsa entzuna izateko eskubidea izan behar du orain. Gerraren aurkako borroka, orenen aurretik, gazteriaren mobilizazio iraultzailean oinarritu behar da.

Beharrezkoa da gerraren arazoaren inguruko aspektu guztiengurua argia ematea, bereziki momentu jakin batean masak aspektu horietakoren batean aurkitzen direnean.

Gerra merkatal enpresa erraldoi bat da, batez ere gerra industriarentzat. Horrexegatik dira “berrehun familiak” lehen abertzaleak eta aldi berean gerraren bultzatzaile nagusienak. Gerra industriaren gaineko langile kontrola gerraren “fabrikatzaileen” gaineko lehen pausua da.

Erreformisten kontsigna honi: gerra industriaren irabazien gaineko zerga, guk beste hau ipintzen diogu aurrez aurre: gerrarentzat lan egiten dutenen irabazien konfiskazioa eta enpresen desjabetzea. Gerra industria “nazionalizaturik” dagoen leku haietan, Frantzian esaterako, langile kontrolaren kontsignak bere balio osoa gordetzen du; proletalgoak estatu burgesarekiko burges indibidualarekiko duen mesfidantza berbera du.

Gizon bakar bat, zentimo bakar bat ere ez gobernu burgesarentzat!

Armamendu programarik ez, erabilgarritasun publikoko lanen programa bat baizik!

Independentzia osoa langile erakundeentzat militarren eta poliziaren gaineko kontrolean!

Beharrezkoa da herrien patua, behin betirako, berauen bizkarretan konspiratzen aritzen diren taldexka inperialista goseti eta cupidagabeen eskuetatik erauztea.

Honen arabera hau errebindikatzen dugu:

Diplomazia sekretuaren erabateko abolizioa; itun eta akordio guztiek langile eta nekazari bakoitzarengana erraz iristeko modukoak izan behar dute!

Langileen lerroetatik irtendako eta langile erakundeek hautatutako ofizialen formakuntzarako eskola militarren sorrera, instrukzio militarra langile eta nekazariarentzat, langile eta nekazari komiteen kontrol zuzenpean!

Ejertzito iraunkorra, hau da, kuarteletakoa, milizia herrikoi batengatik ordezkatzea, lantegiekin, meategiekin eta landarekin lotura apurtezina duena!

Gerra inperialista burgesiaren harrapakaria politikaren jarraipena eta areagotzea da. Gerra inperialistaren aurkako proletalgoaren borroka klase borrokaren jarraipena eta areagotzea da. Gerraren hasierak hein batean klase borrokaren egoera eta prozedurak aldatzen ditu, baina ez ditu honen helburuak eta oinarritzko norabidea aldatzen.

Burgesia inperialistak mundua menperatzen du, eta horrexegatik, datorren gerra, bere oinarritzko izaeragatik, gerra inperialista bat izango da. Proletalgoaren politikaren oinarritzko edukia, ondorioz, inperialismoaren eta bere gerraren aurkako borroka izango da. Borroka honen oinarritzko printzipioa hau izango da: “Etsai nagusia gure herrialdean dago” edota “Geure gobernu (inperialista) propioaren lur jotzea gaitz txikiena da”.

Baina munduko herrialde guztiak ez dira herrialde inperialistak. Alderantziz, herrialdeen gehienak inperialismoaren kaltetuak dira. Herrialde kolonial eta erdi-kolonial batzuek, zalantzarik gabe, gerra esklabutzaren uztarria gainetik kentzeko erabiliko du. Euren aldetik gerra ez da inperialista izango,

askatzailea baizik. Nazioarteko proletalgoaren betebeharra herrialde zapalduen euren zapaltzaileen aurkako borrokan laguntzea izango da, eginkizun berbera zabaltzen da SESBengana eta gerra aurretik sortu litekeen langile estatu ororengana. Langile estatu baten edota herrialde kolonial baten aurkako borrokan edozein gobernu inperialistak porrot egitea gaitz txikiena da.

Herrialde inperialista bateko langileek ezin diote herrialde anti-inperialista bati euren gobernuaren bitartez lagundu, une jakin batean, bi herrialdeen arteko harreman diplomatikoak edozein direla ere. Gobernuak bere izaera propioagatik zalantza izango den une bateko aliantza batean elkartzen baldin badira, herrialde inperialistako proletalgoak bere klase posizioa mantentzen jarraitu behar du bere gobernuaren aurrean eta bere aliatu ez inperialistari bere metodoen bitartez, hau da, nazioarteko klase borrokaren metodoen bitartez lagundu behar dio (langile estatuaren eta herrialde kolonialaren aldeko agitazioa, ez bere etsaien aurka bakarrik, baita bere aliatu zitelen aurka ere; boikota eta greba kasu batzuetan, boikotari eta grebari uko egitea beste batzuetan, etab...).

Herrialde kolonialari edota SESBi gerra garaian babesa emateaz utzi gabe, proletalgoak ez dio, inola ere, elkartasunik adierazten herrialde kolonialeko gobernu burgesari ezta SESBeko burokrazia termodoriarrari ere. Alderantziz, bere independentzia politiko osoa mantentzen du bai bataren bai bestearen aurrean. Bidezko gerra aurrerakoi bati lagunduz proletalgo iraultzaileak kolonietako eta SESBeko langileen begikotasuna konkistatzen du. Era honetan Laugarren Internazionalaren autoritatea baieztatzen du, eta ondorioz, hobeto lagundu dezake herrialde kolonialeko gobernu burgesa edota SESBeko burokrazia erreakzionarioa erorarazten.

Gerraren hasieran Laugarren Internazionalako sekzioak isolaturik sentituko dira ezinbestean: gerra orok ezustean harapatzen ditu masa herrikoiak eta gobernu aparatuen alde-rantz bultzatzen ditu. Internazionalistek korrontearen aurka egin beharko dute. Hala ere, gerra berriaren suntsipenak eta gaitzek, lehen hilabeteetatik 1914-18ko izugarrikeria odoltsuak oso atzean utziko dituenak, azkar galdaraziko dizkie itxaropenak masei. Hauen deskontentua eta matxinada jauzika

haziko da. Laugarren Internazionalako sekzioak fluxu iraultzailearen buruan aurkituko dira. Errebindikazio trantsitorioen programak egunerokotasun sutsu bat hartuko du. Proletalgoak boterea konkistatzearen arazoa bere zabaltasun osoan planteatuko da.

Gizateria akitu edota odoletan ito baino lehen, kapitalismoak munduko atmosfera gorroto nazionalaren eta arraza artekoen bapore hilgarriekin pozoitzen du. Antisemitismoa orain agonia kapitalistaren konbultsiorik gaiztoenatarikoa da.

Arrazaren inguruko aurreiritzien eta handikeria nazionalaren eta chauvinismoaren forma eta aldagai guztien aurkako jendarteratze gupidagabea, batez ere antisemitismoaren aurkakoa, Laugarren Internazionalaren sekzio guztien eguneroko lanean sartu behar da, inperialismoaren eta gerraren aurkako heziketa lan garrantzitsuenaren moduan. Gure kontsigna garrantzitsuena honek jarraitzen du izaten:

Herrialde guztietako langileak, elkar zaitetze!

LANGILEEN ETA NEKAZARIEN GOBERNUA

“Langileen eta nekazarien gobernuaren” formula, lehen aldiz 1917ko boltxebikeen agitazioan agertu zena, erabat onartua izan zen Urriko altxamenduaren ostean. Ez zuen, kasu honetan, jada ezarririk zegoen proletalgoaren diktaduraren izendapen herrikoi bat besterik errepresentatzen. Izendapen honen garrantzia proletalgoaren eta klase nekazariaren arteko alian tzaren ideia lehen planoan ipintzean dago batez ere, botere sozietarraren oinarrian baitzegoen hau.

Epigonoen Internazional Komunistak, historiak lurperatu zuen “langileen eta nekazarien diktadura demokratikoa ren” formula berpiztu nahi izan zuenean, “langileen eta nekazarien gobernuaren” formulari eduki erabat desberdina eman zion, “demokratikoa”, baina esan behar da, honen zentzu burgesean, hau proletalgoaren diktaduraren aurka ipiniz. Boltxebike leninistek erabat alboratu zuten “langileen eta nekazarien gobernuaren” kontsigna bere interpretazio demokratiko burgesean. Orduan baieztatzen zuten eta orain baieztatzen dute, proletalgoaren alderdiak demokrazia burgesaren koa-

droetatik irteteari uko egiten dionean, klase ertainarekiko bere aliantza ez dela kapitalari babesa ematea besterik, 1917an mentxebikeek eta sozialista iraultzaileek egin zuten bezala, 1925-27an alderdi komunista txinatarrarekin gertatu zen bezala edota orain Espainian, Frantzian eta beste herrialdeetan “Fronte Herrikoiarekin” gertatzen den bezala.

1917ko apiriletik irailera bitartean, boltxebikeek burgesia liberalarekiko euren lotura apurtzeko eskatzen zieten sozialista iraultzaileei eta mentxebikeei, eta euren eskuekin boterea hartzeko. Baldintza honekin boltxebikeek mentxebikeei eta sozialista iraultzaileei, langile eta nekazarien ordezkari burges txiki hauei, burgesiaren aurkako euren laguntza iraultzaile osoa emango zietela zin egiten zieten, gobernuan sartzeari kategorikoki uko eginez eta baita beraiengatik ardurara politikorik hartzeari ere. Mentxebikeek eta sozialista iraultzaileek kadete liberalekin eta atzerriko inperialismoarekin benetan hautsi izan balute, beraiek sortutako “langileen eta nekazarien gobernuak” proletalgoaren diktaduraren ezarpena azkartuko eta erraztuko zukeen. Baina honexegatik beragatik ipini zen demokrazia burges txikiaren zuzendaritza bere botere propioaren ezarpenaren aurka bere indar guztiekin. Errusiako esperientziak erakusten du, eta Espainiako eta Frantziako esperientziak berriro ere baieztatu, baldintza mesedegarrietan ere demokrazia burges txikiaren alderdiak (sozialista iraultzaileek, sozial demokratek, stalinistek, anarkistek) ez direla gai langileen eta nekazarien gobernu bat osatzeko, hau da, bestela esanda, burgesiarekiko independentea den gobernu bat sortzeko.

Hala ere, boltxebikeek mentxebikeei eta sozialista iraultzaileei zuzendutako errebindikazioak: “Hautsi burgesiarekin, hartu boterea zuen eskuetan!”, heziketarako balio itzela du masentzat. Mentxebikeek eta sozialista iraultzaileek boterea hartzeari, burugogorki, uko egiteak, uztaileko egunetan tragikoki agertu zenak, gainbeherara eramán zituen behin betirako herriaren izpirituan eta boltxebikeen garaipena prestatu zuen.

Laugarren Internazionalaren eginkizun nagusia proletalgora zuzendaritza zaharretik askatzea da, honen izpiritu kontserbadorea erabat kontrajarririk baitago kapitalismoak

bere gainbeheran duen hondamendizko egoerari eta aurrerapen historikoaren oztopo garrantzitsuena baita. Laugarren Internazionalak proletalgoaren erakunde tradizionalen aurka jaurtitzen duen salaketa nagusia, hauek burgesiaren hilotz antzeko horretatik bereiztu nahi ez dutela da.

Baldintza hauetan, zuzendaritza zaharrari sistematikoki zuzendutako errebindikazioa: “Hautsi burgesiarekin, hartu boterea!”, erreminta bereziki garrantzitsua da Bigarren eta Hirugarren Internazionalaren eta baita Amsterdamgo Internazionalaren⁹ alderdi eta erakundeen izaera traidorea agerian uzteko.

“Langile eta nekazarien gobernuaren” kontsigna 1917an boltxebikeen ahotan zuen zentzu berean bakarrik erabiltzen dugu guk, hau da, kontsigna antiburges eta antikapitalista bat bezala, baina ez, inola ere gerora epigonoek eman dioten zentzu “demokratikoarekin”, iraultzarako zubi bat zena bere bidean dagoen oztoporik nagusiena bilakatu baitute.

Langile eta nekazarien gainean sostengatzen diren alderdi eta erakunde guztiei, burgesiarekin politikoki hausteko eta nekazariaren gurdia hartzeko eskatzen diegu. Langile boterearen aldeko borroka honen bidean erreakzio kapitalistaren aurkako babes osoa emango diegula zin egiten diegu. Aldi berean, gure iritziz “langile eta nekazarien gobernuaren” programa osatu beharko luketen errebindikazioen inguruko agintazio nekaezin bat garatzen dugu.

Posible al da langile eta nekazarien gobernuaren eraketa langile erakunde tradizionalen eskutik etortzea? Iraganeko esperientziak erakusten digu, jada esan dugun bezala, aukera hau oso litekeena ez dela. Hala ere, ezin dugu kategorikoki, hasiera batean, konbinaketa benetan ezohiko baten eraginpean (gerra, porrota, krak finantzarioa, masen ofentsiba iraultzailea, etab.) hau gertatu litekeenaren aukera teorikoa ukatu. Alderdi burges txikiak, stalinisten salbuespenik gabe, beraiek nahiko luketena baino urrutirago irits daitezke burgesiarekiko haustura baten bidean. Edozein modutan, bada gauza bat zalantza orotik kanpo: hain litekeena ez den aldagai hori nonbait gertatuko balitz, eta “langile eta nekazarien gobernu” bat

9. Federazio Sindikal Internazionalaren izen herrikoia, sozialdemokraziaren agindupean, 1919an birjaio zen Amsterdamen.

—gorago aipatu dugun zentzuan— antolatzen iritsiko balitz, pasarte labur bat besterik ez litzateke izango egiazko proletalgoaren diktadura batetarako bidean.

Baina alferrikakoa da usteetan galtzea. Langileen eta nekazarien kontsignarekin eginiko agitazio batek, edozein kasutan, heziketa balio izugarria du. Eta ez da kasualitatea: kontsigna erabat orokor honek gure aroaren garapen politikoaren lerroa jarraitzen du (kraka, alderdi burges zaharren sakabaketa, demokraziaren haustura, faxismoaren gorakada, politika aktiboago eta erasotzaileago batetarako langileen nahi gorakorra). Horrexegatik gure errebindikazio trantsitorio bakoitzak ondorio politiko bakar batera eraman behar gaitu: langileek burgesiaren alderdi tradizional guztiakin hautsi behar dute nekazariekin komunean euren botere propioa ezartzeko.

Ezinezkoa da masen mobilizazio iraultzailearen etapa zehatzak zein izango diren aurreikustea. Laugarren Internazionalaren sekzioek era kritikoa begiratu behar dute etapa berri bakoitza eta politika independente bat izateko langileen joerak babestera, politika honen klase izaeran sakontzera, ilusio pazifistak eta erreformistak suntsitzera, masa zabal osoaren batasuna indartzera eta botere hartze iraultzailearen prestaketara zuzendutako kontsignak jaurti behar dituzte.

SOBIETAK

Lantegietako komiteak, lehen esan bezala, lantegiko botere bikoitzaren elementua dira. Horrexegatik da posible euren existentzia masen presio gorakorreko baldintzetan bakarrik. Hau ere halaxe da gerraren aurka borroka egiteko masa antolaketentzat; prezioen kontrolerako komiteentzat eta mugimenduen beste zentroentzat, hauen ekinbideak, proletalgoaren erakunde tradizionalen koadroa erabat gainditurik dagoela erakusten duenak.

Hala ere, organismo eta zentro berri hauek euren kohezio falta eta eskasia sentituko dute. Errebindikazio trantsitorietatik bakar bat ere ezin da erabat burutu erregimen burgesa mantentzen bada. Krisi soziala zorrozteaz gain, ez da masen sufrimendua bakarrik handituko, baita hauen pazientzia

eza, zurruntasuna eta ofentsibarako izpiritua ere. Zapalduen kapa beti berriek burua altxatuko dute eta behar duten milioika lagunei buruzagi erreformistei inoiz bururatu ez zitzaizkien euren errebindikazioak jaurtiko dizkiete eta langile erakundeetan ate joka hasiko dira. Langabetuak mugimenduan sartuko dira. Nekazal langileek, zorrak itotako edo erdi itotako nekazariak, intelektualitatearen kapa proletarizatuek, denek, antolaketa bat eta zuzendaritza bat bilatuko dute.

Nola bateratu errebindikazio eta borroka modu ezberdinak, hiri baten muga barnean besterik ere ez bada? Historiak eman dio erantzuna arazo honi: borrokan dauden talde guztietako ordezkariak biltzen dituzten sobieten (kontseiluen) bitartez. Inork ez du oraindik antolaketa modurik proposatu eta zailantzazkoa da beste bat asmatzeko aukeraren bat egotea. Sobietak ez daude aurretiaz programa bati loturik. Esplotatu guztiei irekitzen dizkiete euren ateak. Ate honetatik borroka-aren uholde orokorrak herrestan ekarri dituen kapa guztietako ordezkariak igarotzen dira. Antolaketa mugimenduarekin zabalitzen da, eta etengabe eta sakonki eraberritzen da. Proletalgoaren tendentzia politiko guztiek borroka dezakete sobietetako demokraziaren alde, demokraziarik zabalenerako oinarri bategin. Horrexegatik da sobieten kontsigna errebindikazio trantsitorioen programaren koroatzea.

Sobietak ezin dira jaino masen mugimendua etapa iraultzaile ireki batean sartzen ez bada behinik behin. Milioika langile bere inguruan batzen dituen ardatz bat izanik, sobietak, sortzen diren une beretik, autoritate lokalen lehiakide eta aurkari bilakatzen dira, eta jarraian, gobernu zentralarenak. Lantegi komiteak lantegian botere bikoitzeko elementuak sortzen baditu, sobietek botere bikoitzeko garai berri bat irekitzen dute herrialdean.

Boterearen bikoiztasuna, era berean, trantsizio garaia-
ren puntu gorena da. Bi erregimen, burgesa eta proletarioa, aurrez aurre ipintzen dira etsaitasun osoz. Bien arteko talka saihestezina da. Hemendik ateratzen denak baldintzatuko du gizartearen zoria. Iraultzaren porrota ematen bada, burgesia-
ren diktadura faxista ezarriko da. Garaipenaren kasuan, sobie-
ten boterea, hau da, proletalgoaren diktadura eta gizartearen
eraikitze sozialista aterako da aurrera.

HERRIALDE ATZERATUAK ETA TRANTSIZIO PROGRAMA

Herrialde kolonialak eta erdi-kolonialak euren izaeragatik beragatik herrialde atzeratuak dira. Baina herrialde atzeratu hauek inperialismoaren menderakuntza mundialaren baldintzetan bizi dira. Horrexegatik berauen garapenak izaera konbinatua du: ekonomia forma primitiboena eta teknikaren eta zibilizazio kapitalistaren punta-puntakoena biltzen dituzte aldi berean. Hauxe da herrialde atzeratuetako proletalgoaren politika determinatzen duena: independentzia nazionalaren eta demokrazia burgesaren eginkizunik oinarritzkoen aldeko borroka mundu mailako inperialismoaren aurkako borroka sozialistarekin konbinatzera beharturik dago. Errebindikazio demokratikoak, errebindikazio trantsitorioak eta iraultza sozialistaren eginkizunak ez daude etapa historikoetan bereizturik borroka honetan, bata bestetik berehala sortzen da bestalde. Sindikatuak eraikitzen hasi berria zelarik, proletalgo txinatarrak jada sobietetan pentsatzen hastera beharturik ikusi zuen bere burua. Zentzu honetan, programa hau erabat aplikagarria da herrialde kolonialetara eta erdi-kolonialetara, proletalgoa jada politika independente bat izateko gai den herrialde haietara behinik behin.

Herrialde kolonialetan eta erdi-kolonialetan eginkizun nagusiak hauek dira: nekazal iraultza, hau da, herentzia feudalarren suntsipena eta independentzia nazionala, hau da, uz-tarri inperialista gainetik botatzea. Bi eginkizun hauek estuki loturik daude bata bestearekin.

Ezinezkoa da programa demokratikoari era huts eta sinplean uko egitea; beharrezkoa da masek euren kabuz borroka rekin programa hau gaindi dezaten. Asanblada Nazionalaren (edota Konstituziogilearen) kontsignak bere balio osoa mantentzen du Txina edota India bezalako herrialdeetan. Oroz gain, ezinbestekoa da langileak programa demokratiko batekin armatzea. Beraiek bakarrik altxarazi eta batu ditzakete nekazariak. Programa demokratiko iraultzailea oinarritzat hartuta beharrezkoa da langileak burgesia “nazionalari” aurrez aurre ipintzea. Masen mobilizazioaren etapa jakin batean demokrazia iraultzailearen kontsignekin sobietak sortu ahal daitezke eta sortu behar dira. Hauen paper historikoa garai

jakin bakoitzean, batez ere Asanblada Nazionalarekiko berauen erlazioa, proletalgoaren maila politikoak baldintzaturik dago, honek klase nekazariarekin duen loturarengatik, proletalgoaren politikaren izaeragatik. Goiz ala berandu sobietek demokrazia burgesa eraitsi behar dute. Beraiek bakarrik dira iraultza demokratiko bat amaieraraino eramane eta era honetan iraultza sozialistaren etapa bati hasera emateko gai.

Errebindikazio demokratiko eta trantsitorio ezberdinek proletalgoaren borrokan duten pisu jakina, euren elkarren arteko lotura, euren segidaren ordena, herrialde atzeratu bakoitzaren berezitasunek eta berezko baldintzek baldintzaturik badago, hein handi batean, euren atzerapen mailagatik beragatik da. Hala ere, bilakabide iraultzailearen norabide orokorra etengabeko iraultzaren formulak baldintza dezake, Errusiako hiru iraultzek (1905ekoak, 1917ko otsailekoak eta 1917ko urrikoak) formula honi erabakigarriki eman dioten zentzuan.

Internazional Komunistak indarrez eta promesez beteriko iraultza baten hondamendia eragiteko moduaren eredu klasikoa eman die herrialde atzeratuei, Txinan 1925-27 urteetan zehar eman zen masa mugimenduaren goraldi oldartsuan zehar Internazional Komunistak Asanblada nazionalaren konstituzioa jaurti ez zuenean eta aldi berean sobieten sorrera debekatu zuenean. Kuo-Min-Tang alderdi burgesak, Stalinen planaren arabera, Asanblada Nazionala eta Sobietak "ordezkatu" behar zituen. Kantongo altxamenduaren ezinbesteko hondoratzearen ostean Internazional Komunistak gerrilla gerraren eta nekazarien sobieten bidea hartu zuen proletalgo industrialekiko izugarritzko pasibotasuna erakutsiz. Irtenbiderik gabeko arazoaren aurrean, Internazional Komunistak Txina eta Japonen arteko gerra aprobetxatu zuen kolpe batez "Txina Sobietarra" deuseztatzeko, ez nekazarien "Ejertzito Gorria" bakarrik, baita Alderdi Komunistak deiturikoa ere Kuo-Min-Tangaren menpe, hau da, burgesiaren menpe, ipiniz.

Esklabista demokratikoekiko laguntasunaren izenean nazioarteko iraultza proletarioari traizio egin ostean, Internazional Komunistak ezin zion era berean, Bigarren Internazionalak lehenago egin baino zintismo askoz ere handiagoz, herri kolonialen askapen borrokei traizio egiteari utzi. "Fronte

Herrikoiairen” eta “Defentsa Nazionalaren” politikak bere helburuetako bat herrialde kolonialeko ehunka milioi pertsona inperialismo demokratikoarentzako sakrifiziorako abere bilakatzea du. Herri kolonialen askapen borrokaren bandera, hau da, gizateriaren erdiarena baino gehiagorena, behin betiko Laugarren Internazionalaren eskuetara igarotzen da.

TRANTSIZIO PROGRAMA HERRIALDE FAXISTETAN

Denbora dezente igaro da Internazional Komunistako estrategiek Hitlerren garaipena Thaelmanen¹⁰ garaipenerako pauso bat besterik ez zela aldarrikatu zutenetik. Bost urte baino gehiago daramatza Thaelmanek Hitlerren kartzeletan. Mussolinik Italia faxismoaren menpe dauka duela hamasei urte baino gehiagotik. Bien bitartean, Bigarren eta Hirugarren Internazionalako alderdi guztiak indargabe agertu dira ez masa mugimendu bat pizteko bakarrik, baita lege-kanpoko erakunde serio bat sortzeko ere, tsarismoaren garaiko alderdi iraultzailerriaren bitartean konpara daitekeenik behinik behin.

Ez dago inongo arrazoirik porrot hauen kausa ideologia faxistaren indarrean ikusteko. Mussolinik ez zuen inoiz inongo ideologiarik izan eta Hitlerren ideologia ez dute inoiz serio-tasunez hartu langileek. Faxismoak momentu jakin batean limumurtu zituen biztanleriaren kapek, hau da, batez ere klase er-tainek, atsekabetezko denbora izan dute. Dagoen oposizio txikia eliza protestante eta katolikoaren komunikabideetara bakarrik mugatu izana ez da “arrazaren” eta “odolaren” teoria erdi-eroek eta erdi-hitzontziek duten indarragatik azaltzen, demokraziaren eta Kominternaren ideologiengatik baizik.

10. *Ernest Thaelmanek* (1889-1944 edo 1945), Alderdi Komunista alemaniarreko agintariak, praktikan jarri zuen inolako kritikarik gabe “hirugarren garaiko” politika hondagarria Kominternaren 1928ko VI. Kongresuaren ondoren. 1929tik 1933ra, “sozialfaxismoaren” teoriapean, Alderdi Komunista alemaniarrek sozial-demokraziak bere erara bultzatzen zuen langile klasearen zatiketa politika babestu zuen eta honek atea ireki zion, tiro bat bera ere bota gabe, Mendebaldeko Europan ondoen antolatuta zegoen langile klasea Hitlerrek garaitzeari. Thaelmann naziek harrapatu zuten 1933an herrialdea uztera zihoanean eta hil egin zen kontzentrazio eremu batean gerra garaian.

Parisko Komunaren hondoratzearen ostean, erreakzio zapaltzaile bat hedatu zen ondorengo zortzi urte ingurutan. 1905eko Errusiako iraultzaren porrotaren ostean langile masak abaildurik geratu ziren ia iraupen berean zehar. Hala ere, bi kasuak, indarren arteko korrelazioak determinatutako porrot fisikoak besterik ez ziren izan. Errusian, bestalde, proletalگو ia birjin bat aurkitzen zen. Boltxebikeen frakzioak ez zituen hiru urte baino gehiago besterik. Egoera erabat desberdina zen Alemaniarekiko, hemen zuzendaritza alderdi boteretsuen esku baitzegoen, batek hirurogeita hamar urteko existentzia eta besteak hamabost urte ingurukoa zituelarik. Bi alderdi hauek, milioika hautesle zituztenak, moralki paralizaturik aurkitu ziren batailaren aurrean eta borrokarik gabe errenditu ziren. Ez da inoiz antzeko hondamendirik izan proletalگو alemaniarren historian, ez da etsai batek borroka batean garaitua izan; bere alderdi propioen koldarkeriak, doilorkeriak eta traizioak suntsitua izan da. Ez da harritzekoa duela hiru belaunalditatik sinestera ohiturik zegoen guztiarekiko fedea galdu izana. Hitlerren garaipenak aldi berean Mussolini indartu du.

Lan iraultzaileak Espainian eta Alemanian egiazko arrakastarik ez izanaren arrazoia ez da sozialdemokraziaren eta Kominternaren politika kriminala besterik. Lege-kanpoko lan bat burutzeko ez da masen begikotasuna behar bakar-bakarrik, baita bere kapa aurreratuenen gogo sutu eta kontzientea ere. Baina halako gogorik espero al daiteke historikoki lur jota dauden erakundeen eskutik? Emigraturiko buruzagiak batez ere Kremlinaren edota GPUaren agenteak dira, hezurretaraino desmoralizaturik daudenak, edota burgesiaren ministro sozialdemokrata zaharrak, mirari baten bidez langileek lehen galduriko euren postuetara itzuliko dituztela espero dutenak. Posible al da, momentu batez bada ere, jaun hauek iraultza antifaxistaren etorkizuneko buruzagi bezala irudikatzea sikiera?

Munduko gertakizunek ere (langile austriarren zapalketa, iraultza espainiarren porrota, Estatu Sobietarraren degenerazioa) ez dute astindu iraultzaile bat mesedetu Italian eta Alemanian. Langile italiarrek eta alemaniarrek euren informazio politikorako irratiatatik mendekotasuna duten heinean, segurtasunez esan daiteke Moskuko emisioek, gezur

termidoriarrak inozotasunarekin eta inpotentziarekin konbinatzen dituztenek, herrialde totalitarioetako langileen desmoralizaziorako faktore garrantzitsu bat osatzen dutela. Zentzu honetan, beste batzuetan bezala, Stalin ez da Goebbelsen¹¹ laguntzaile bat besterik.

Hala ere, faxismoaren garaipena ekarri duten klase antagonismoek, euren lanean jarraitzen dute haren agintepean eta pixkanaka-pixkanaka higatzen dute. Masen deskontentua hazten ari da. Ehunka mila langile pairamentsuk, dena dela ere, sator iraultzaileen lan zuhur bat egiten jarraitzen dute. Tradizio handien eta itxaropen handien hondoratzeak zuzenki pairatu ez dituzten belaunaldi gazteak altxatzen ari dira. Iraultzairen prestaketa molekularra martxan da erregimen totalitarioaren harlauza pisutsupean. Baina ezkutaturiko energia hori mugimendu bilaka dadin, ezinbestekoa da proletalgoaren abangoardiak ikuspegi berri bat bilatu izana, erregimen berri bat, programa berri bat, orbanik gabeko bandera berri bat.

Hauxe da zailtasun garrantzitsuena. Guztiz zaila da herrialde faxistetako langileentzat programa berrietan orientatzea. Programa baten egiaztapena esperientziaren bitartez egiten da. Masen mugimenduaren esperientzia da, hain zuzen, despotismo totalitarioko herrialdeetan falta dena. Oso litekeena da herrialde “demokratiko” batetako proletalgoaren arrakasta handi bat behar izatea faxismoak menderaturiko herrialdeetan mugimendu iraultzaile bati bultzada emateko.

Hondamendi finantzario edota militar batek eragin berbera izan dezake. Beharrezkoa da egun prestaketa lan bat burutzea, batez ere propagandakoa, fruitu ugari etorkizunean bakarrik emango dituen. Oraindik baieztatu daitezke ziurtasun osoz: egun handia behin argitzen denean, herrialde faxistetako mugimendu iraultzaileak kolpean berebiziko hedapena hartuko du eta ez da geratuko Weimarrekoa¹² bezalako hilotzak berpizteko.

11. Nazien Propaganda Ministroa 1933tik III. Reicharen porrotera arte.

12. 1919tik 1933rarte Alemanian egindako esperimendu demokratiko-burgesaren izena. Weimarko Errepublikak, sozialdemokrazia alemaniarrek babestua fronte bat egiteko iraultza sozialistaren aurka, 1933ko Hitlerren kontrairaultza faxistaren aurrean jausi zen, bere erorketan bere sortzaileak zapalduak izanik.

Puntu honen inguruan hasten da Laugarren Internazionalaren eta euren lur jotzea dela eta ere fisikoki bizirauten duten alderdi zaharren arteko desadostasun amaiezina. Emigrazioan dagoen “Fronte Herrikoa” egon ahal daitezkeen Fronte Herriko mota guztien arteko bariataterik dohakabeena eta traidoreena da. Funtsean existitzen ez den burgesia liberal batakiko koalizio baten nostalgia indargabea adierazten du. Arrakastarik balu, espainiar erarako proletalgoaren porrot sail berri bat prestatu besterik ez luke egingo. Horrexegatik Fronte Herrikoiairen teoriaren eta praktikaren aurkako propaganda gupidagabea lehen baldintza da faxismoaren aurkako borroka iraultzaile batentzat.

Honek ez du esan nahi Laugarren Internazionalak kontsigna demokratikoak baztertzen dituenik masak faxismoaren aurka mobilizatzeko borrokan. Alderantziz, eta bere banderapean leku guztietan. Baina formula demokratikoak (prentsa askatasuna, askatasun sindikala...) guretzako noizean behineko kontsignak dira, langileriaren mugimendu independentearen menpe daudenak; ez burgesiaren agenteek lepoaren inguruan estututako soka (Espainia!). Mugimenduak ezaugarri masiboak hartzen dituen bezain azkar, kontsigna demokratikoak trantsitorioekin gurutzatuko dira; ez da zaila pentsatzea lantegietako komiteak, sindikatu berrien eraikuntzetan babesen diren enbaxadetako burokrata zaharren bidean sartzea; sobietek Alemania beteko dute Weimarren Batzar Konstituziogile bat bildu ahal baino lehen. Berdina gertatuko da Italian eta gainontzeko herrialde totalitario eta erditotalitarioetan.

Faxismoak herrialde horiek basakeri politikoan lurperatu ditu. Baina ez da bere estruktura soziala aldatu. Faxismoa arma bat da kapital finantzarioaren eskuetan eta ez lurjabe feudalenetan. Programa iraultzaile batek herrialde faxistetan existitzen den klaseko borrokaren dialektikan oinarritu behar du, eta ez garaituta dauden behartsu batzuen psikologian. Laugarren Internazionalak nazkarekin baztertzen du edozein partehartze stalinistek, “hirugarren garaiko” heroi zaharrek, aurrera eramandako inauteri politikoaren antzekoetan, non katolikoek, protestanteek, judutarren, nazionalista alemaniarren eta liberalen maskarak jarri zituzten, horrela beren aurpegi higuigarria hobeto gordetzeko. Laugarren Internaziona-

la beti azaltzen da eta leku guztietan bere banderapean, eta bere programa modu irekian proposatzen dio Estatu faxisteta-ko proletalgoari. Hemendik aurrera mundu osoko langile aurrerratuak benetan ziur daude Mussoliniren eta Hitlerren eta hauen agenteen eta imitatzailen eraisketa Laugarren Internazionalaren zuzendaritzapean gertatuko dela.

SESBEKO EGOERA ETA TRANTSIZIO GARAIKO ARAZOAK

Sobiet Batasuna langile Estatu gisa atera da Urriko iraultza-tik. Ekoizpen baliabideen estatu jabegoak, ekoizpen indarren hazkunde azkar baterako posibilitatea ireki du. Langile Estatuaren aparatuak, isolaturik, erabateko degenerazioa bizi izan zuen bien bitartean, langile klasearen instrumentu izatetik, langile klasearen aurkako biolentzia burokratikorako instrumentu izatera eraldatuz, eta baita ekonomiaren sabotajerako instrumentu ere bilakatuz geroz eta gehiago. Langile Estatu baten burokratizazioa, atzeratua eta isolatua, eta burokrazia kasta pribilegiatu ahalguztiduna bilakatu izana, herrialde bakar bateko sozialismoaren teoriaren gezurtapenik sinesgarriena da, ez teorikoki bakarrik, baita praktikan ere.

Honela, SESBeko erregimenak kontraesan mehatxagariak gordetzen ditu bere baitan. Baina langile Estatu degeneratuko erregimen bat izaten jarraitzen du. Horixe da diagnosi soziala. Iragarpen politikoak izaera alternatiboa dauka: burokrazia geroz eta gehiago burgesia mundialaren organo bilakatzen da langile Estatuaren barnean, jabego forma berriak eraisten ditu eta herrialdea kapitalismora itzultzen da; edota langile klaseak burokrazia zapaltzen du eta sozialismorako bidea irekitzen du.

Laugarren Internazionalako sekzioentzat Moskuko prozesuak¹³ ez dira ezusteko bat, ezta Kremlinoko diktadorearen

13. 1936ko abuztuan, 1937ko urtarrilean eta 1938ko martxoan, terrore stalinista handiaren hainbeste ospe hartu ez zuten biktimen artean, Moskun hiru prozesu handi ospatu ziren "zentro terrorista trotskysta-zinovievistaren" aurka, "zentro trotskysta antisobietarraren" aurka eta "bloke antisobietar eskuindar eta trotskystaren" aurka hurrenez hurren. Prozesu hauetan akusatua, epaitua, kondenatua eta

erotasan pertsonalaren emaitza ere, Termidorraren¹⁴ zilegizko emaitzak baizik. Burokrazia sobietarraren barnean dauden tirabira onartezinetatik sortu dira, aldi berean burokraziaren eta herriaren arteko kontraesanak eta “herriaren” beraren barnean sakontzen diren antagonismoak ere islatzen dituzten tirabiretatik. Epaiketen izaera odoltsu eta fantastikoak kontraesan horien intentsitatearen mailaren berri ematen dute eta amaieraren gertutasuna iragartzen dute.

Moskura itzultzeari uko egin dioten Kremlinoko agente ohiek atzerrian eginiko adierazpen publikoek hutsik gabe baiez-tatu dute, euren aldetik, burokraziaren barnean pentsamendu politikoaren ñabardura guztiak daudela: egiazko boltxebismotik hasita (Ignace Reiss)¹⁵ faxismo biribilerarte (F. Butenko)¹⁶. Burokraziako elementu iraultzaileek, gutxiengo urri bat osatzen dutenek, pasiboki, egia da, proletalgoaren interes sozialistak islatzen dituzte. Elementu faxista kontrairaultzaileek, euren kopuruan etengabe hazten doazenek, inperialismo mundialaren interesak islatzen dituzte geroz eta modu kontsekuentea-go batean. “Erosle” papererako hautagai hauek zera pentsatzen dute, eta ez arrazoirik gabe, buruzagi den kapa berriak ezin duela bere posizio pribilegiatua mantendu nazionalizazioari, kolektibizazioari edota kanpo merkataritzaren monopolioari uko egin gabe, “mendebaldeko zibilizazioaren” asimilazioaren izenean, edota bestela esanda, kapitalismoarenean. Bi polo hauen artean tarteko joerak banatzen dira, lausotasun

gehienetan exekutatua izan zen guardia boltxebike zaharraren gehiengo zatia, Leninekin batera Urriko Iraultza egin zutenak. Zinoviev, Kamenev, Evdokimov, Smirnov (lehen prozesuan), Piatakov, Radek, Serebriakov (bigarrenean), Bujarin, Rykov, Krestinsky (hirugarrenean), dira, beste batzuen artean, prozesu hauetan azaldu ziren akusatuen izen nabarmenenak. Bertan ez egon arren, baina akusazio guztien jomuga izan zena, Leon Trotsky, 1940ean erailko zuen Stalinekin.

14. Termidor jakobino frantziarrak, Robespierrek zuzenduta, frakzio eskuindarrak eta erreakzionarioak garaituak izan ziren hilabetea izan zen, nahiz eta hala ere, erregimen feudala ez errestituratu. Trotskyk termino hau erabili zuen analogia eginez, burokrazia stalinistaren Langile Estatuko botere hartzea izendatzeko, nahiz eta horrekin kapitalismoa ez itzuli.
15. 1937ko udaran Stalinekin hautsi zuen GPUko (polizia sekretu stalinista) agentea izan zen Reiss eta ondoren Laugarren Internazionalera elkartu zen. Lausanatik (Suitza) gertu eraila izan zen 1937ko irailaren 4an GPUko agenteen bitartez.
16. Faxismora pasa zen diplomatiko stalinista izan zen Butenko eta Roman adierazi zuen Sobietar Batasuneko korrante faxista zabal bat ordezkatzan zuela.

gehiago edo gutxiagokoak, izaera mentxebikekoak, sozialista-iraultzailekoak edota liberalak, demokrazia burgesaren alde-
ra jotzen dutenak.

“Klaserik gabeko” gizartea deiturikoan, zalantzarik gabe, burokrazian dauden talde berberak daude, adierazpen ez hain argiarekin eta kontrako proportzioan: joera kapitalista kontzienteak dira koljosen kapa aberatsenetan bereziki gailentzen direnak batez ere, baina biztanleriaren gutxiengo txiki bat errepresentatzen dutenak. Baina oinarri zabal bat aurkitzen dute miseria orokorretik eta burokraziaren sustapen kontzientetik jaiotzen diren metaketarako joera burges txikietan.

Oreka soziala geroz eta gehiago suntsitzen duten antagonismo hazkorreko sistema honen gainean oligarkia termidoriar bat mantentzen da terrorezko metodoak erabiliz, oraindik ere Stalinen ganberatxo bonapartistara murrizten dena.

Azken prozesuak ezkerren aurkako kolpe bat izan dira. Hau ere egia da eskuineko oposizioaren¹⁷ buruzagien aurkako errepresioari dagokionean, burokraziaren interesen eta joeren ikuspuntutik, alderdi boltxebike zaharreko eskuin taldeak ezkerreko arrisku bat suposatzen baitu. Ganberatxo bonapartistak, Butenkoren motako eskuineko bere aliatuekiko ere izuti, bere mantentzerako boltxebikeen belaualdi zaharraren es-terminazio ia orokorrera jo behar izatera iritsi izanak, masengan tradizio iraultzaileek duten ezinbesteko froga argia dira eta baita hauen aseezintasun hazkorrarena ere.

Mendebaldeko demokrata burges txikiek, Moskuko prozesuak atzo oraindik ere ohiko zerbait bezala onartzen zituzten haiek, temati errepikatzen dute “SESBen ez dago ez trotskismorik ez trotskistik”. Baina ez dute zergatia azaltzen, garbiketa osoa arrisku honen aurkako borrokaren zeinupean egiten da. “Trotskismoa” programa amaitu bat bezala hartzen bada, eta arrazoi gehiagorekin, erakunde bat bezala, “trotskismoa” zalantzarik gabe, SESBen, erabat ahula da. Baina hala ere, bere indar garaiezina ez bakarrik tradizio iraultzailearen, baizik eta baita langile klasearen egungo oposizioaren errepresentazioa izatean ere aurkitzen da. Burokraziaren aurkako

17. Izen honekin ezagutzen da 20. hamarkadaren bukaeratik Bujarinек zuzentzen duen Alderdi Boltxebikearen frakzioa.

langileen gorroto soziala da hain zuzen trotskismotzat begitantzen duena ganberatxo stalinistak. Berealdiko beldurra dio, hil artekoa, eta arrazoi askorekin, langileen sumindura isila Laugarren Internazionalaren erakundearekin lotzeari.

Boltxebikeen belaunaldi zaharraren eta belaunaldi er-tain eta gazteko ordezkari iraultzaileen esterminioak are eta gehiago suntsitu du oreka politikoa, eskuinaren, burgesiaren, burokraziaren mesedetan, herrialde osoan. Hortik, hau da, eskuinetik, espero daitezke beraz SESBeko erregimen soziala berreraikitzeko saiakera geroz eta ausartagoak datorren aroan, “mendebaldeko zibilizaziora” gerturatzuz, batez ere honen forma faxistan.

Ikuspegi honek oso izaera zehatza ematen dio “SESB defendatzearen” auziari. Bihar talde burges-faxistak, edota nolabait esateko, “Butenko frakzioa” boterearen konkistagatiko borrokan sartzen bada, “Reiss frakzioak” ezinbestean barrikadaren beste aldean hartuko du lekua. Une baterako Stalinen aliatu izanez, azken frakzio honek ez honen ganberatxo bonapartista, baizik eta SESBen oinarri soziala defendatuko luke, hau da, kapitalistei erauzitako jabegoa eta Estatu jabegoa bilakatu-tutakoa. “Butenko frakzioa” Hitlerrekin aliantza militar batean aurkitzen bada, “Reiss frakzioak” SESB defendatuko du eskuartze militarren aurka, bai SESBen barnean bai mundu mailan. Beste edonolako jokabide bat traizioa litzateke.

Ezin uka aurretiaz, kasu hertsiki jakinetan, burokraziaren alde termindoriarekin “fronte bakar” bat osatzeko aukera, kontrairaultza kapitalistaren ofentsiba ireki baten aurka, baina SESBeko eginkizun politiko garrantzitsuena, hala eta guztiz ere, burokrazia termidoriarra garaitzeak jarraitzen du izaten. Bere aginteari gehitzen zaion egun bakoitzak ekonomia-ren elementu sozialisten zutabeen azpiak suntsitzen laguntzen du eta errestaurazio kapitalistaren aukerak handitzen. Zentzu berean grabitatzten du Internazional Komunistak, iraultza espainiarra zapaltzen eta nazioarteko proletalgora desmoralizatzen ganberatxo stalinistaren agente eta konplizea izan denak.

Herrialde faxistetan bezala, burokraziaren indarrrik garrantzitsuena ez da bere baitan aurkitzen, masen atsekabeen baizik, ikuspegi berri bat ez izatean baizik. Herrialde faxistetan bezala, zeintzuengatik Stalinen aparatu politikoa desberdintzen

duen gauza bakarra honek gordintasun neurrigabeago bat edukitzean dagoen, prestakuntzarako propaganda lan bat bakarrik egin daiteke gaur egun SESBen. Herrialde faxistetan bezala, langile sobietarren mugimendu iraultzaileari ziurrenik kanpoko gertakariak emango diote behar duen bultzada. Kominternaren aurkako mundu mailako borroka da gaur egun diktadura stalinistaren aurkako borrokaren zatirik garrantzitsuena. Zantzu askok Kominternaren gainbeherak, zuzenean GPUan oinarritzen ez dena, ganberatxo bonapartistaren erorketa eta orokorrean burokrazia termidoriar osoarena iragarriko duela pentsatzea ahalbidetzen du.

Iraultzaren goraldi berria SESBen zalantzarik gabe hasiko da, desberdintasun sozialaren eta zapalkuntza politikoa-
ren aurkako borrokaren banderapean. Behera burokraziaren pribilegioak! Behera stajanovismoa! Behera aristokrazia sobietarra bere gradu eta dekorazioekin! Berdintasun gehiago soldatetan lan mota guztietan!

Sindikatuak eta lantegietako komiteen askatasunaren aldeko borroka, bilera eta prentsa askatasunaren aldekoa, demokrazia sobietarraren berpizkundearen eta birsortzearen aldeko borrokan garatuko da.

Burokraziak sobietak ordezkatu ditu, hauen klase organo funtzioetan, sufragio unibertsalaren fikzioaren bitartez, Hitler-Goebbelsen eran. Beharrezkoa da sobietei ez euren forma askea, demokratikoa, bakarrik, baizik eta klase edukia ere itzultzea. Lehen burgesia eta Kulakak sobietetan onartuak ez ziren era berean, orain burokrazia eta aristokrazia berria sobietetatik kanporatua izan behar da. Sobietetan langileentzat, Koljosetako oinarriko kideentzat, nekazarietzat eta soldadu gorrientzat besterik ez dago lekua.

Sobieten demokratizazioa pentsaezina da alderdi sobietarren legalizaziorik gabe. Langileek eta nekazariak, euren kabuz eta euren sufragio askearen bitartez erabakiko dute zein alderdi har daitezkeen alderdi sobietar bezala.

Ekonomia planifikatuaren errepasso osoa ekoizleen eta kontsumitzaileen intereserako! Ekoizpenaren gaineko kontrolaren eskubidea itzuli behar zaie lantegietako Komiteei. Kontsumoen kooperatibak, demokratikoki antolaturik, produktuen kalitatea eta hauen salneurriak kontrolatu behar ditu.

Koljosen berrantolaketa hauek osatzen dituzten langileen borondatearen eta interesen arabera!

Burokraziaren nazioarteko politika kontserbadorea internazionalismo proletarioak ordezkatua izan behar du. Kremliaren korrespondentzia diplomatiko osoa argitaratua izan behar da. Behera diplomazia sekretua!

Burokrazia termidoriarrak muntaturiko prozesu politiko guztiek errebisatuak izan behar dute, erabateko publizitate eta azterketa aske batean! Faltsifikazioen antolatzaileek mezezi duten zigorra pairatu behar dute!

Programa hau ezin burutu daiteke bortizkeriaren eta faltsifikazioaren bitartez mantentzen den burokraziaren eraisketarik gabe. Masa zapalduen altxamendu arrakastatsuak bakarrik birsortu dezake erregimen sobietarra eta sozialismorako aurrerabidea segurtatu. Laugarren Internazionalaren alderdia da masa sobietarrak matxinadan zuzentzeko gai den bakarra.

Behera Kain-Stalinen ganberatxo bonapartista!

Gora demokrazia sobietarra!

Gora nazioarteko iraultza sozialista!

PRINTZIPIORIK GABEKO OPORTUNISMOAREN ETA ERREBISIONISMOAREN AURKA

Leon Blumen alderdiaren politikak Frantzian erreformistak historiaren irakaspenetatik ezer ikasteko gai ez direla erakusten digu berriro ere. Sozialdemokrazia frantziarrak, morroi baten moduan, sozialdemokrazia alemaniarren politika kopiatzen du eta hondamendi bererantz doa. Azken hamarkadetan, Bigarren Internazionalak bere patua erregimen demokratiko burgesari estuki lotu dio eta honekin batera usteltzen ari da.

Hirugarren Internazionala erreformismoaren bidean sartu da hain zuzen ere orain, kapitalismoaren krisiak iraultza proletarioa eguneko ordenean behin betiko jarri duen honetan. Hirugarren Internazionalak Espainian eta Txinan egun duen politikak, burgesia “nazionalaren” eta “demokratikoaren” aurrean makurtzean oinarritzen denak, hau ere aldatzeko

edota ezer ikasteko gai ez dela erakusten digu. Burokraziak, SESBen barnean indar erreakzionario bilakatu denak, ezin du paper iraultzailerik jokatu nazioarteko ordenean.

Bere osotasunean, anarkosindikalismoak mota bereko eboluzioa izan du. Frantzian, Leon Jouhauxen burokrazia sindikala duela denbora askotik burgesiaren agentzia bat bilakatu da langile klasearen barnean. Espainian, anarkosindikalismoak bere fatxadako iraultzailetasuna alde batera utzi zuen, iraultza hasi zenetik, eta demokrazia burgesaren zalgurdiko bosgarren gurgpila bilakatu zen.

Tarteko erakunde zentristak, Londresko Buroaren¹⁸ inguruan biltzen direnak, ez dira apendizite “ezkertiarrik” besterik, egoera historiko batean orientatzeko eta ondorio iraultzaileak ondorioztatzeko gaitasun gabezia begi-bistan utziz. Euren puntu gorena POUM espainiarrak lortu zuena izan zen, egoera iraultzaile baten aurrean politika iraultzaile bat izateko gai ez dela erakutsi zuena erabat.

Munduko proletalgora orain dela urte askotatik sufritzen datorren porrot tragikoez erakunde ofizialak kontserbadorismo are eta nabarmenago batetara eraman dituzte, eta aldi berean, “iraultzaile” burges txiki etsituak, bide “berriak” topatzen. Erreakzio eta dekadentzia garaietan, beti bezala, pentsamendu iraultzailearen bilakabide osoa errebisatu nahi duten mago eta berbontziak agertzen dira alde guztietatik. Iraganetik ikasi beharrean, “zuzendu” egiten dute. Batzuek marxismoaren trinkotasun falta deskubritzen dute, besteek boltxebismoaren lur jotzea aldarrikatzen dute. Batzuek doktrina iraultzaileari egozten diote berau traizionatzen dutenen krimenen eta akatsen erresponsabilitatea. Beste batzuek sendagaia madarikatzen dute berehalako eta mirarizko sendaketa bat segurtatzen ez duelako. Kementsuenek panazea bat aurkituko dutela zin egiten dute eta bien bitartean klase borroka geldi dadila gomendatzen dute. Moral berriaren profeta ugari langile mugimendua homeopatia etikoaren laguntzarekin birsortzen saiatzen

18. Londresko Buroa, Bigarren eta Hirugarren Internazionalera afiliatuta ez zeuden alderdi zentristen elkartea zen, baina Laugarren Internazionalaren sorreraren aurka zegoena. Bertako partaideak ziren Britainia Handiko Independent Labour Party, Espainiako POUM, SAP alemaniarra eta PSOP frantziarra.

hasteko prest agertzen dira. Apostolu hauetako gehienak elbarririk moral bilakatu dira batailarik gabe. Honela, errebelazio txundigarrien mozorroarekin, Marxen aurretiko sozialismoaren artxiboetan duela denbora asko lurperatu ziren errezeta zaharrak besterik ez zaizkio eskaintzen proletalgoari.

Laugarren Internazionalak gerra gupidagabea aldarrikatzen die Bigarren eta Hirugarren Internazionalak, Amsterdamgo Internazionalako eta Internazional anarkosindikalistako burokraziei, eta baita euren satelite zentristei ere; erreformarik gabeko erreformismoari, GPUrekin aliaturiko demokratismoari, bakerik gabeko pazifismoari, burgesiaren zerbitzura dagoen anarkismoari, iraultzari berebiziko beldurra dioten “iraultzaileri”. Erakunde hauek guztiak ez dira etorkizunerako promesak, iraganeko biziraupen ustelak baizik. Gerren eta iraultzen garaiak ez du beraien arrastorik ere utziko.

Laugarren Internazionalak ez du panazeirik ez bilatzen ezta asmatzen ere. Marxismoaren eremuan mantentzen da, osotasunean errealitatea ulertzea, porroten arrazoiak aurkitzea eta garaipena kontzienteki prestatzea ahalbidetzen duen doktrina iraultzaile bakarraren eremuan. Laugarren Internazionalak proletalgoari boterea nola konkistatu lehendabizikoz erakutsi zion boltxebismoaren tradizioan jarraitzen du. Laugarren Internazionalak magoak, hitzontziak eta moralaren irakasleak alde batera baztertzen ditu. Esplotazioan oinarrituriko gizarte batean, moral gorena iraultza sozialistarena da. Egokiak dira langileen klase kontzientzia, euren indarretan konfiantza izatea eta borrokarako sakrifizio izpiritua handitzen dituzten metodoak. Onartezinak dira zapaltzaileekiko zapalduen beldurra eta otzantasuna eragiten dituzten metodoak, errebeldia eta protesta izpiritua itotzen dituztenak, edota masen borondatea bere buruzagienengatik ordezkatzeko dutenak eta langileen konbentzimendua, obediencia itsu eta errealitatearen analisi demagokoagatik eta faltsifikazioetatik aldatzen dutenak. Hona hemen zergatik bai sozialdemokrazia, marxismoa prostituitu duena, eta bai stalinismoa, boltxebismoaren antitesia, iraultza proletarioaren eta moralaren beraren etsai hilkorrak diren.

Errealitateari parez pare begiratzea, erresistentzia txikiaren lerroa ez bilatzea, gauza bakoitzari bere izenez deitzea, masei egia esatea hau garrantza izanik ere, oztopoei beldurrik

ez izatea, gauza txiki eta handietan leiala izatea, ekintzaren ordua iristen denean adoretsua izatea, horiexek dira Laugarren Internazionalaren arauak. Korrontearen aurka joaten badakiela erakutsi du honek. Datorren olatu historikoak bere gailurrean ipiniko du.

SEKTARISMOAREN AURKA

Proletalgoaren erakunde historikoaren traizioaren eta degenerazioaren eraginpean, Laugarren Internazionalaren periferian genero ezberdinetako talde eta antolaketa sektarioak jaio edota degeneratu dira. Euren oinarrian nukleo hauek masen interesak eta behar oinarrikoenak diren moduan kontuan hartu gabe, horien alde borroka egiteari uko egiten diote. Iraultzaren prestaketak sektarioentzat euren buruak sozialismoaren abantailekin konbentzitzea suposatzen du. Sindikatu zaharrei bizkarra ematea proposatzen dute, hau da, hamar milioika langileri. Masek klase borrokaren baldintza errealetatik kanpo bizitzerik balute bezala! Erakunde erreformisten barne borroken aurrean axolagabe mantentzen dira. Borroka horretan esku hartu gabe masak konkistatzerik balego bezala! Praktikan demokrazia burgesaren eta faxismoaren artean desberdintasun bat egiteari uko egiten diote. Masek desberdintasun hori pauso bakoitzean sentituko ez balute bezala!

Sektarioak bi kolore bereizteko bakarrik dira gai: zuria, eta beltza. Tentazioan ez erortzeko, errealitatea sinplifikatzen dute. Borrokan dauden aldean arteko desberdintasunak ezartzeari uko egiten diote Espainian, bi aldeek izaera burges bat dutela argudiatuz. Eta arrazoi beragatik, Txinaren aurkako Japoniaren gerraren aurrean neutral mantentzea beharrezkoa dela pentsatzen dute. SESBen eta herrialde burgesen arteko printzipio-desberdintasuna ukatzen dute, eta burokrazia sobietarraren politika erreakzionarioa ikusirik, Urriko iraultzak sortutako jabego formak inperialismoaren aurka defendatzeari uko egiten diote.

Masengana gerturatzeko bidea aurkitzeko gai ez direnez, ideia iraultzaileetara iristeko ezgaitasunaz salatzen dituzte. Profeta antzu hauek ez dute errebindikazio trantsitorioen zubia

eskegitzeko beharrik ikusten, ibaiaren beste aldera iristeko asmorik ere ez baitute. Noria bateko mandoak bailiran, eten-gabe abstrakzio huts berberak errepikatzen dituzte. Gertakari politikoak ez dira ekintzara jauzi egiteko aukerak eurentzat, komentarioak egiteko aukerak baizik. Sektarioak, ilusionistak edota magoak bezala une oro errealitateak gezurtatuak direnez, sumindura etengabeko egoera batean bizi dira, etenik gabe “erregimenaz” edota “metodoetaz” kexatzen dira eta azpikeria doilorretan aritzen dira. Euren zirkuluaren barnean, jaun hauek normalean erregimen despotiko bat izan dute. Sektarismoaren errendizio politikoak oportunistoaren errendizioari jarraitu besterik ez dio egiten itzal bat balitz bezala, ikuspegi iraultzailerik ireki gabe. Politika praktikoan sektarioak pauso bakoitzean oportunistekin elkartzen dira, batez ere zentristekin, marxismoaren aurka borroka egiteko.

Era honetako talde eta ganbaratxo sektario gehienak, Laugarren Internazionalaren mahaiko ogi papurretatik elikatzen direnak, antolaketa bizitza “independente” bat dute, xede handiekin, baina arrakastarako inongo aukerarik gabe. Denborarik galdu gabe, boltxebike leninistek alde batera bota ditzakete lasaitasun osoz.

Hala ere, geure lerroetan ere sekzio batzuen lanarengan eragin kaltegarria egiten duten joerak aurkitzen dira. Egun bat gehiagoan ere onar ezin daiteken zerbait da. Laugarren Internazionalako kide izateko oinarritzko baldintza sindikatuekiko politika zuzen bat da. Masen mugimendurako bidea bilatzen edo aurkitzen ez duena ez da borrokalari bat, alderdiarentzako zama hil bat baizik. Programa bat ez da erredakzioetarako, irakurketa saloietarako edota eztabaida zentroetarako sortzen, milioika gizonen ekintza iraultzailerako baizik. Arrakasta iraultzaileen beharrezko premisa Laugarren Internazionala sektarismotik eta sektario zuzentzetatik garbitzea da.

EMAN BIDEA GAZTERIARI! EMAN BIDEA EMAKUME LANGILEEI!

Iraultza espainiarraren porrota, bere “buruzagiek” eragindakoa, Frantziako Fronte Herrikoien lur jotze lotsagarria eta Moskuko gaizkileek muntatutako ekintza judizialen jendarteratzea,

Hirugarren Internazionalari kolpe konponezin bat ematen dioten gertakariak dira euren osotasunean, eta aldi berean, zauri larriak eragiten dizkiete bere aliatuei, sozialdemokratei eta anarkosindikalistei. Dударik gabe, honek ez du esan nahi erakunde hauetako partaideak Laugarren Internazionalerantz zuzenduko direnik berehala. Belaunaldi zaharrenaren zatirik handienak, hondamen beldurgarri bat pairatu duenak, batailako frontea utziko du. Beste aldetik, Laugarren Internazionalak ez du inola ere iraultzaile elbarrituen, burokraten eta arribista etsituen aterpe bat bilakatzeko asmorik. Alderantziz, erakunde zaharretako zuzendaritza aparatua menperatzen dituzten elementu burges txikiak gure lerroetara etortzea saihesteko, ezinbestekoa da prebentziozko neurriak; proba epe luze bat langileak ez diren kidegaientzat, batez ere burokrate ohiak badiara; lehen hiru urteetan alderdiko ardurazko postuetan egoteko debekua; etab... Laugarren Internazionalen ez dago lekurik arribismoarentzat, internazional zaharren kantzer horrentzat. Mugimenduarentzat eta ez honen kontura bizi nahi duten haiek bakarrik aurkituko dute lekua gure lerroetan. Erakundearen atea erabat irekita daude langile iraultzaileentzat, hauek baitira beronen jabe sentitu behar direnak.

Argi dago denbora batez lehen lerroak okupatu zituzten langileen artean ere gaur egun ez daudela nekatutako eta etsitutako gutxi. Gutxienez alde batera mantenduko dira euren hurrengo garaietan. Programa bat eta erakunde bat zahartzen direnean, euren sorbalden gainean hauek eraman zituzten belaunaldia ere zahartzen da. Gazteak dira, iraganeko edozein arduratik aske daudenak, mugimendua birsortzeaz arduratzen direnak.

Laugarren Internazionalak aparteko atentzio eta interes berezia eskaintzen dio proletalgoaren belaunaldi gazteari. Bere politika osoa gazteriar bere indar propioetan eta bere etorkizunean konfiantza ematen saiatzen da. Gazteriarren gogo bizi freskoak eta gudarako izpirituak segurta ditzakete borrokarren lehen garaipenak eta hauek bakarrik ekarriko dituzte berriro ere bide iraultzailera belaunaldi zaharreko elementurik hoberenak. Hala izan da beti eta hala izango da beti.

Gauzen bilakabideak erakunde oportunistak guztien interesa langile klasearen kapa gorenetan kontzentratzera darama,

eta, ondorioz, gazteria emakume langileak adina ahazten dute. Kapitalismoaren gainbehera garaiak emakumeari bere kolperik gogorrenak ematen dizkio ordea, bai bere langile izaeragatik bai bere etxeoandre izaeragatik ere. Laugarren Internazionalako sekzioek langile klasearen kaparik zapalduenen artean bilatu behar dute babes, eta ondorioz, lan egiten duten emakumeengan. Hauen artean debozio, gogo eta sakrifizioarako izpiritu iturri agortezinak aurkituko dituzte.

Behera burokratismoa eta arribismoa! Eman bidea gazteriari! Eman bidea emakume langileari! Hauek dira Laugarren Internazionalaren banderan inskribaturik dauden kontsignak.

LAUGARREN INTERNAZIONALAREN BANDERAPEAN

Eszeptikoez galdetzen dute: Baina iritsi al da internazional berri bat sortzeko unea? Ezinezkoa da, diote, Internazional bat “artifizialki” sortzea. Gertakari handiek bakarrik sortarazi dezakete, etab. Adierazpen hauek guztiek frogatzen duten gauza bakarra zera da, eszeptikoez ez dutela balio internazional berri bat sortzeko. Orokorrean, eszeptikoez ez dute ezertarako balio.

Laugarren Internazionala jada sortu da gertakari handietatik; proletalgoak historian zehar erregistratu dituen porrot handienetatik. Porrot hauen arrazoia zuzendaritza zaharren degenerazioa eta traizioa da. Klase borrokak ez du etenik onartzen. Hirugarren Internazionala, Bigarrenaren ondoren, hil da iraultzarentzat.

Gora Laugarren Internazionala!

Baina eszeptikoez ez dira isilik geratzen. Baina iritsi al da berau aldarrikatze unea? Laugarren Internazionalak —erantzuten dugu— ez du “aldarrikatua” izan behar. Bada eta borrokan ari da. Ahula al da? Bai, bere lerroak oraindik ere ez dira hain ugariak oraindik ere gaztea baita. Orain arte batez ere koadro zuzendariz osaturik dago. Baina koadro hauek etorkizun iraultzailearen itxaropen bakarra dira, izen hau benetan merezi duten bakarrak dira. Gure Internazionala kopuruen aldetik oraindik ere ahula bada, indartsua da bere doktrinagatik, bere tradizioagatik, eta bere koadro zuzendarien aldarte

konparaezinagatik. Hau gaur begi-bistakoa ez izateak, ez du garrantzia handirik. Bihar begi-bistakoagoa izango da.

Laugarren Internazionalak une honetatik stalinisten, sozialdemokraten, liberal burgesen eta faxisten zilegizko gorrotoa du. Ez du eta ezin izan dezake lekurik inongo Fronte Herrikoietan. Burgesiarekin loturak dituen talde politiko oro malkurtu gabe borrokatzen du. Bere misioa kapitalaren agintea suntsitzea da, bere helburua sozialismoa. Bere metodoa, iraultza proletarioa.

Barne demokraziarik gabe ez dago heziketa iraultzaile-rik. Diziplinarik gabe ez dago ekintza iraultzaile-rik. Laugarren Internazionalaren barne erregimena zentralismo demokratikoaren printzipioen arabera antolatzen da: eztabaidarako askatasun osoa, ekintzarako batasun osoa.

Giza zibilizazioaren egungo krisia zuzendaritza proletarioaren krisia da. Laugarren Internazionalaren inguruan antolaturiko langile iraultzaileek euren klaseari krisitik irteteko bidea erakusten diote. Proletalgoaren eta orokorrean zapaldu guztien nazioarteko esperientzian oinarritutako programa bat proposatzen diote, orbanik gabeko bandera bat proposatzen diote.

Herrialde guztietako langileak, Laugarren Internazionalaren banderapean bildu zaitetzte! Zuen hurrengo garaipenaren bandera da!

Laugarren Internazionalaren Manifestua gerra inperialistaren eta iraultza proletario mundialaren inguruan

1940ko maiatza

Laugarren Internazionalaren Ezohiko Konferentzia, iraultza sozialistaren alderdi mundialarena, bigarren gerra inperialistaren une erabakigarri batean biltzen da. Negoziazio saiakeren, presaketan eta jarduera militar erlatiborik gabeko garaia oso atzean geratu da. Alemaniak infernuko indar guztiak askatu ditu ofentsiba orokor batean, eta aliatuak honi erantzuna ematen saiatzen ari dira euren baliabide suntsitzaile guztiak erabiliz. Hemendik aurrera, Europaren bizitza eta gizateria osoarena, denbora luze batean zehar, gerra inperialistaren ibilbideak eta honen ondorio politiko eta ekonomikoek determinaturik etorriko da.

Laugarren Internazionalak gerraren inguruan eta honetan parte hartzen dutenen inguruan pentsatzen duena modu ireki eta argian esateko unea iritsi dela uste du; langile erakunde ezberdinek gerraren inguruan duten politika nola epaitzen duen, eta garrantzitsuena, bakerako, askatasunera-ko eta ongizaterako bidea zein den esateko garaia.

Laugarren Internazionala ez da euren herriak sarraski honetara gidatu dituzten gobernuetara zuzentzen, ezta gobernu hauen arduradun diren politiko burgesengana ere, eta ezta euren burgesia gerran defendatzen duen langile burokraziarengana ere. Laugarren Internazionala langileengana, gizon eta emakumeengana, soldadu eta marinengana, zorrek jan dituzten nekazariengana eta herri kolonial esklabizatuengana zuzentzen da. Laugarren Internazionalak ez du inongo lokarrik zapaltzaileekin, esplotatzaileekin eta inperialistekin. Langileen, zapalduen, esplotatuen alderdi mundiala da. Haiengana zuzentzen da manifestu¹⁹ hau.

19. *The Socialist Appeal*en argitaratua, 1940ko ekainaren 29an. Manifestua Laugarren Internazionalaren Ezohiko Konferentziak onartu zuen (New York, 1940ko maiatzaren 19tik 26ra bitartean).

EGUNGO GERRAREN ARRAZOI OROKORRAK

Gaur egun teknika askoz ere boteretsuagoa da 1914-18ko gerraren amaieran baino, eta hala ere, pobrezia gizateria lepotik estutzen du oraindik ere. Herrialde guztietan, bata bestearen atzetik, bizi mailak okerrera egin du. Egungo gerraren hasieran, nekazaritza aurrekoaren bezperetan baino baldintza eskasagoetan zegoen. Nekazal herrialdeak lur jota daude. Herrialde industrialetan, klase ertainek krisi ekonomikoaren eragin hondatzaileak pairatzen dituzte eta langabetu iraunkorren azpiklase bat sortu da (paria modernoak). Barne merkatua eta kapital esportazioak murriztu egin dira. Inperialismoak mundu merkatua puskatan leherrarazi du, herrialde boteretsu batzuek menperaturiko eragin esferetan. Biztanleriaren hazkuntza esanguratsua izan bada ere, planetako 109 estatuen arteko mundu merkataritza bere laudenera murriztu zen egungo gerra lehertu aurreko hamarkadan. Herrialde batzuen kanpo merkataritza erdiraino, herenera edo laudenera murriztu da.

Herrialde kolonialek euren berezko barne krisiak eta metropoliak eragiten dizkietenak jasaten dituzte. Atzo erdi askeak ziren nazio atzeratuak, esklabutzara murrizturik daude gaur (Abisinia, Albania, Txina...)²⁰. Herrialde inperialista bakoitzak gerraren bidez segurtatu behar ditu bere lehengai iturri propioak, hau da, lehengaiengatik borroka berri baten bidez. Euren aberastasuna handitzeko, kapitalistek mendeetako esfortzu luzea suntsitzen eta antzutzen dute.

Gainbeheran den kapitalismoaren mundua gainpopulaturik dago. Ehun errefuxiatu gehiago edo gutxiago onartzea erabaki behar izateak arazo handi bat sortzen dio Estatu Batuak bezalako botere mundial bati. Abiazioaren, telegrafoaren eta telefonoaren, irratiairen eta telebistaren aro honetan, herrialde batetik besterako bidaiak pasaporteek eta bisatuek gerarazten dituzte. Nazioarteko eta etxeko merkataritzaren gainbeheraren garaia chauvinismoaren eta bereziki antisemitismoaren intentsifikazio higuingarriaren garaia ere bada. Bere goraldi garaian, kapitalismoak herri judutarra bere ghettoetatik atera

20. Abisinia (Etiopia) eta Albania Italiak okupatu zituen 1935ean eta 1939an hurrenez hurren. Txina lehen aldiz 1931an eta gero 1937an inbaditu zuen Japoniak.

zuen, eta honetaz baliatu zen bere merkatal hedapena aurrera eramateko. Gaur, gainbeheran den gizarte kapitalistak, judduetaz garbi utzi nahi ditu bere zirrikitu guztiak; hamazazpi milioi pertsonak bi mila milioiren artean, hau da, %1ak baino gutxiagok, ezin dute leku bat aurkitu planetan. Lur eremu zabal ororen gainetik, gizakiarentzat zeruak ere konkistatu dituen teknikaren mirari guztien gainetik, burgesiak planeta hau kartzela goibel eta zikin bat bilakatzea lortu du.

LENIN ETA INPERIALISMOA

1914ko azaroaren 1ean, azken gerra inperialistaren hasieretan, Leninek honakoa idazten zuen: “Inperialismoak jokoan jarri du kultura europarraren zoria. Gerra honen ostean, iraultza arrakastatsuen kate bat sortzen ez bada, gerra gehiagok jarraituko dute; “gerra guztiekin amaituko duen gerraren” maitagarri-ipuina ipuin huts eta kaltegarria da...”. Langileok, gogora ezazue hau! Egungo gerra —bigarren gerra inperialista— ez da diktadore honen edo haren borondatea dela eta gertaturiko istripu bat. Duela urte asko iragarria izan zen. Bere jatorria nazioarteko kapitalismoaren interesen arteko kontraesanetan aurkitzen da ezinbestean. Herriaren opio gisa erabiliak diren ipuin ofizialen aurka, gerraren kausa nagusia eta beste gaitz sozial guztiena —langabeziarena, bizi kostearen igoerarena, faxismoarena, zapalketa kolonialarena— ekoizpen indarren jabego pribatua da, honetan oinarritzen den Estatu burgesarekin batera.

Egungo teknologiaren mailarekin eta langileen gaitasunekin erabat posiblea da gizateria osoaren garapen materiale-rako eta espiritualerako baldintza egokiak sortzea. Nahikoa litzateke herrialde bakoitzaren eta planeta osoaren bizitza ekonomikoa zuzenki, zientifikoki eta arrazionalki plan bateratu baten arabera antolatzea. Hala ere, gizartearen indar garrantzitsuenek *trusten*, hau da, kapitalisten talde isolatuen eskuetan jarraitzen duten bitartean; Estatu nazionalak talde horien eskuetan dagoen instrumentu otzan bat izaten jarraitzen duen bitartean, merkatuengatiko borrokak, lehengai iturriengatikoak, ezaugarri geroz eta suntsigarriagoak hartuko ditu.

Langile klase iraultzaileak bakarrik erauzi diezazkieke Estatuaren boterea eta ekonomiaren gaineko agintea talde inperialista harrapari horiei. Horixe da Leninen oharpenaren esangura, “iraultza arrakastatsuen kate” bat gabe gerra inperialista berri bat ezinbestekoa izango zela adierazi zuenean. Iragarpen eta promesa ezberdinek gertakarien froga pasatu behar izan dute. “Gerra guztiakin amaitzeko gerraren” ipuina gezurra dela erakutsi digute, eta Leninen iragarpena egia tragiko bat bilakatu da.

GERRAREN BEREHALAKO ARRAZOIAK

Gerra honen berehalako kausa inperio kolonial zahar eta aberatsen, Britainia Handiaren eta Frantziaren, eta esplotatzaile inperialista berantiarren, Alemaniaren eta Italiaren, arteko lehia da.

XIX. mendea botere inperialista zaharrenaren, Britainia Handiaren, hegemonia eztabaida ezinaren aroa izan zen. 1815etik 1914ra bitartean, eta ez eztanda militar isolaturik gabe, “bake britainiarra” gailendu zen. Ontziteria britainiarrak, munduko botereetsuenak, itsasoetako jendarme lana burutzen zuen. Baina aro hau iraganean geratu da. Joan den mendearen azkenean, Alemania, teknologia moderno batekin horniturik, Europako lehen postura aurreratzen hasi zen. Ozeanoaren beste aldean potentzia are handiago bat sortu zen, antzinako kolonia ingeles bat. 1914-18ko gerra ekarri zuen kontraesan ekonomikoa Britainia Handiaren eta Alemaniaren arteko lehia izan zen. Estatu Batuentzat, gerran izan zuten parte hartzeak prebentziozko izaera izan zen: ezin zuten onartu Alemaniak kontinente europarra bere uztarripean ezartzea.

Porrotak Alemania berriro ere erabateko ezintasunean honoratu zuen. Zatibanaturik, etsaiez inguratuta, gerraren kalte-ordainengatik odol hustuta, gerra zibil baten konbultsioek ahulduta, bazirudien ezingo zuela jada lehia horretan jarraitu, ez denbora luzez behinik behin, eta hori bertatik kanpo bertirako geratzen ez bazen. Kontinente europarrean, paper nagusia esku frantziarretara igaro zen behin-behinean. Ingalaterra

garailearentzat, gerraren emaitzak zorrak eta buruhausteak bakarrik zekartzan: bere agintepeko lurren independentzia gorakorra; mugimendu kolonial independentistak; bere itsas hegemoniaren galera; bere ontziteriaren garrantziaren murrizketa abiazioaren garapena zela eta.

Inertziaz, Ingalaterra munduko paper protagonista betetzen saiatu zen hala ere garaipenaren lehen urteetan. Estatu Batuekin zituen gatazkek itxura gero eta mehatxagarriagoak hartu zituzten. Bazirudien munduaren agintaritza eskuratu nahi zuten kandidatu anglosaxoniarrak liskartuko zituen gerra bat etor zitekeela. Hala ere, zolitasunez, Ingalaterrak bere burua konbentzitu behar izan zuen bere pisu ekonomiko espezifiko koloso transatlantikoa borrokatzeko ezegokia zenaren inguruan. Estatu Batuekin eginiko itsas berdintasunerako itunak jada galduriko itsas hegemoniaren ukapen formala suposatu zuen. Merkataritza askea aduana barreren ordeztatzea industria ingelesak mundu merkatuan izandako porrotaren aitortpen irekia izan zen. "Isolamendu bikainaren" politikaren ukapenak derrigorrezko zerbitzu militarren ezarpena ekarri zuen berarekin. Honela desagertu ziren bere tradizio loriatsu guztiak.

Bere pisu ekonomikoaren eta mundu mailan duen posizioaren arteko bateratasun falta du Frantziak ere, nahiz eta maila txikiagoan izan. Bere hegemonia europarra Alemaniaren ezerezteak eta Versaillesko Itunaren konbinaketa artifizialek sortutako testuinguru iragankor batean oinarritzen zen. Bere populazioaren tamaina eta hegemonia horren oinarri ekonomikoak ez ziren bat ere egokiak. Garaipenaren hipnosia aldendu zenean, indarren arteko erlazio erreala berriro ere azaleratu egin zen. Frantziak zirudiena baino ahulagoa zela erakutsi zuen, ez bere aliatuen aurrean bakarrik, baita bere etsaien aurrean ere. Babesa bilatzeko ahaleginetan, azken domeinu britainiarra bilakatzen amaitu zuen izatez.

Alemaniaren errekonferentzia, bere lehen mailako teknologian eta antolaketaarako gaitasunean oinarrituz, ezinbestekoa zen. Pentsatzen zena baino ere lehenago iritsi zen gainera, hein handi batean Ingalaterrak SESBen aurka, frantziarren gehiegizko eskakizunen aurka eta, urrutirago begira, Estatu Batuen aurka, emandako laguntza zela eta. Honelako

nazioarteko konbinaketak iraganean probetxuzkoak izan ziren Ingalaterra kapitalistarentzako behin baino gehiagotan, potentzia ukaezina zen garaian. Baina bere zahartzaroon, berak esnatutako mamu horiei ere aurre egiteko gai ez zela erakutsi zuen.

Teknika modernoago batekin hornituta, malgutasun eta ekoizpen gaitasun handiagoarekin, Alemania berriro ere Ingalaterra merkatu benetan garrantzitsuetatik kanpora botatzen hasi zen, bereziki Europaren Hego-ekialdetik eta Amerika Latinotik. Herrialde kapitalisten lehia hedapen unean zegoen mundu merkatu batean garatzen zen XIX. mende hartan ez bezala, gaur egun bataila ekonomikoaren esparrua hainbestearaino murriztu da ezen inperialistek ez baitute mundu merkatuaren ogi papurrengatik borroka egitea beste konponbiderik.

Munduaren zatiketa berri baten ekimena inperialismo alemaniarren eskutik etorri zen berriro ere, 1914ean bezala. Ez atzera ez aurrera, gobernu britainiarra gerratik kanpo mantentzen saiatu zen hasieran, besteren kontura kontzesioak eginez (Austria, Txekoslovakia). Baina politika honek gutxi iraun zuen. Britainia Handiaren “adiskidetasuna” fase taktiko labur bat izan zen Hitlerrentzat. Londresek jada Hitlerri honek eskuratuko zuela uste zuena baino gehiago emana zion. Municheko akordioak, Chamberlainek Alemaniarekin adiskidetasun iraunkor bat finkatzeko balioko zuela uste zuenak, bestalde, haustura azkarra ekarri zuen. Hitlerrek jada ezin zuen gehiago espero Londresen aldetik, Alemaniaren hedapen handiago batek Britainia Handiaren hil ala biziko zentroei eragin behar baitzien ezinbestean. Honela, Chamberlainek 1938ko urrian aldarrikatzen zuen “bakearen aro berria” hilabete gutxitara gerrarik beldurgarriena bilakatu zen.

ESTATU BATUAK

Britainia Handiak gerraren lehen hilabeteetatik blokeo batenpean dagoen Alemaniak mundu merkatuan hutsik utzi zituen posizioak betetzeko bere indar guztiak erabili dituen bitartean, Estatu Batuek Britainia Handia ia automatikoki ordezkatu dute. Munduko urrearen bi heren banku amerikarretan

gordeta daude. Falta den herena ere harantz zuzentzen da. Ingalaterraren munduko bankariaren papera iraganeko kontua da. Beste esparruetan ere, gauzak ez dihoazkio hobeto. Ingalaterrako armada eta merkatal marina galera izugarriak pairatzen ari diren bitartean, ontziola amerikarrek itsasontziak kantitate itzeletan eraikitzen dituzte, ontziteria ingelesaren eta japoniarraren gaineko gailentasun amerikarra segurtatuz. Estatu Batuak, zalantzarik gabe, *botere bikoitzeko eredu* bat hartzeko (jarraitzen dioten bi potentzien ontziteriek konbinaturik dutena baino botere handiagoa duen marina bat edukitzeko) prestatzen ari dira. Eraikuntza aeronautikoaren programa berriak Estatu Batuen gailentasuna segurtatu nahi du mundu guztiaren gainean.

Hala ere, Estatu Batuen, munduko potentzia kapitalistarik handienaren, sendotasun industrial, finantzario eta militarrik ez du bizitza ekonomiko amerikarraren loraldia bermatzen, alderantziz, bere sistema sozialaren krisiei izaera bereziki larri eta asaldaturia ematen die. Urretan dituen milaka milioi, edota dituen milioika langabetu, ezin dira erabili. Duela sei urte argitaraturiko Laugarren Internazionalaren tesietan, *Gerra eta Laugarren Internazionalan*, honakoa iragartzen zen: “AEBko kapitalismoak Alemania 1914ean gerrara bultzatu zuten arazo berdinarik ditu. Mundua jada banaturik dagoela? Banaketa berri bati ekin behar zaio beraz. Alemaniarentzat “Europa antolatzea” zen egin beharrekoa. Estatu Batuek mundua “antolatu” behar dute. Historiak kapitalismo amerikarraren sumendi erupzioarekin aurrez aurre ipintzen du Gi-zateria.”

*New Deal*a eta “auzoko onaren” politika²¹ korapilo honen konponbidea atzeratzeko azken saiakerak izan ziren, krisi soziala kontzesioen eta akordioen bitartez hobetu nahian. Politika honen porrotaren ostean, milaka milioi lurperatu ondoren, inperialismo amerikarrak ez zuen indarrezko metodoetara jotzea bestelako erremediorik. Aitzakiaren bat edota kontsigna bat edo bestea erabiliz, Estatu Batuek esku hartuko dute bataila

21. Franklin D. Roosevelt presidentek defendatutako politika, Amerika Latinoan eta Karibeetan inbasio armatu gehiago ez zutela egingo esanez. Bere politika “auzoko on” bat bezala jotatzea izango zen.

izugarri honetan euren mundu mailako nagusigoa mantentzeko. Kapitalismo amerikarraren eta bere etsaien arteko borroka-
ren unea eta modua ezezaguna da oraindik ere, baita Washing-
tonentzat ere agian. Japonekin gerra izateak Ozeano Bareko
“ezinbesteko espazio” gehiago lortzeko helburua izango luke.
Atlantikoko gerra bat, Alemaniaren aurka zuzendurik balego
ere, Britainia Handiaren oinordekotzagatiko borroka izango
litzateke.

Alemaniarrek aliatuen aurka garaipena lortzearen posibi-
litateak oinazetu egiten du Washington, amesgaizto bat baili-
tzan. Kontinente europarra eta bere kolonien baliabideak oina-
rrizat hartuta, arma fabrika eta ontziola guztiak bere eskura,
Alemania (bereziki Japoniarekin Ekialdearen inguruko akordio
bat egin ostean) arrisku hilgarria izango litzateke inperialismo
amerikarrentzat. Zelai europarretan orain borrokatzen diren
bataila titanikoak Alemaniaren eta Amerikaren arteko gudua
prestatzen ari dira. Frantzia eta Britainia Handia Atlantikoa-
ren alde honetan kapitalismo amerikarrak dituen posizio gotor-
tuak besterik ez dira. Lehen ministro britainiar batek esan
zuen bezala, Ingalaterraren mugak Rhinen badaude, kapitalis-
ta amerikarrek arrazoi guztiarekin esan dezakete Estatu Ba-
tuen mugak Tamesian daudela. Iritzi publikoa berehalako gerra
baterako indar biziz prestatzean, Washingtonek ez du haserre
noblerik aurrezten Finlandiaren, Danimarkaren, Norvegiaren,
Holandaren, Belgikaren... zoriaren inguruan. Danimarkaren oku-
pazioarekin ezustean Groenlandia “ikuspuntu geologiko” bate-
tik mendebaldeko hemisferioko eremu izatearen auzia planteat-
tu zen; zorioneko zoriagatik kriolita deposituak zituen eremu
honek, aluminioaren ekoizpenerako ezinbesteko produktua ber-
rau. Washingtonek Txina esklabizatua ere ez du ahazten, ezta
Filipinak babesgabeak ere, ezta India Holandar umezurtzak
edota itsaso zabalaren bideak ere. Honela, nazio zapalduetik
adeitasun filantropikoez eta kontsiderazio geologikoez, Estatu
Batuak gerrara bultzatzen dituzte.

Hala ere, indar armatu amerikarrek arrakastaz esku har-
tuko badute Frantzia eta Irla Britainiarrak sostengurako oi-
narri zurrin bezala hartzen badituzte bakarrik gertatuko da.
Frantzia okupatua izango balitz eta tropa alemaniarrak Ta-
mesian agertuko balira, indarren arteko erlazioa goitik behera

eraldatuko litzateke, Estatu Batuen kaltean. Gogoeta hauek guztiek Washington erritmoak azkartzera bultzatzen dute eta baita ondorengo galdera hau planteatzera ere: Ez ote zaigu momentu aproposa jada igaro?

Etxe Zuriaren posizio ofizialaren aurka isolazionista amerikarren protesta zaratatsuak pizten dira —inperialismo berberaren beste barietate bat hau—. Bere interesak batez ere kontinente amerikarrarekin, Australiarekin eta Ekialde Urrunarekin loturik dituen sektore kapitalistak, aliatuen porrotaren kasuan, Estatu Batuek automatikoki eta bere probetxurako ez Amerika Latinoaren monopolioa bakarrik, Kanadarena, Australiarena eta Zelanda Berriarena ere lortuko luketela kalkulatzeko dute. Txinari, India Holandarrei eta orokorrean Ekialdeari dagokionean, klase agintari amerikar osoaren kontentzimendua zera da, Japoniarekin epe laburrera gerra bat izatea halabeharrezkoa dela. Isolazionismoaren eta bakezaletasunaren mozorropean, burgesiaren itzal handiko sektore bat hedapen kontinental amerikarrerako programa bat lantzen ari da eta Japoniaren aurkako gerra bat prestatzen. Kalkulu honen arabera, munduaren gaineko aginteagatiko Alemaniaren aurkako gerra gerorako utzi behar da oraingoz. Norman Thomas bezalako pazifista burges txikiak eta bere adiskideak koru inperialista baten haur kantariak besterik ez dira.

Estatu Batuek gerran esku hartzearen aurkako gure borroka ez du zerikusirik isolazionismoarekin eta bakezaletasunarekin. Langileei modu irekian esaten diegu euren gobernu inperialistak herrialde hori gerrara eramango duela. Klase agintariaren barne liskarra gerran noiz sartzearen eta tiro nori lehenengo egitearen inguruko arazo bat besterik ez da. Egunkarietako artikuluekin eta ebazpen pazifistekin Estatu Batuak neutral mantentzera behartu daitezkeela pentsatzea uholde bat erratz batekin geldiarazten saiatzearen antzekoa da. Gerraren aurkako borroka serio batek inperialismoaren aurkako klase borroka dakar eta baita pazifismo burges txikiaren salaketa gupidagabea ere. Iraultzak bakarrik saihestu dezake burgesia amerikarrak bigarren gerra inperialistan esku hartzea edota hirugarrena hastea. Gainerako metodo guztiak berritsukeria edo inozokeria edota bien nahasketa bat besterik ez dira.

‘ABERRIAREN’ DEFENTSA

Duela ia ehun urte, Estatu nazionala oraindik ere faktore erlatiboki aurrerakoia zenean, *Manifestu Komunistak* langileek aberririk ez dutela aldarrikatu zuen. Hauen helburu bakarra mundu osoan zehar hedatuko litzatekeen langileen aberri baten eraketa da. XIX. mendearen amaieran, Estatu burgesa, bere ejertzitoekin eta aduana barrerekin, horizonte zabalagoak eskatzen dituzten ekoizpen indarren garapenerako oztoporik handiena bilakatu zen. Egun “aberrriaren” defentsan agertzen den sozialista batek Vendéeko²² nekazarien paper erreakzionario berbera jokatzeko du, hauek ordena feudala defendatzen baitzuten, hau da, euren kateak.

Azken urte eta baita hilabeteetan ere, munduak harriduraz ikusi du nolako erraztasunez desagertzen diren Estatu batzuk besteen atzetik Europako mapatik: Austria, Txekoslovakia, Albania, Polonia, Danimarka, Norvegia, Holanda, Belgika... Mapa politikoa ez zen sekula halako azkartasunez berregin, gerra napoleondarretan izan ezik. Garai hartan jada gauditurik zegoen Estatu feudalen ingurukoa zen auzia, Estatu nazional burgesari euren lekua utzi behar baitzioten. Egun gauditurik dauden Estatu burgesen ingurukoa da auzia, herrien federazio sozialistari euren lekua utzi behar baitziote. Katea, beti bezala, bere alde ahulenetik apurtzen da. Gaizkile imperialisten borroka *trusten* eta *cartelen* lehia ankerrak artisau txikiei eta merkataria independenteei uzten dien bezain espazio gutxi uzten die Estatu independente txikien existentziari.

Alemaniak, duen posizio estrategikoa duela eta, probetxuzkoagoa dela jotzen du bere etsai garrantzitsuenei Estatu neutral txikien bitartez erasotzea. Bestalde, Britainia Handiak eta Frantziak probetxuzkoagoa dela uste dute Estatu txikien neutritasunarekin estaltzea eta Alemaniak bere kolpeen bitartez hauek aliatu “demokratikoen” alderantz bultzatzen uztea. Baina oinarritzeko auzia ez da aldatzen desberdintasun estrategiko hauengatik. Herrialde satelite txikiak hauts bihurtzen

22. Vendée frantziar estatuko hego-mendebaldean aurkitzen den probintzia bat da, Frantziako Iraultzan zehar mugimendu kontrairaultzailearen oinarria izan zena.

dira potentzia inperialista handien gupil horzdunen artean. Aberri handien “defentsak” dozena bat aberri txikiren edo er-tainen suntsiketa exijitzen du.

Baina potentzia handietan ere, burgesiak ez du bere aberriaren defentsa bere eginkizuntzat hartzen inola ere, bai ordea bere merkatuena, bere atzerriko kontzesioena, bere lehen-gai iturriena eta eragin esparruena. Burgesiak ez du inoiz aberria bere horretan defendatzen. Burgesek jabego pribatua, euren pribilejioak eta irabaziak defendatzen dituzte. Balore sakratu hauek mehatxatuak diren momentuan, burgesiak ez du zalantzarik izaten ezkortasunera errekurritzeko. Horrela gertatu zen burgesia errusiarrarekin, bere semeek munduko ejertzito guztietan egin baitzuten borroka euren antzinako aberriaren aurka Urriko Iraultzaren ostean, eta egun berriro ere berdina egiteko prest daude. Bere kapitala salbatzeko, burgesia espainiarrak Hitlerren eta Mussoliniren laguntza militarra bilatu zuen bere herriaren aurka erabiltzeko. Burgesia norvegiarrak euren herrialdea inbaditzen lagundu zion Hitlerri. Honela izan da beti eta honela izango da.

Abertzaletasun ofizialak klase esplotatzailearen interesak mozorrotzeko balio du, eta langile kontzienteek erdeinuz arbuiatzen dute. Ez dute aberri burgesa defendatzen, euren herrialdeko eta mundu osoko langileen eta zapalduen interesak baizik. Laugarren Internazionalaren tesiek diote:

“Defentsa nazionalaren” kontsigna erreakzionarioaren aurka beharrezkoa da Estatu nazionalaren suntsiketa iraultzailearen kontsignarekin aurka egitea. Europa kapitalistaren erokeriari Europako Estatu Batu Sozialisten programarekin egin behar zaio aurka, munduko Estatu Batu Sozialistetarako abiapuntu gisa.”

DEMOKRAZIAREN ALDEKO BORROKA'

Faxismoaren aurkako demokraziaren gerra baten esloganak ere ez du faltsutasun gutxiago. Langileek gobernu britainiarrak Hitlerri eta honen borrhero taldeari boterea konkistatzen lagundu ziola ahaztu izan balute bezala! Demokrazia inperialistak izatez historiako oligarkiarik handienak dira. Ingalaterrak,

Frantziak, Holandak, Belgikak, euren indarra herri kolonialen esklabutzari zor diote. Estatu Batuetan demokrazia kontinente handiko aberastasun izugarrien jabeakuntzan oinarritzen da. "Demokrazia" horien esfortzu guztiak euren posizio pribilegiatuak mantentzera zuzendurik daude. Euren zama belikoen zati esanguratsu bat euren kolonien gainean iraultzen dute demokrazia inperialistek. Esklaboak euren odola eta urrea euren jabeei ematera beharturik daude, euren jabeek esklabo tratulariak izaten jarrai dezaten. Koloniak ez dituzten demokrazia kapitalista txikiak inperio handien sateliteak dira, irabazi kolonialen zati bat xurgatzen dutelarik. Estatu horietako klase agintariak prest daude edozein momentutan demokraziari uko egiteko, horrek euren pribilegioak mantentzea esan nahi badu.

Norvegia txikiaren kasuan, gainbeheran den demokraziaren barne mekanismoak argi eta garbi agertu dira mundu osoaren aurrean. Burgesia norvegiarrak gobernu sozialdemokrata bat eta polizia, epaile eta ofizial talde faxistak erabili zituen aldi berean. Lehen asaldurak iritsi zirenean, buru demokratiakoak ebaki zituzten, eta burokrazia faxista, Hitlerren hizkuntza berean azkarki hitz egin zuena, herrialdearen jaun eta jabe bilakatu zen. Aldagai nazional ezberdinekin, esperimentu berbera lehenago ere burutu zen Italian, Alemanian, Austrian, Polonian, Txekoslovakian eta beste Estatuetan. Arrisku umeetan, burgesiak ez du inoiz zalantzarik izan bere egiazko dominazio aparatuari aurreiritzi demokratikoak kentzeko, kapital finantzarioaren instrumentu zuzen bat besterik ez dela erakutsiz. Itsu burugogorak bakarrik dira jeneral eta almirante britainiarrak eta frantziarrak faxismoaren aurkako bataila bat burutzen ari direla sinesteko gai!

Gerrak ez du demokraziak diktadura erreakzionario bilakatzeko prozesua moztu, hau bere azkeneko ondorioetaraino eramaten ari da bestalde.

Herrialde bakoitzaren barnean eta mundu-eskenatokian, gerra talde eta erakunde erreakzionarioenak indartzen ari dira berehala. Estatu Nagusiak, konspirazio bonapartisten habiak; soldatapeko abertzaleen bandak; eliza guztiak, edozein sinesmenekoak direla ere, argitara irteten dira berehala. Aita Santuaren gortea, oskurantismoaren eta gizonen arteko

gorrotoaren fokua, denek limurtua izaten ari da, bereziki Roosevelt presidente protestanteak. Gainbehera materialak eta espiritualak zapalketa poliziala eta opio erlijiosoaren kontsumo handiagoa ekartzen du beti berarekin.

Erregimen totalitarioen abantailetatik onurak atera nahian, demokrazia inperialistek euren defentsa aktibitateei ekiten diote langile klasearen aurkako atentatuak handituz eta erakunde iraultzaileak jazarriz. Gerraren arriskuak lehen, eta gerrak berak orain, aitzakia bezala balio die euren helburu nagusia lortzeko: barneko etsaia zapaltzea. Burgesiak etenik gabe jarraitzen dio bere aruari: “Etsaia etxean dago”.

Beti bezala, ahulenak dira gehien sufritzen dutenak. Egungo triskantza honetan ahulenak herrialde guztietako kontaezinezko errefuxiatuak dira, eta hauen artean errefuxiatu iraultzaile asko daude. Burgesiaren abertzaletasuna atzerritar babesgabei ematen dien tratu ankerrean islatzen da bereziki. Gerrako presoentzako kontzentrazio esparruak eraiki aurretik, demokrazia guztiek jada eraiki zituzten iraultzaile erbesterauentzako kontzentrazio esparruak. Mundu osoko gobernuak, bereziki SESBeko gobernuak, aro honetako orririk beltzena idatzi dute errefuxiatuei, erbesterauei, etxerik ez zuten haiei eman dieten tratuarekin. Gure agurrik beroena bidaltzen diegu presoiei eta jazarriei eta konfiantza gal ez dezatela animatzen ditugu! Kartzeletatik eta kontzentrazio esparru kapitalistetatik aterako dira biharko Europaren eta munduaren buruzagi gehienak!

NAZIEN KONTSIGNA BELIKOAK

Hitlerren ofizialen kontsignek, orokorrean, ez dute aztertuak izatea merezi. “Batasun nazionalaren” aldeko borrokak aspalditik erakutsi du gezurra dela, Hitler Estatu nazionala Estatu multinazional ari baita bilakatzen era behartuan, gainerako herrien askatasuna eta batasuna zapalduz. “Ezinbesteko espazioaren” aldeko borroka hedapen inperialistarentzako mozorro bat besterik ez da, hau da, anexo eta harrapaketa politika bantentzako mozorro bat ez besterik. Hedapen honen arrazagatiko justifikazioa gezurra besterik ez da; nazionalsozialismoak

arrazaren inguruko usteak kontsiderazio estrategikoen araberatik aldatzen ditu. Propaganda naziaren elementu egonkorrenetarikoa antisemitismoa da, Hitlerrek honi bertsio zoologiko bat eman diolarik zakurraren zaunkan eta txerriaren kurrinkan “arrazaren” eta “odolaren” egiazko lengoia aurkitu dituenan. Engelsek ez zion antisemitismoari “inozen sozialismoa” alferrik deitzen! Faltsua ez den faxismoaren ezaugarri bakarra bere botere, aginte eta harrapaketa nahia da. Faxismoa kultura inperialistak destilaturiko produktu kimikoki purua da.

Bere garaian Hitler gurutzatu antiboltxebike bat bailitzan agurtu zuten gobernu demokratikoek, infernuaren sako netik ihes egindako Satan antzeko baten itxuran aurkeztu nahi dute orain, tratatuen, mugen, legeen eta arauen santutasuna bortxatzen duena. Hitlerrengatik ez balitz, mundu kapitalista lorategi baten gisa loratuko litzateke. Zein gezur doilorra! Epileptiko alemaniar hau, garezuraren barneko kalkulagailu batekin eta botere mugagabeekin horniturik dagoena, ez zen ez zerutik erori ez infernutik sortu: kapitalismoaren indar suntsitzaile guztien pertsonifikazioa besterik ez da. Herri ahulenek Gengis Khan eta Tamerlan Jainkoaren haserrea bailiran ikusten zituzten bezala, nahiz eta hauek artzain tribu guztiek bazkalekuak lortzeko eta eskualderik aberatsenetan harrapakeriak burutzeko zuten beharraren adierazpena besterik ez izan errealitatean, Hitlerrek, era honetan, inperio kolonial zaharren zutabeak ere dardarrean ipintzean, botereगतiko borondate inperialistari adierazpenik amaituena ematen dio. Hitlerren bitartez, mundu-kapitalismoak, irteerarik ez aurkitzeak eraman duen etsipenean, laban zorrotz bat sartu du bere errailetan.

Bigarren gerra inperialistako harakinek ez dute Hitler euren bekatuak garbituko dituen sakrifiziorako abere bilakatzeko lortuko.

Egungo buruzagi guztiek proletalgoaren epaitegiaren aurrean erantzungo dute. Hitler akusatuen aulkian lehen lekua betetzera mugatuko da.

ALEMANIAREN NAGUSIGOA

Gerraren emaitza edozein dela ere, Alemaniaren nagusigoa ar- giro azaldu da. Hitlerrek ez du “arma berri” sekreturik, zalan- tzarik gabe. Baina armamentu ezberdinen hobekuntzak eta berauen koordinazio eta konbinaketa egokiak —industria guz- tiz arrazionalizatu batean oinarriturik— pisu izugarria eman- ten dio militarismo alemaniarrari. Dinamika militarra estuki loturik dago erregimen totalitario baten berezko ezaugarriei: batasun borondatea, ekimen kontzentratua, prestakuntzen se- kretua, exekuzioaren azkartasuna. Versallesko bakeak, gaine- ra, laguntza ahula eman zien aliatuei. Hamabost urtetako desarme alemaniarraren ostean, Hitlerrek ejertzito berri bat eraikitzen hasi behar izan zuen ezerezetik, horrixe esker bere ejertzittoa errutinarik eta teknika eta material zaharkiturik gabeko ejertzittoa delarik. Bere tropen entrenamendu taktikoa teknologiarik modernoenean oinarritzen diren ideietan inspi- raturik dago. Printzipioz, Estatu Batuek bakarrik dirudite Alemania gainditzeko gai, euren makineria hilgarriaren per- fektzioagatik.

Frantziaren eta Britainia Handiaren ahultasunak ez du ezustekorik eragiten. Laugarren Internazionalaren tesiek (1934) jada esaten zuten: “Nazioen Elkartearen kolapsoa estuki lotu- rik dago kontinente europarraren gaineko hegemonia fran- tziarraren kolapsoaren hasierarekin.” Dokumentu programa- tiko hark zera aldarrikatzen zuen baita ere, “Ingalaterra bote- retsuak bere xedeak inposatzeko geroz eta gaitasun gutxiago” zuela, burgesia britainiarra “bere inperioaren desintegrazioa- rengatik, Indiako mugimendu iraultzaileagatik, Txinan zuen posizioaren ezegonkortasunagatik, ikaraturik” zegoela. Lau- garren Internazionalaren gaitasuna bere programak gertaka- ri handien froga pasatzeko duen gaitasunean oinarritzen da.

Industria ingelesa eta frantziarra atzeraturik geratu dira bai teknikoki bai antolaketaren aldetik super-irabazi ko- lonialen fluxu seguruagatik. Honi, alderdi sozialisten eta sin- dikatuen “demokraziaren defentsarako” deiak egoera politiko pribilegiatu bat gehitu zien burgesia ingelesari eta frantzia- rrari. Baina pribilegioek inertzia eta gelditasuna inkubatzen dute beti. Gaurko Alemaniak Frantziaren eta Ingalaterraren

aurrean halako abantaila izugarria erakusten badu, horren ardurarik handiena demokraziaren defendatzaile diren sozia-labertzaleek dute, Ingalaterrako eta Frantziako langileria iraultza sozialista apropos baten bitartez bere atrofiatik ateratzea saihestu baitzuten.

'BAKE PROGRAMA'

Euren esklabotasunaren truke, mendeetan zehar "bake alemaniarra" ezarriko duela Europan zin egiten die Hitlerrek herri guztiei. Zein ameskeria hutsala! "Bake britainiarrak", Napoleonen aurkako garaipenaren ostean, mende bakar bat iraun ahal izan zuen, ez mila urte, eta hau Ingalaterra teknologia berri baten eta ekoizpen sistema aurrerakoi baten aitzindaria zelako bakarrik. Bere industriaren boterea handia izanik ere, egungo Alemaniak, bere etsaiek bezala, heriotzara kondentaturik dagoen sistema sozial baten bandera defendatzen du. Hitlerren garaipenak ez du bakea esan nahiko, mundu mailako talka odoltsuen sail berri baten hasiera baizik. Inperio britainiarrarekin amaituko balu, Frantzia Bohemiaren eta Moraviaren egoerara murriztuko balu, kontinente europarra eta bere koloniak menperatzea lortuko balu, Alemania, zalantzarik gabe, munduko lehen potentzia bilakatuko litzateke. Berarekin batera, Italia, nahiz eta ez denbora askorako, Mediterraneoaren kontrolaz jabetu liteke. Baina lehen potentzia izateak ez du potentzia bakarra izatea esan nahi. "Ezinbesteko espazioagatiko" borroka fase berri batean sartuko litzateke.

Japoniak ezarri nahi duen "ordena berria" garaipen alemaniar baten behin behinekotasunean oinarritzen da eta aginte japoniarra kontinente asiarraren zatirik handienean zehar zabaltzea du bere helburu. Sobiet Batasuna, era honetan, Europa germanizatu baten eta Asia niponizatu baten hormen artean geratuko litzateke. Hiru Amerikak, eta Australia eta Zelanda Berria, Estatu Batuen kontrolera igaroko lirateke. Inperio italiar probintziarra gehitzen badugu, mundua bost "konpartimentutan" banaturik geratuko litzateke behin-behinean. Baina inperialismoak, bere izaeragatik, ihes egiten dio botere banaketari. Amerikaren aurka eskuak libre izateko, Hitlerrek

kontu-garbiketa odoltsu bat egin beharko luke bere atzoko lagunekin, Stalinekin eta Mussolinirekin. Japonia eta Estatu Batuak ezingo lirатеke borroka berri honen ikusle pasiboak izan. Hirugarren gerra inperialistaren protagonistak ez lirатеke Estatu nazionalak izango, ezta lehengo motako inperioak ere, kontinente osoak baizik... Gerra honetako Hitlerren garaipena, mila urteko “bake alemaniarra” bilakatzetik urrun, hamarkada askotako edo mende askotako kaos odoltsu bilakatu da.

Baina aliatuen garaipenak ez lituzke ondorio hobek izango. Frantzia garaile batek bere egoera potentzia handi bat bezala berrezarri nahi badu, Alemaniaren zatiketaren, Habsburgotarren errestaurazioaren eta Europaren balkanizazioaren bitartez bakarrik lortuko luke. Britainia Handiak, auzi europarretan paper zuzendari bat jokatu nahiko balu, alde batetik Frantziaren eta Alemaniaren arteko kontraesanen jokoa eta beste aldetik Europaren eta Amerikaren artekoa berpiztuz bakarrik lortuko luke. Honela Versaillesko bakearen edizio zuzendua eta hamar aldiz okerragoa izango genuke, Europaren organismo ahulduaren gainean eragin erabat tamalgarriak izango lituzkeena. Honi gehitu behar zaio oso gertagaitza dela aliatuek garaipena beren kabuz, laguntza amerikarrik gabe, lortzea eta oraingo honetan Estatu Batuek aurreko gerran baino prezio altuagoa eskatuko luketela gerran parte hartzeagatik. Europa ahula, akitua —Herbert Hooverren filantropiaren helburua— bere salbatzaile transatlantikoaren lur jotako zordun bilakatuko litzateke.

Azkenik, dagoen aldagai gertagaitzena kontutan hartzen badugu, hau da, leher eginda dauden etsaiak bake itun batera iristea, “ez garailerik, ez garaiturik” formula bakezalea erabiliz, horrek gerra aurreko nazioarteko kaosaren berrezarpena suposatuko luke, baina oraingoan hondakin odoltsuen, abailduraren eta ikusezinaren gainean sostengatua. Epe laburrean, antagonismo guztiak berriro ere bortizkeria lehergarriarekin azaleratuko lirатеke eta nazioarteko konbultsio berriak sortuko lirатеke.

Europako federazio demokratiko bat sortzeko aliatuek eginiko promesa gezur bakezale guztien artetik begi-bistakoa da. Estatuak ez da abstrakzio bat, kapital monopolistaren

instrumentu bat baizik. Bankuak eta *trustak* herriaren mesedetan desjabetzen ez diren bitartean, Estatuaren arteko borroka *trusten* arteko borroka bezain ekidin ezina izango da. Estatu boteretsuenek euren indarrezko posiziotik eratoritzen diren abantailei euren borondatez uko egitea *trusten* arteko borondatezko kapital banaketa baten antzeko utopia irrigarria da. Jabego kapitalista mantentzen den bitartean, “federazio” demokratiko bat Nazioen Elkartearen errepikapen okerrago bat besterik ez litzateke izango, bere bizio guztiekin baina ilusio bakar bat ere gabe.

Alferrik ari dira ugazaba inperialistak iraganeko hamarkaden esperientziak erabat deskreditatu zituen konponbideen programa bat berpizten saiatzen. Alferrik erditzen dituzte hauen morroi burges txikiek aspaldian euren karikatura propio bilakatu ziren itxaropen bakezaleak. Langile aurreratuek ez diete utziko eurak engainatzen. Bakea ez dute egun gerran dauden indarrek ezarriko. Langileek eta soldaduek bakarrik diktatu dezakete beraien bake programa!

SESBEN DEFENTSA

Mundu gerrari hasiera eman eta berehala herri poloniarraren esklabotzan amaitu zuen Stalinen eta Hitlerren arteko aliantza, SESBen ahultasunaren eta Kremlinak Hitlerren aurrean sentitzen zuen izuaren emaitza izan zen. Ahultasun horren ardura Kremlinaren gain ipini behar da bakar bakarrik; bere barne politikaren gain, kasta agintariaren eta herriaren arteko amildegia ireki baitzuen, eta bere kanpo politikaren gain, munduko iraultzaren interesak frakzio stalinistaren mesedetan sakrifikatu baitzituen.

Ekialdeko Polonia hartzea —Hitlerrekiko aliantzaren promesa eta aldi berean honen aurkako bermea— Mendebaldeko Ukrainako eta mendebaldeko Errusia Zuriko jabego erdi feudalaren eta kapitalistaren nazionalizazioak lagundurik etorri zen. Hori gabe, Kremlinak ezingo zituzkeen SESBek okupaturiko lurak bereganatu. Urriko Iraultza urkatuak eta profanatuak, oraindik ere bizirik zegoenaren seinaleak ematen zituen.

Finlandian, Kremlinak ezin izan zuen halako eraldaketa sozialik burutu. “Finlandiaren defentsan” iritzi publiko mundialak eginiko mobilizazio inperialista; Ingalaterraren eta Frantziaren esku hartze zuzen baten mehatxua; tropa frantziarrak eta britainiarrak lur eskandinaviarretan agertu aurretik Danimarkaren eta Norvegiaren jabe bilakatzeko Hitlerren pazientzia eza dira Kremlinan Finlandiaren sobietartzeari uko egitera eta behar-beharrezko zenbait posizio estrategiko bakarrik okupatzera mugatzera bultzatu zuten arrazoiak.

Finlandiaren inbasioak gaitzespen sakona eragin zuen herri sobietarrean, zalantzarik gabe. Hala ere, langile aurretatuenek ulertu zuten Kremlinek oligarkiaren krimenek ez dutela SESBen existentziaren auzia eguneko ordenatik ezabatzea justifikatzen. Gerra mundialean garaitua izango balitz, ez luke burokrazia totalitarioaren erorketa bakarrik adieraziko, jabetza forma berrien deuseztapena, ekonomia planifikatuaren lehen esperimenduaren gainbehera eta herrialde oso bat kolonia bilakatzera ere esan nahiko luke; hau da, inperialismoa baliabide natural itzelez jabetzea adieraziko luke, hirugarren mundu gerraraino arnasa hartzen lagunduko lioketena. Ez SESBeko herriek ez munduko langile klaseak ez du interesik halako emaitzarik gerta dadin.

SESBen aurkako erresistentzia finlandiarra, bere heroismo osoarekin, independentzia nazionalaren defentsaren aldeko ekintza bat besterik ez zen izan, Alemaniaren aurkako Norvegiaren erresistentzia bezala. Helsinkiko gobernua hala ulertu zuen, SESBen aurrean kapitulatzea Finlandia Ingalaterraren eta Frantziaren base militar bilakatzera baino nahiago izan zuenean. Nazioen autodeterminaziorako eskubidea erabat onartzen badugu ere, horrek ez du kentzen gaurko gerra honen bilakabidean honek harri kozkor batek baino balio gehiago ez izatea. Gure politikaren lerro nagusiak oinarrizko faktoreen arabera determinatu behar ditugu eta ez hamargarren ordenako faktoreen arabera. Laugarren Internazionalako tesiek diote: “Defentsa nazionalaren kontzeptuak, bereziki demokraziaren defentsaren ideiarekin bat egiten duenean, erraz engaina ditzake herrialde txiki eta neutraletako langileak (Suitza, Belgika hein batean, herrialde eskandinaviarrak...). Suitzako herrixka galdu bateko burges batek bakarrik, hil arte ere asperrazterainoko

batek (Robert Grimmen antzekoren batek), pentsa dezake benetan bere herrialdea borrokara bul-tzatuko lukeen mundu gerra batek independentzia suitzarra duela helburu”.

Hitz hauek esangura berezia hartzen dute orain. Ejertzito Gorriak Finlandia inbaditu izana bezalako gertakari taktikoak aipatuz, SESBen defentsan estrategia proletario bat determina daitekeela uste duten pseudoiraultzaile burges txiki horiek ez daude Robert Grimm sozialabertzalea baino maila altuagoan.

Nazioarteko burgesiak gerra errusiar-finlandiarraren aurka jaurti zuen kanpaina adierazgarria izan zen bere ahobatekotasunagatik eta bere suminduragatik. Kremlinaren aurreko azpikeriak eta bortizkeriak ez zuen burgesiaren haserretik sortu, munduaren historia osoa azpikeriaz eta bortizkeriaz josituta baitago. Bere beldurra eta haserrea Ejertzito Gorriak ekialdeko Polonian eragin zuen antzeko aldaketa sozial bat Finlandian gertatzeko aukera zegoela ikusi eta gero bakarrik agertu ziren. Hemen bai, jabego kapitalistaren aurkako mehatxu konkretu bat agertzen zen. Kanpaina antisobietarrak, klase izaera argia zuenak, berriro ere agerian utzi zuen SESBek, Urriko Iraultzak ezarritako oinarriengatik, burokraziaren existentzia ere azken batean oinarri hauek baldintzaturik dagoelarik, langile Estatu bat izaten jarraitzen duela, eta mundu osoko burgesiak mehatxu beldurgarri bat bezala ikusten duela. Burgesiaren eta SESBen arteko noizean behingo akordioek ez dute honako errealitate hau aldatzen, hau da, “maila historikotan, munduko inperialismoaren eta Sobiet Batasunaren arteko antagonismoa askoz ere sakonagoa dela herrialde kapitalistak euren artean liskartzen dituzten edozein antagonismo baino”.

Erradikal burges txiki asko, atzo Sobiet Batasuna faxismoaren aurkako indar “demokratikoan” aliantza bat eratzeko bizkar hezur bezala ikusteko prest zeuden horiek, bat-batean, euren herrialdeak Hitlerrek mehatxaturik ikustean, Moskuk eurei laguntzeko behatzik ere ez zuela mugitu, politika inperialista bat duela eta SESBen eta Estatu faxisten artean desberdintasunik ez dagoela konturatu dira.

Gezurra! —erantzungo diete langile kontziente guztiek—. Bada desberdintasun bat, noski. Burgesiak desberdintasun sozial hau hobeto eta sakonago ulertzen du hitzontzi erradikalizatuek baino. Dударik gabe, ekoizpen baliabideen nazionalizazioak,

herrialde bakar batean eta herrialde atzeratu batean, ez du sozialismoaren eraikuntza bermatzen. Baina gai da horretarako aurrebaldintzak ezartzeko; ekoizpen indarren garapen planifikatua finkatzeko. Masen ongizatea sortzen ez duela argudiatuz ekoizpen indarren nazionalizazioaz ez arduratzea, hormarik eta sabairik gabe bizi ezin delako granitozko zimenduen eraikuntza kritikatzearen antzekoa da. Langile kontzienteak badaki bere askapen osoaren aldeko borroka arrakastatsu bat pentsaezina dela jada lorturiko konkistak defendatu gabe, hauek xumeak izanik ere. Derrigortasun handiagoa du, beraz, ekonomia planifikatua bezalako konkista itzel bat defendatzeak erlazio kapitalisten berrezarpenari aurre egiteko. Irabazitako posizioak defendatzen ez dakitenek ezingo dituzte posizio berriak konkistatu.

Laugarren Internazionalak, klase borroka iraultzaileen baliabideen bitartez bakarrik defendatuko du SESB. Langilei Estatuaren klase izaera —inperialista, koloniala, langilea— ulertzen erakustea, elkar gurutzatzen diren berauen erlazio elkarrenergile eta barne kontraesanekin batera, langileek egoera bakoitzean ondorio praktiko zuzenak ateratzeko modu bakarra da. Moskuko oligarkiaren aurka kuartelik gabeko bataila mantentzen duen bitartean, Laugarren Internazionalak, bere indar guztiekin, uko egiten dio inperialismoari SESBen aurka lagun diezaiokeen edozein politika bultzatzeari.

SESBen defentsak printzipioz bat egiten du iraultza proletario mundialaren prestaketarekin. Herrialde bakar bateko sozialismoaren teoria, stalinismo ezjakin eta erreakzionarioaren munstro hori, erabat arbuiatzen dugu. SESBek iraultza mundialaren igaroarekin bakarrik izango du erabateko sozialista bezala agertzeko aukera. Baina iraultza mundialak Kremlinako oligarkiaren erorketa exijitzen du.

STALINEN FRAKZIO BONAPARTISTAREN UZKAILTZE IRAULTZAILEAREN ALDE

Bost urtetan zehar “demokraziak” limurtu ondoren, Kremli-
nak zinismo osoarekin erakutsi zuen munduko proletalgoari
dion erdeinua Hitlerrekin aliantza bat burutu zuenean eta honi

herri poloniarra deuseztatzen lagundu zionean; lotsarik gabe-ko chauvinismoz, Kremlinak asebetarik zegoela zirudien Finlandiaren inbasioaren bezperetan, ondorengo borrokan ezgaitasun militar lotsagarriagoa erakutsiz; Kremlinak herri finlandiarra kapitalistengandik “askatzeko” promesa zaratatsuak egiten zituen eta jarraian koldarki kapitulatu zuen Hitlerren aurrean. Horixe da erregimen stalinistaren balantzea Historiaren ordu kritiko hauetan.

Moskuko prozesuek jada erakutsi zuten oligarkia totalitarioa herrialdearen garapenarentzako oztopo esanguratsua bilakatu zela. Bizitza ekonomikoaren behar konplexu eta hazkorren maila geroz eta altuagoak ezin du itotze burokratikorik jasan. Hala ere, bizkarroi banda hori ez dago kontzesiorik egiteko prest. Bere pribilegioak mantentzeko borroka horretan herrialdean dagoen hoberena suntsitzeko ere gai dira. Ez da pentsatu behar hiru iraultzatan parte hartu zuen herri bat bat-batean inozo bilakatu denik. Ezezturik eta noraezean dago, baina beatu eta pentsatu egiten du. Egunero, burokraziak, bere botere arbitrarioarekin, bere zapalkuntzarekin eta harrapakeriarekin, bere mendeku gose odoltsuarekin, bere existentzia gogorarazten die. Gosez erdi hilik dauden langileek eta etxalde kolektibizatueta nekezariiek gorrotoz xuxurlatzen dituzte komisario diruzaleen gutizia garestiak. Stalinen hirurogeigarren urtebetetzea ospatzeko, Uraletako langileak urte eta erdian “herrien aita” gorrotatuaren erretratu erraldoi bat egitera behartuak izan ziren: harribixziko erretratu bat, Jerjes pertsiarren edota Kleopatra egiptoarraren merezimendukoa. Halako aberrazioak egiten dituen erregimen batek halabeharrez masen gorrotoa sustatzen du.

Kanpo politika bat dator barne politikarekin. Kremlin-ko gobernua langileen egiazko interesak islatuko balitu; Komintern iraultza mundialaren zerbitzura egongo balitz, Finlandia txikiko masa herrikoiek SESBen aldera egingo zuketean eta Ejertzito Gorriaren inbasioa ez zen beharrezkoa izango edota herri finlandiarrak askapen iraultzailerako ekintza bat bezala ikusiko zukeen. Baina Kremlinaren aurreko politikak langile eta nekazari finlandiarrak SESBetik bereizi zituen. Hitlerrek, inbaditzen dituen herrialde neutral guztietan “bosgarren zutabea” deiturikoaren laguntza eskura izan dezake,

Stalinek bestalde ez zuen defendatzaile bakar bat ere aurkitu Finlandian, 1918 urteko matxinadaren tradizioa edota bizitza luzeko Alderdi Komunista finlandiar bat bertan aurkitzen baziren ere. Testuinguru horretan, Ejertzito Gorriaren inbasioak bortizkeria militar zuzen eta argi baten ezaugarri guztiak jaso zituen. Bortizkeria horren gaineko ardura osoa Moskuren oligarkiak du erabat.

Gerra erregimen batentzako froga erabakigarria da. Gerraren lehen zatiaren ondorio bezala, SESBen nazioarteko posizioak, itxurazko arrakastak izanik ere, okerrera egin du jada. Moskuk irabazi dituen sostengu estrategikoak hirugarren ordenako faktore bat besterik ez dira izango gatazka mundialean. Bitartean, Alemania Poloniaren zatirik garrantzitsuenarekin eta industrializatuenarekin geratu da eta SES-Bekin muga komun bat eskuratu du, hau da, Ekialderako pasabide bat. Eskandinaviatik barrena, Alemaniak itsaso Baltikoa menperatzen du, Finlandiako golkoa irmoki itxitako botila lepo bat bilakatuz. Finlandia etsitua Hitlerren kontrol zuzenpean dago. Estatu neutral ahulak eduki beharrean, SESBek orain Alemania boteretsua du Leningradoko mugaz bestalde. Stalinek burua moztutako Ejertzito Gorriaren ahultasuna ikuskizun bat bilakatu da munduarentzat, eta aldi berean, nazionalismo zentrifugorako joerak intentsifikatu egin dira SES-Ben. Kremlinako buruzagien izen ona murriztu egin da. Alemania Ekialdetik eta Japonia Mendebaldetik askoz ere lasaia go sentitzen dira Kremlinaren abentura finlandiarraren ostean.

Bere armategi murriztean, Stalinek erantzun bakar bat besterik ezin izan zuen aurkitu egoera kezkarri honentzat: Vorochilov kaiku handiago batengatik ordezkatzeara, Timoshenkorengatik²³. Beti bezala, jukutria hauen helburua herriaren eta ejertzitoaren gorrotoa desbideratzea da, desgrazia horien egiazko arduraduna jo puntutzat har ez dezaten, eta bere leialtasuna, bere erdipurditasunagatik, bermaturik duen indibiduo bat ejertzitoaren buru ipintzea. Kremlina ezkortasunaren

23. Stalinen laguna 1910etik. Ekialdeko Poloniaren okupazioa zuzendu zuen 1939an eta operazio batzuk Finlandian (1939-40). 1940an mariskal izendatua, Vorochilov ordezkatu zuen Defentsa ministroaren karguan.

habi bat izatera itzuli da. Honen suntsipenak bakarrik berma dezake SESBen segurtasuna.

Moskun agintzen duen kastaren uzkaitze iraultzailea, boteretik kentzea, prestatzea Laugarren Internazionalaren eginkizun garrantzitsuenetariko bat da. Ez da eginkizun erraza edo samurra. Heroismoa eta sakrifizioa exijitzen ditu. Hala ere, gizateria sartu berri den konbultsio handien aro honek kolpe kolpe joko du Kremlinako oligarkia, bere aparatu totalitarioa suntsituko du, langile masek euren indarrengan duten konfiantza handitu egingo da eta honek Laugarren Internazionalaren sekzio sobietarraren eraketa erraztuko du. Gertakariak gure mesedetan lan egingo dute gu berauei laguntzeko gai bagara!

HERRI KOLONIALAK GERRAN

Metropoli inperialistentzat zailtasun eta arrisku izugarriak sortu dituzenez, gerrak aukera itzelak irekitzen ditu herri zapalduentzat. Europaren gainean den kainoi hotsak beraien askapen hurbilaren unearen berri ematen du.

Herrialde kapitalista aurreratuetan gizarte eraldaketa-rako programa bakezale oro utopikoa bada, kolonien askapenerako programa baketsua bi bider utopikoagoa da. Azken herrialde atzeratu erdiaskeak gure begien aurrean menderatuak izan dira (Etiopia, Albania, Txina...). Egungo gerra osoa koloniatik gerra bat da eta hauei ahal duten gutxien itzultzekoa. Herrialde esklabizatuen borroka iraultzaile ireki eta zuzen batek bakarrik utz dezake zabalik beraien askapenerako bidea.

Herrialde kolonial eta erdikolonialetan, Estatu nazional independente baten aldeko borroka, eta ondorioz, “aberriaren defentsa”, desberdina da, printzipioz, herrialde inperialistekin alderatuta. Mundu osoko proletalgu iraultzaileak bere baldintzarik gabeko babes osoa ematen die euren independentzia nazionalaren aldeko Txinako edo Indiako borrokei, izan ere, borroka horrek, “herri atzeratuak asiatismotik, partikularismotik eta atzerriaren esklabotzatik aldentzean... kolpe indartsuak ematen baitizkie Estatu inperialistei”.

Aldi berean, Laugarren Internazionalak badaki nazio atzeratu horien Estatu nazional berantiarrek ezin dutela garapen demokratiko independente bat izan eta horretaz ohartarazten ditu. Gainbeheran den kapitalismo batek inguraturik eta imperialismoen arteko kontraesanen artean hartuta, Estatu atzeratu baten independentzia erdi fikziozkoa bilakatuko da eta bere erregimen politikoak, bere klase izaerako kontraesanen eta kanpo presioaren eraginpean, bere herriaren gaineko diktaduraren bidea hartuko du, Turkian “Herriaren” Alderdiarekin edota Txinan Kuomintangaren erregimenarekin gertatzen den bezala. Gandhiren erregimena berdina izango da bihar Indian. Kolonien independentzia nazionalaren aldeko borroka, proletalgoaren ikuspegitik, herrialde atzeratuen trantsizio egoera bat besterik ez da nazioarteko iraultza sozialistarako bidean.

Laugarren Internazionalak ez ditu erabateko desberdintzeak ezartzen herrialde atzeratuen eta aurreratuen artean, iraultza demokratikoaren eta iraultza sozialistaren artean. Horretarako, biak koordinaturik daude eta zapaltzaileen aurkako zapalduen borroka mundialaren zerbitzura jarri behar dira. Gure garaiko indar iraultzaile jator bakarra nazioarteko proletalgora denez, zapalketa mota oro, soziala izan edota nazionala izan, egiaz ezereztu dezakeen programa bakarra eten gabeko iraultzaren programa da.

TXINAKO IRAKASPEN HANDIA

Txinako esperientzia tragikoa ikasgai handia da herri zapalduentzat. 1925-27ko Txinako iraultzak aukera guztiak zituen garaipena lortzeko. Txina bateratu eta eraldatu bat askatasunaren gotorleku indartsu bat izan zitekeen Ekialde Urrunean orain. Asiaren patua, eta hein batean, mundu osoarena aldatu egingo zen. Baina Kremlinak, masa txinatarretan konfiantzarik ez zuenak eta jeneralen laguntasuna bilatzen zuenak, bere pisu guztia proletalgora txinatarra burgesiaren menpe ipintzeko erabili zuen, Chiang Kai-shek-i iraultza txinatarra zapaltzen lagunduz. Ilusiorik gabe, zatiturik eta ahulduta, Txina harripakin erraza da inbasio japoniar batentzat.

Kondenatutako erregimen guztiak bezala, oligarkia stalinista ez da gai Historiaren irakaspenetatik ikasteko. Gerra txinatar-japoniarraren hasieran, Kremlinak berriro ere Alderdi Komunista Chiang Kai-shek-i lotu zion, proletalگو txinatarraren ekimen iraultzailea errotik moztuz. Hirugarren urteurrenera hurbiltzen ari den gerra hura, Japoniaren hondamenezko lur jotze batekin amaitu ahal izan zen, Txinak nekazal iraultza batean oinarrituriko egiazko gerra herrikoi bat balitz bezala borrokatu izan balu eta honenugarrekin soldadu japoniarren gogo sutu izan balu. Baina burgesia txinatarrak beldur gehiago die bere masa armatuei konkistatzaile japoniarrei baino. Chiang Kai-shek, iraultza txinatarraren borrarero makurra, testuinguruagatik gerra bat hastera bultzatua izango balitz, bere gaurko programa, atzokoa bezala, bere langileen zapalketan eta inperialistekiko konpromisoan oinarrituko da.

Asia ekialdeko gerra mundu gerra inperialistarekin elkartuko da geroz eta gehiago. Herri txinatarrak proletalگو gazte eta sakrifikatu baten zuzendaritzapean bakarrik lortu ahalko du bere independentzia, beragan mundu iraultzaren berpizkundea hasteko ere nahikoa konfiantza duen zuzendaritza batenpean. Esku irmoz markatuko du jarraitu beharreko bidea. Gertakarien ibilbideak gure Txinako sekzioa Alderdi iraultzaile boteretsu bilakatzea ipintzen du eguneko ordenean.

IRAULTZAREN EGINKIZUNAK INDIAN

Gerraren lehen asteetan, masa indiarrek presioa areagotu egin zuten, euren buruzagi “nazionalista” oportunistei horretarako ohiturarik ez zuten hizketa-modu bat erabiltzea behartuz. Baina ai! herri indiarra hotsandiko hitzontzikeriez fidatzera iristen bada. Independentzia nazionalaren maskararekin, Gandhik azkartasunez adierazi du Britainia Handiari krisi zail honetan zailtasunik ez sortzeko bere intentzioa. Noizbait eta nonbait herri zapalduak zapaltzaileen zailtasunak esplotatu gabe askatzeko beste modurik izan balute bezala!

Gandhik aipatzen duen bortizkeriaren arbuio “moral” burgesia indiarrek bere masei dien beldurraren islada bat besterik ez da, azken hauek arrazoi onak baitituzte inperialismo

britainiarrak hondamendira bultzatuko dituztela pentsatzeko. Bere aldetik, Londresek adierazi du desobedientziaren zeinu txikienaren aurrean “beharrezko baliabide guztiak” erabiltzera beharturik ikusiko dela, mendebaldeko frontearen behar dituen aireko indarrak barne, noski. Burgesia kolonialaren eta gobernu britainiarraren artean lan banaketa argi bat ezartzen da: Gandhik Chamberlainen eta Churchillen mehatxuak behar ditu mugimendu iraultzailea gelditzea lortzeko.

Berehalako etorkizunean, badirudi masa indiarren eta burgesiaren antagonismoa geroz eta zorrotzagoa bilakatuko dela. Gerra inperialista merkataritza enpresa erraldoi bat bilakatzen da burgesia indiarrarentzat, lehengai merkatu bereziki mesedegarri bat irekitzean Indiako industria azkartasunez garatu baitezake. Inperio britainiarraren suntsipen osoak kapital indiarra Londresko City-arekin lotzen duen zilbor hesia mozten badu, burgesia nazionala bizkor saiaturiko da uga-zaba berri bat aurkitzen Wall Streeten, New Yorken. Burgesiaren interes materialek grabitatearen legearen indarrarekin determinatzen dute euren politika.

Klase zapaltzaile batek askapen mugimendua kontrolatzen duen bitartean, mugimendu hau ez da gai izango irteerarik gabeko kale batetik ateratzeko. India pertsona bakar bat bailitza batu dezakeen gauza bakarra nekazal iraultza da, independentzia nazionalaren banderapean. Proletalgoak zuzenduriko iraultza bat ez da aginte britainiarraren aurka bakarrik joango, baita printze indiarren, atzerriko kontzesioen, burgesia nazionalaren kapa gorenaren eta Kongresu Nazionalako liderren aurka ere, Liga Musulmanaren²⁴ aurka ere egiten duen bitartean. Laugarren Internazionalarentzako premiazko eginkizuna da Indian sekzio egonkor eta indartsu bat sortzea.

Klase kolaborazioko politika traidorea, Kremlinak azken bost urtetan zehar gobernu kapitalistegi gerra prestatzen laguntzeko balio izan duena, burgesiak mozorro bakezale bat behar izan ez zuen bezain pronto ezabatu zuen. Baina herrialde kolonialetan

24. Indiako bi erakunde burges garrantzitsuenak, aginte ingelesaren aurka zeudenak. Kongresu Nazionala Indiako alderdi garrantzitsuena bilakatu zen independentziaren ostean, Liga Musulmana Pakistango indar garrantzitsuena bilakatu zen bitartean hau Indiatik bereiztu zenean.

eta erdikolonialeetan, ez Txinan edo Indian bakarrik, baita Amerika Latinoan ere, “herri frontearen” iruzurrak langile masak geldiarazten jarraitzen du oraindik ere eta hauek burgesia “aurrerakoiaren” sakrifizioarako abere bilakatzen, inperialismoarentzako oinarri politiko indigena bat sortzen lagunduz.

AMERIKA LATINOAREN ETORKIZUNA

Estatu Batuetako armamentismoaren hazkunde eskergak konponbide bortitz bat prestatzen du mendebaldeko hemisferioko kontraesan konplexuentzat eta laster, modu irekian, herrialde latinoamerikarren zoriaren arazoa planteatuko du. “Auzoko onaren” politikaren denbora bere azkenetara iristen ari da. Rooseveltek edota bere ondorengoak belusezko eskularrua kenduko dute euren burdinazko ukabila argi eta garbi erakutsiz. Laugarren Internazionalaren tesiek zera diote: “Hego Amerika eta Ertamerika euren Estatu guztiak federazio boteretsu batean batzen badituzte bakarrik aterako dira euren atzerapenetik eta azpiratzetik. Baina ez da burgesia latinoamerikarra, atzerriko inperialismoaren sukurtsal hori, izango eginkizun hori egitera deitua izango dena, Amerika Latintoko proletalgo gaztea baizik, masa zapalduak zuzenduko dituen. Mundu inperialismoaren bortizkeriaren eta azpikerien eta burgesia natiboen eginkizun odoltsuaren aurkako kontsigna hau izango da: *Ertamerikako eta Hego Amerikako Estatu Batu Sobietarrak*”.

Duela sei urte idatzitako hitz hauek egunerokotasun harriagarria hartzen dute orain.

Zuzendaritza iraultzaile batekin bakarrik lortuko du kolonietako eta erdikolonietako proletalgoak metropolietako proletalgoarekin eta mundu osoko langile klasearekin elkarlan garaiezin batean sartzea. Antzeko elkarlan batek bakarrik eraman ditzake herri zapalduak bere erabateko askapenera, inperialismoa mundu osoan suntsituz. Nazioarteko proletalgoaren garaipen batek herri kolonialak garapen kapitalista baten esfortzu tristetik askatuko ditu, herrialde aurreratuetako proletalgoarekin batera sozialismorantz aurrera egiteko aukera irekitzean.

Etengabeko iraultzaren ikuspegiak ez du inolaz ere herrialde atzeratuak aurreratuenek egingo dioten seinaleari itxaron behar diotenik esan nahi, edota metropolietako proletalgoak herri kolonialak askatuko dituzten uneari pazientziaz itxaron behar diotenik. Laguntzen duenak laguntza lortzen du. Langileek herrialde guztietan garatu behar dute borroka iraultzailea, baldintza mesedegarriak agertzen diren edozein herrialdetan, kolonialetan edota inperialistetan, beste herrialdeetako langileen eredu izanez. Ekimenak eta ekintzak, erabakitak eta kemenak bakarrik bilaka dezake errealitate kontsigina hau: Mundu guztiko langileak, elkar zaitzte!

BURUZAGI TRAIKIDOREEN ARDURA GERRAN

Iraultza espainiarraren garaipenak astinaldi iraultzaileko aro berri bat ireki ahal izango zukeen Europa osoan, egungo gerrari aurrea hartuz. Baina iraultza heroiko hura, garaipena eskuratzeko aukera guztiak zituena, Bigarren eta Hirugarren Internazionalaren arteko besarkadak eta anarkisten kolaborazio aktiboak itoa izan zen. Munduko proletalgora pobregoa bilakatu zen beste ilusio handi bat galdu zuenean, baina hala-ko traizio ankerraren irakaspenekin aberastu zen.

1936ko ekaineko proletalgo frantziarraren mugimendu indartsuak baldintza bereziki mesedegarriak erakutsi zituen boterea modu iraultzailean hartzeko. Errepublika sobietar frantziar batek berehala eskuratuko zukeen Europako hegonia iraultzailea, ondorio iraultzaileak eragingo zituzkeen herrialde guztietan, erregimen totalitarioak hondoraziko zituzkeen eta gizateria oraingo sarraski inperialistatik eta konta ezinezko biktimetatik salbatu. Baina Leon Blumen eta Leon Jouhauxen lotsarik gabeko politika koldar eta traikidoreak, Kominternaren sekzio frantziarraren kolaborazio aktiboarekin batera, hondamendira eramanez aurreko hamarkadako mugimendu promesdunenetako bat.

Gaur egungo gerraren atarian bi gertaera tragiko kokatzen dira: iraultza espainiarraren urkatzea eta Frantzia langile ofentsibari eginiko boikota. Burgesia, halako "langile buruzagiekin" edozein lekutara irits zitekeela gogobete zen era-

bat, baita herrien triskantza berri batera ere. Bigarren Internazionalako buruzagiek proletalgoak burgesia eraistea saihestu zuten lehen gerra inperialistaren amaieran. Bigarren eta Hirugarren Internazionalako buruzagiek bigarren gerra inperialista bat pizten lagundu diote burgesiari. Euren hilobi politikoa bilaka dezagun!

BIGARREN INTERNAZIONALA

1914-1918ko gerrak Bigarren Internazionala lubakiek bereiztutako bi eremutan zatitu zuen berehala. Alderdi sozialdemokrata bakoitzak bere aberria defendatu zuen. Gerraren ondoren urte batzuk igaro ostean anai traidore etsaituak berriro ere adiskidetu eta elkarren arteko amnistia bat aldarrikatu zuten.

Bigarren Internazionalaren egoera aldatu egin da orain, azalean. Bere sekzio guztiak, salbuespenik gabe, lerro militarren alde batean aurkitzen dira, aliatuen aldean. Batzuk herrialde demokratikoetako Alderdiak direlako eta besteak hauetara emigratu dutelako herrialde beligeranteetatik edo neutraletatik. Sozialdemokrazia alemaniarra, lehen gerra inperialistan Hohenzollerntarren banderapean politika chauvinista nardagarri bat jarraitu zuena, Frantziaren eta Britainia Handiaren zerbitzura dagoen Alderdi “ezkor” bat da orain. Zorakeria litzateke halako morroiak iraultzaile bilakatu direla pentsatzea. Bada azalpen errazago bat. Gillermo IIaren Alemaniak pribilegio pertsonal nahikoa, ongi ordaindutako postu asko, eskaintzen zizkien kamara parlamentarioetan, udaltxeetan, sindikatuetan eta beste hainbat lekutan. Alemania inperialaren defentsa langile burokrazia kontserbadoreak bere egarrria asetzeko erabiltzen zuen ubide emaritsuaren defentsa bilakatzen zen honela. “Sozialdemokrazia, abertzalea izango da unean uneko erregimen politikoak bere irabaziak eta pribilegioak segurtatzen dituen bitartean”, zioten gure tesiek duela sei urte. Mentxebikeek eta populista errusiarrek, tsarraren menpean ere abertzaleak izan zirenek (Duman euren frakzioak zituztenean, beraien egunkariak eta funtzionario sindikalak zituztenean, eta bide honetatik abantaila berriak

lortzea espero zutenean), orain dena galdu dutenean posizio ezkor bat dute SESBekiko.

Ondorioz, Bigarren Internazionalaren egungo “ahobatekotasuna”, bere sekzio guztiek, aliatuek herrialde totalitarioetan langile burokraziako postuak eta errentak berrezartzean, postu eta errenta horiek itzuliko dizkietela espero dutelako uler daiteke. Sozialdemokrazia ez doa burgesia “demokratikoren” babesaren inguruko fantasia inpotenteetatik haratago. Gaitasunik gabeko politiko horiek erabat ezgauza dira euren interesak mehatxaturik daudenean ere borroka egiteko.

Hauxe izan zen Eskandinavian, ustez Bigarren Internazionalaren feudo seguruenetariko batean, argitasun biziz ikusi ahal izan zena, non hiru herrialdeak etapa oso batean zehar sozialdemokrazia neurritsu, errealista, erreformista eta baketsuak gobernatuak izan ziren. Sozialismoa deitzen zioten zaldun horiek demokrazia kontserbadoreari, estatu elizaren plusarekin eta denbora batean zehar gastu militarren murrizpenak ahalbidetutako erreforma sozial lotsatien plusarekin koroaturik. Nazioen Elkartean sostengaturik eta “neutralitatearen” ezkutuak babestuta, gobernu eskandinaviarrek garapen lasai eta baketsu bat pentsaturik zuten hainbat belaunalditarako. Baina ugazaba inperialistek ez zituzten kontutan hartu hauen kalkuluak eta zoriaren kolpeen aurrean burua makurtu behar izan zuten. SESBek Finlandia inbaditu zuenean, hiru gobernu eskandinaviarrek neutral aldarrikatu ziren gatazkan. Alemaniak Danimarka eta Norvegia inbaditu zituenean, Suedia neutral aldarrikatu zen gatazkan. Danimarka azkartasunez neutral aldarrikatu zen bere inbasioaren aurrean. Norvegia, bere zaindari ingelesaren kanoiak lagun, defentsa propioko keinu sinboliko batzuk egin zituen bakarra izan zen. Heroi hauek aberri demokratikoaren kontura bizitzeko prest daude, baina ez hainbeste beragatik hiltzera. Ezusteko gerrak Jainkoaren eta Erregearen begiradapean eboluzio baketsu bat aurrera eramateko zituzten itxaropen guztiekin amaitu du. Paradisu eskandinaviarra, Bigarren Internazionalaren ilusioen azken babeslekua, infernu inperialistaren lursail bat gehiago bilakatu da.

Sozialdemokrata oportunistek politika bakar bat dute: ego-kitzapen pasiboa. Kapitalismo dekadente baten baldintzetan, posizio bat bestearen atzetik entregatzen dute, ez baitute beste

baliabiderik, jada zekena den euren programa murriztu egiten dute, eskakizunak mugatu, etengabe eta nekerik gabe erretiratu, errefuxiatzeko sagu-zulo bat besterik geratzen ez zaien arte. Baina inperialismoaren esku gupidagabeak handik ere atera egiten ditu isatsetik tira eginez. Horixe izango da, laster, Bigarren Internazionalaren historia. Oraingo gerra Bigarren Internazionala bigarren aldiz hiltzen ari da. Betirako izan dadila.

HIRUGARREN INTERNAZIONALA

Hirugarren Internazional degeneratuaren politika, oportunitismo baldar baten eta abenturazalekeria geldiezin baten arteko nahasketa, eragin are etsigarriagoa izaten ari da langile klasearen gainean, bere ahizpa zaharrak, Bigarren Internazionalak, baino handiagoa, hori posible baldin bada behinik behin. Alderdi iraultzaile batek bere politika guztia langileen klase kontzientzian oinarritzen du; Kominterna hau kutsatzeaz eta pozoitzeaz arduratzen da.

Alde gerlagile bakoitzaren propagandista ofizialek, kontrako bandoaren krimenak salatzen dituzte, eta askotan oso modu zuzenean. Goebbelsek Indiako bortizkeria britainiarraren inguruan egiaren zati handi bat esaten du. Prentsa ingelesak eta frantziarrak gauza argigarri asko esaten dituzte Hitlerren eta Stalinen kanpo politikaren inguruan. Baina aldebakarreko propaganda horrek ez dio pozoiz chauvinista okerreza izateari uzten. Erdizka esandako egiak dira gezurrik arriskutsuenak.

Kominternaren egungo propaganda azken mota honetako da. Bost urtetan zehar lotsarik gabe demokraziak limurtzen egon ostean, "komunismoaren" esentzia erasotzaile faxisten aurkako erasoetara murriztuz, Kominternak, bat-batean, 1939ko udazkenean, mendebaldeko demokrazien inperialismo kriminala aurkitu du. Itzulera ezkerre! Une horretatik ez da hitz kondenatzaile bakar bat ere entzun Txekoslovakiaren eta Poloniaren suntsipenaren aurka, Danimarkaren eta Norvegiaren inbasioaren kontra edota banda hitleriarrek herri judutarraren eta poloniarraren aurka burutu dituzten basakeria ankerrak salatzen. Hitler barazkijale bare bat bilakatu da, bakearen

maitalea, mendebaldeko inperialistek etengabe zirikatu dutena. Aliantza franko-britaniarra “herri alemaniarraren aurkako bloke inperialista” bezala deskribatu du Kominternaren prentsak. Goebbels berak ere ezingo zukeen ezer hobea gorik asmatu! Emigrazioko Alderdi Komunista alemaniarrak aberria irrika osoz maite du. Eta aberriak faxista izateari utzi ez dionez, Alderdi Komunista alemaniarra jarrera sozialfaxista bat hartzera iritsi dela gertatu da. Iritsi behar zen sozialfaxismoaren teoria stalinista hezur haragizko bilakatu behar zen eguna²⁵.

Lehen ikusian, Kominternaren sekzio frantziarraren eta ingelesaren jokabideak diametralki kontrakoa zirudien. Alemaniarrak ez bezala euren gobernuari eraso egin beharrean aurkitu ziren. Baina bat-bateko ezkortasun honek ez zuen zerikusirik internazionalismoarekin, abertzaletasun desitxuratu batekin baizik: jaun hauek Kremlina, euren ongizatearen baldintzatzailea, euren aberritza dute. Stalinista frantziar askok adore izugarria erakutsi dute jazarpenaren aurrean. Baina amore honen eduki politikoa murrizturik geratzen zen alderdi etsaiaren harrapakaria politikoa edertze tematiagatik. Zer pentsatuko dute langile frantziarrek honen inguruan?

Iraultzaile internazionalistak atzerriko potentzien agenteak bailiran aurkeztu ditu beti erreakzioak. Kominternak halako egoera sortu zuen ezen bere sekzio frantziarrak eta ingelesak arrazoia ematen zioten halako salaketa bati, langileak, nahasmentuaren eta pasibotasunaren artean, alde abertzalea sartzera kondenatuz.

Kremlinaren politika sinplea da: Hitlerri Kominterna saldu dio, petrolioaz eta manganesoaz gain. Jende honek euren buruak era honetan saltzen utzi zutenean erakutsi zuten zakur erako morrontza, Kominternaren barne ustelkeriaren frogargia da. Kremlinako agenteek ez dute printzipiorik, ez ohorerik, ez kontzientziarik. Lepondo malgu bat bakarrik dute. Baina iraultzak ez ditu inoiz lepondo malguko jendeak zuzendu.

25. Stalinen teoria honen arabera, sozialdemokratak eta faxistak ez ziren aurkakoak, bikiak baizik. Sozialdemokratak faxismoaren barietate bat zirenez eta mundu osoa, stalinistak ezik, faxista zenez, onartezina zen stalinistentzat fronte bakarreko politika bat mantentzea egiazko faxisten aurka. Beste edozein teoria ezin izango zen hain baliagarria izan Hitlerrentzat boterea konkistatu aurreko urteetan. 1934an stalinistek teoria hau alde batera utzi zuten eta ez sozialdemokratak bakarrik, Roosevelten eta Daladier bezalako politikari kapitalistak limurtzen hasi ziren.

Stalinen eta Hitlerren arteko laguntasunak ezin du betierekoa izan. Ezta iraunkorra ere²⁶. Gure manifestua masengana iritsi baino lehen, litekeena da Kremlinaren kanpo politikak biraketa berri bat egin izana. Ondorioz, Kominternaren propagandaren izaera ere aldatuko da. Kremlina demokraziengana hurbiltzen bada, Kominternak berriro ere nazien krimenen *Liburu Marroia* desehortziko du. Baina honek ez du esan nahi bere propagandak zeinu iraultzailea hartuko duenik. Etiketak aldatu egingo dira, baina Kominternak lehen bezain morroi jarraituko du. Politika iraultzaileak masei egia esatea exijitzen du ororen aurretik. Baina Kominternak sistematikoki gezurra esaten du. Gu munduko langile guztiengana zuzentzen gara honako hau esateko: Ez iezaezue iruzurtiei sinistu!

SOZIALDEMOKRATAK ETA STALINISTAK KOLONIETAN

Esplotatzaileekin loturik eta pribilegioak lortzean interesaturik dauden Alderdiak, euren izaeragatik beragatik, ez dira gai langileen sektorerik esplotatuenentzat eta herri zapalduentzat politika zintzo bat egiteko. Bigarren eta Hirugarren Internazionalen fisionomia bereziki argi agertzen da koloniekiko duten jarreran.

Bigarren Internazionalak, esklabo-merkatarien ordezkari bezala jokatzeko duenak eta esklabotzatik lortzen diren irabazietan parte hartzen duenak, ez du sekzio propiorik kolonietan, alde batera uzten baditugu funtzionario kolonialen noiz behin-kako taldeak, bereziki masoi frantziarrenak edota “ezkerreko” karreristenak, populazio indigena zapaltzeko prest daudenak. Biztanleria koloniala “aberri demokratikoaren” aurka altxatzeko ideia antiabertzaleari garaiz uko egin ostean, Bigarren Internazionalak burgesia kolonietarako ministroz hornitzeko pribilegioa irabazi du, hau da, esklabo-merkatari hornitzeko (Signey Webb, Marius Moutet eta beste batzuk)²⁷.

26. Kremlinak Hitlerren inguruan zuen politikak bat-bateko bira jasan zuen 1941eko ekainean, Hirugarren Reich-eko ejertzitoek SESB inbaditu zutenean.

27. Sidney Webb (1859-1947) Elkarte Fabianoaren fundatzaileetako bat. Kolonien (1929-31) eta Domeinuen (1929-30) ministro britainiarra izan zen. Marius Moutet kolonien ministro sozialista izan zen Fronte Herrikoiairen gobernuan 1938an

Denbora gutxira, Hirugarren Internazionala, bere bizitza herri zapaldu guztientzako dei iraultzaile adoretu batekin hasi zuena, berdin-berdin prostituitu da auzi kolonialaren inguruan. Duela ez urte asko, Moskuk demokrazia inperialistekin aliatzeko aukera ikusi zuenean, Kominternak askapen nazionalaren aldeko kontsignak zirkulazioan jarri zituen, ez Abisiniarentzat eta Albaniarentzat bakarrik, baita Austriarentzat ere. Ingalaterraren eta Frantziaren kolonien kasuan, “arrazoizko” erreformei itxarotera mugatzen zen umilki. Une hartan, Kominternak indiarrak defendatzen zituen, baina ez Britainia Handiaren aurrean, japoniarren balizko erasoan aurrean baizik, eta Tunez berriz Mussoliniren letaginetatik. Orain egoerak 180 graduko bira eman du. Independentzia osoa Indiarentzat, Egiptorentzat eta Argeliarentzat! Dimitrov ez da gutxiagorekin konformatzen. Arabiarrek eta beltzek berriro ere Stalinengan aurkitu dute beraien lagunik hoberena, Mussoliniren eta Hitlerren ondoren. Kominternaren sekzio alemaniarrak, bizkarroi talde honen berezko lotsagabekeriarekin, Polonia eta Txekoslovakia inperialismo britainiarraren azpiko inguruan ohartarazten ditu. Jende hau edozer gauzarako prest dago! Mendebaldeko demokrazien inguruan Kremliak duen norabidean aldaketa berri bat ematen bada, Londres eta Parisi errespetu osoz eskatuko die berriro ere euren kolonietan erreforma liberal batzuk egin ditzaten.

Bigarren Internazionalak ez bezala, bere tradizio handiari esker, Kominternak eragin ukazina du kolonietan. Baina bere oinarri sozialak bere eboluzio politikoaren eraldaketak jarraitu ditu. Gaur egun, herrialde kolonialetan, Kominternak metropolietan Bigarren Internazionalaren oinarri tradizionala osatzen duten sektoreetan babesten da. Herrialde kolonialetatik eta erdikolonialetatik lortzen dituzten irabazi ikaragarrien ogi papurrekin inperialismoak langile aristokrazia natibo baten itxurako zerbait sortu du hauengan. Metropoliko bere ereduarekin konparaturik hutsala bada ere, pobrezia orokorreko eskenatoki batean argi bereizten da eta bere pribilegioak ahalgin guztiarekin defendatzen ditu. Herrialde kolonialetako eta

eta Ta Thu Thau trotskista indotxinarren buruzagiaren kartzelaratzearen arduraduna izan zen.

erdikolonialetako burokraziak eta langile aristokraziak, estatu funtzionarioekin batera, elementu bereziki lausengariz hornitzen dituzte Kremlinaren “lagunak”. Amerika Latinoan, pertsonaia honen ordezkariarik nardagarriena Lombardo Toledano²⁸ abokatu mexikarra da, eta Kremlinak merezi duen saria eman dio bere zerbitzu handiengatik, Sindikatu Federazio latinoamerikarreko presidente kargu dekoragarria igo duenean.

Klase borrokaren arazoak modu irekian planteatzen direnean, gerrak posizio gero eta okerragoan ipintzen ditu halako esku-jokariak eta magoak, eta egiazko boltxebikeek momentu horiek erabili behar dituzte Kominterna herrialde kolonialetatik garbitzeko.

ZENTRISMOA ETA ANARKISMOA

Existitzen den guztia proban jartzean eta usteldurik dagoen guztia alde batera botatzean, gerra arrisku hilgarri bat da Internazional zimelentzat. Kominterneko burokraziaren zati esanguratsu bat bere aberri inperialistara itzuliko da, batez ere Sobiet Batasunak zartakoren bat jasaten badu. Bestalde, langileek ezkerraldera egingo dute etengabe. Baldintza haue-tan ezin dira saihestu banaketak eta zatiketak. Zenbait sinton-maren arabera Bigarren Internazionalaren “ezker” hegialak honekin hausteko aukera ere hortxe dago. Pentsatzekoa da tradizio ezberdinetako antolaketa zentristak agertuko direla, batu egingo direla, zatitu, “fronte” berriak sortuko dituztela, “bando” berriak, etab. Baina gure aroak zentrismoa onartzeko bere erresistentzia erakutsiko du. POUMak, erakunde zen-trista guztien artetik serioenak, iraultza espainiarrean bete-zuen paper tragiko, negargarria, betirako geldituko da prole-talgoaren memorian, oharpen beldurgarri bat bezala.

Baina historiari errepikapenak gustatzen zaizkio. Nazioar-teko erakunde berriak eraikitzeke saiakerak ez dira alde bate-ra utzi behar *bi eta erdigarren* Internazionalaren, edota orain *hiru eta laurdengarren* Internazionalaren ereduak jarraitzen

28. Stalinista, Mexikoko Lan Konfederazioko buruzagia. Trotskyren aurkako stali-nista mexikarren iruzur kanpainan aktiboki hartu zuen parte.

badituzte ere. Saiakera hauek kontuan hartu behar dira, baina langile masen barneko prozesu sakonagoak islatzen dituzten neurrian bakarrik. Segurtasunez eta aurretiaz esan daiteke “fronte” zentristak, “bandoak” eta “Internazionalak” fundamenteu teorikorik gabe, tradizio iraultzailerik gabe, landutako programarik gabe, bizitza laburrekoak izango direla. Guk horretan lagunduko diegu euren zalantza uneak eta erabakitze-ko gaitasuna kritikatu.

Langile erakunde tradizionalen lur jotzearen zirriborro hau ez litzateke erabat osaturik egongo anarkismoa aipatuko ez bagenu. Bere gainbehera gure garaiko fenomenorik garrantzitsuen da. Lehen gerra inperialistaren aurretik jada anarkosindikalista frantziarrek lortua zuten motarik okerreneko oportunistak eta burgesiaren zerbitzari bilakatzea. Gerran, nazioarteko buruzagi anarkisten zatirik handiena abertzale bilakatu zen. Espainiako gerra zibila bere goraldian aurkitzen zenean, anarkistak burgesiaren ministro bilakatu ziren. Hitzontzi anarkistek Estatu eraso eta ukatzen dute, honek beraien beharrik ez duen bitartean. Arrisku uneetan prest daude, sozialdemokratik bezala, kapitalisten agente bilakatzeko.

Anarkistek ez zuten ez programarik ez ideia minimorik gerra hau hasi zenean. Bere bandera proletalgotik espainiarrari egindako traizioagatik zikinduta zegoen. Orain, langileen lefroetan desmoralizazio abertzalea sartzeko besterik ez dira gai, aiene humanistekin apaindurik. Bere klasearen interesen alde borroka egiteko benetan prest dauden langile anarkistekin elkartzen saiatzen garen aldi berean, beraien buruzagiekin erabat hausteko eskatuko diegu, burgesiaren errekadu egile lana egiteko balio baitute hauek gerra eta iraultza garaietan.

SINDIKATUAK ETA GERRA

Kapital monopolistaren magnateak Estatuaren botere erakunde ginetik, eta hauek zeru goietatik kontrolatuz, ipintzen diren bitartean, buruzagi sindikal oportunistak boterearen aurrean belaunikatzen dira, langile masen artean Estatuari babesa emateko laguntza aurkitu nahian. Halako lotsen koru batetik ezin du kantatu sindikatuen barnean langile demokrazia

mantentzen den bitartean. Baina sindikatuen bilakabidea, erregimen burgespeko bizitzaren pausuak jarraituz, geroz eta autoritarioagoa bihurtu da. Gerra garaian burokrazia sindikala Ejertzitoaren Estatu Nagusiaren polizia militarra bilakatzen da langile klasearen bihotzean.

Baina eginkizun horretan ahal bezain beste saiaturata ere ez da salbatuko. Gerrak suntsiketa eta heriotza dakar egungo zentral erreformistentzat. Bizitzaren lorean aurkitzen diren sindikalistak sarraskira mobilizatuak dira, eta hauen postua mutikoez, zaharrek, hartzen dituzte, hau da, erresistentzia gaitasun gutxiagoko pertsonak. Herrialde guztiak lur jota aterako dira gerratik, langileen bizi maila duela mende batera atzeratzeraino. Sindikatu erreformistek demokrazia burgesaren erregimenen argitan bakarrik aurki dezakete leku bat. Baina gerratik garaituta eroriko den lehen gauza demokrazia burges ustela izango da, bere behin betiko gainbeheran oinarritzat balio zioten langile erakunde guztiak bere aurretik eramango dituenak. Ez dago lekurik sindikatu erreformistentzat. Erreakzio kapitalistak gupidarik gabe suntsituko ditu. Arrisku honez ohartarazi behar dira langile guztiak, denek entzuteko adinako ahots indartsu batekin.

Aro berri batek metodo berriak eskatzen ditu. Metodo berriek buruzagi berriak eskatzen dituzte. Bide bakarra dago sindikatuak salbatzeko: hauek borrokarako organismo bilakatzea, anarkia kapitalistaren eta lapurreria inperialistaren aurkako garaipena bere helburu bezala finkatuz. Sindikatuek oinarritzko papera izango dute ekonomia sozialistaren eraikuntzan. Baina horretarako aurrealdintzak burgesia garaitzea eta ekoizpen baliabideak nazionalizatzea dira. Iraultza sozialistaren bidea jarraitzen ez badute, gerraren hondakinen azpian lurperatuak izango dira sindikatuak, eta ezingo dute hau saihestu.

LAUGARREN INTERNAZIONALA

Abangoardia proletarioa etsai adiskidezina da gerra inperialistarentzat. Baina ez da honen beldur. Klaseko etsaiak aukeratu duen lekuan onartzen du borroka. Eta batailaren zelaira bere banderak zabaldurik iristen da.

Laugarren Internazionala munduko gertakarien ibilbide orokorra zuzenki iragarri zuen erakunde bakarra da, hondamendi inperialista berri baten halabeharrezkotasunaz jakinarren gainean jartzzen aritu zena, demokrata burgesen eta esko-la stalinistako abenturazale burges txikien iruzurrak salatu zituena, "Fronte Herrikoiak" izeneko klase kolaborazioaren aldeko politikaren aurka borroka egin zuena, gupidarik gabe Kominternak eta anarkistek Espainian egindako traizioa kritikatu zuena, etenik gabe POUMen ilusio zentristak eraso zituena, bere koadroak klase borroka iraultzailearen espiritua rekin etengabe akuilatu zituena. Gerra garaiko gure politika bake garaiko gure politikaren jarraipen kontzentratu bat da.

Laugarren Internazionalak marxismoaren granitozko zimentuaren gainean oinarritzen du bere programa. Bando ezberdinetako sindikatu-burokrazien lerroetan nagusitzen den eklektizismo erdeinagarria arbuiatzen du, askotan demokrazia burgesaren aurreko kapitulazioak justifikatzeko aitzakia bezala balio duena. Gure programa mundu osoaren eskura dauden dokumentuetan formulaturik dago, eta bere esentzia bi hitzetan laburtu daiteke: *proletalgoaren diktadura*.

BOLTXEBISSMOAN OINARRITUTAKO PROGRAMA BAT

Laugarren Internazionala boltxebismoaren tradizio iraultzailean eta bere antolakuntza metodoetan oinarritzen da erabat eta erreparorik gabe. Utz diezaiegun burges txikiei zentralismoaren aurka gaizkiesanka aritzen. Greba batean parte hartu duen edozein langilek badaki ez dagoela borrokarik diziplinarik eta zuzendaritza indartsurik gabe. Gure aroan espiritu zentralista barne-barneraino sarturik dago. Kapitalismo monopolistak zentralizazioa bere azken ondorioetaraino eraman du. Faxismoa deituriko estatu zentralismoa izaera totalitariokoa da. Demokraziak geroz eta ahalegin handiagoarekin saiatzen dira eredu hau jarraitzen. Burokrazia sindikalak atzaparrekin defendatzen du bere makineria boteretsua. Bigarren eta Hirugarren Internazionalak modu irekian erabiltzen dute Estatu aparatua iraultzaren aurka borroka egiteko. Baldintza hauetan, erreakzioari zentralismo iraultzailea kontrajartzea beste bermerik ez

dago arrakasta eskuratzeko. Ezinbestekoa da burdinazko disziplina batean forjaturiko abangoardia proletarioaren erakunde bat eskura izatea, sakrifiziorako prest dauden iraultzaile auseren sail bat duena, eta garaipena eskuratzeko borondate nekaezinez gogobeterik dagoena. Ofentsiba sistematikoki prestatu behar da, hau gogorra baldin bada ere, ordu erabakigarria iristen denean zalantza izpirik gabe klasearen pisu guztia baitailara bultzatzeko. Alderdi zentralizatu bat bakarrik, ez ahulduko den alderdi bat, da gai langileei hau ulertarazteko.

Saloietakako eszeptikoez zentralismo boltxebikeak burokratismoan degeneratu izana agerian jartzen gozatzen dute. Historiaren norabidea alderdi baten egiturak baldintzatuko balu bezala! Errealitatean kontrakoa gertatzen da: klase borrokaren eboluzioa da alderdiaren baldintzatzailea. Baina edozein kasutan, Alderdi Boltxebikea izan zen praktikan iraultza proletarioa bere azken ondorioetaraino eramateko gaitasuna erakutsi zuen bakarra. Halako Alderdi bat da gaur nazioarteko proletarigoak behar duena. Erregimen burgesa gerratik kalterik gabe iriteten bada, Alderdi iraultzaile guztiek degenerazio prozesu bat jasango dute. Iraultza proletarioak arrakasta badu, degenerazio hau eragiten duten arrazoiak desagertu egingo dira.

Erreakzioak garaipena eskuratzen duenean, masak nekatu eta etsitu egiten dira; langile klasearen erakunde tradizionalen deskonposizioak markatutako klima politiko batean, zailtasun eta oztupoek gora egiten dutelarik, Laugarren Internazionalaren garapena motela izan zitekeen bakarrik. Gure esfortzuak mespretxatzen zituzten zentristek behin baino gehiagotan saiakera isolatuak egin dituzte, eta lehen ikusian, itxaropentsuagoak, muturreko ezkerre batzeko. Hala ere, hainbeste espero zuten saiakera horiek hauts bihurtu ziren masak euren izenetaz gogoratzera iritsi baino lehen ere. Laugarren Internazionalak bakarrik jarraitzen du egoskorkeriaz, iraunkortasunez eta geroz eta arrakasta handiagoz korrontearen aurka igeri egiten.

FROGA PASATU DUGU!

Egiazki iraultzailea den erakunde baten ezaugarria, orenen aurretik, gertakarien norabide aldaketa ezberdinen aurrean

bere lerro politikoa lantzerakoan eta aplikatzerakoan erakusten duen seriotasuna da. Zentralismoa demokraziarekin ernaltzen da. Gerraren bi suen artean, gure sekzioek, grinarekin eztabaidatzen dituzte politika proletarioaren inguruko gai guztiak, euren metodoak frogatuz eta Bigarren eta Hirugarren Internazionalaren aurka zeudelako bakarrik gurekin elkartu ziren elementu ezegonkor haiek guztiak gainetik kenduz. Oso fidagarriak ez diren bidaiia-lagunetatik bereiztea Alderdi iraultzaile baten eraketan dagoen gastu estra ezinbesteko bat da.

Herrialde ezberdinetako gure kamaraden gehiengo handiak gerrak ezarri dizkien lehen frogak pasatzea lortu dute. Honek esangura erabakigarria du Laugarren Internazionalaren etorkizunarentzat. Gure erakundeko oinarriko militante bakoitzak gertakarien suen artean sortuko den ejertzito iraultzaileko koadro sentitzeko ez eskubidea bakarrik, betebeharra ere badu. Masak guda zelai iraultzailean sartzen direnean beraien proportzio ezgauzetara murriztuko dituzte programa oportunistak, bakezaleak eta zentristak. Egiazko iraultzaile bat, lantegi batean, meategi batean, sindikatu batean, erregimentu batean edota gerra ontzi batean askoz ere baliotsuagoa da euren saltsan egosten diren ehunka pseudoiraultzaile burges txiki baino.

Goi burgesiaren politikoak hobeto orientatzen dira Laugarren Internazionalaren paperaren inguruan burges txiki pedanteak baino. Euren arteko erlazio diplomatikoen hausturaren bezperetan, Coulondre enbaxadore frantziarra eta Hitler, euren azken elkarrizketan elkar beldurtu nahian, ados egon ziren “irabazle erreal bakarra” Laugarren Internazionala izango zela aipatu zutenean. Poloniaren aurkako borroka hasi ostean, Frantziako, Danimarkako eta beste herrialde batzuetako tirada handieneko prentsak hainbat mezu argitaratu zituzten, Berlingo langile auzoetan “Behera Stalin! Gora Trotsky!” lema zuten inskripzioak agertu zirela esanez, “Behera Hirugarren Internazionala! Gora Laugarrena!” esan nahi duena. Pragako langile eta ikasle borrokalarienek euren independentzia nazionalaren urteurrena ospatzeko manifestazio bat antolatu zutenean, Neurath baroiak adierazpen ofizial bat argitaratu zuen, manifestazio horren ardura “trotskista txekiarren” gain

ipiniz. Benes²⁹ Errepublika txekiarreko lehengo presidentearen egunkarian argitaratu zen Pragako kronikak, langile txekiarrek *trotskismora* bilakatzen ari direnaren errealitatea baieztatu zuen. Orain arteko hauek guztiak sintomak besterik ez dira. Baina mugimenduaren norabidea erakusten dute zalantzarik gabe. Gerrak iraultzara bultzatuko dituen langileen belaunaldi berria gure banderapean bilduko da.

IRAULTZA PROLETARIOA

Iraultza proletarioaren garaipenerako oinarrizko baldintzak, esperientzia historikoak eta lan teorikoak ezarri dituen bezala, hauek dira:

1) Burgesiaren krisia, klase agintariaren norabide galtze bat eragiten duena.

2) Goi burgesia beraren babesik gabe mantendu ezin den burgesia txikiaren atsekabe indartsua eta aldaketarako gogo zorrotza.

3) Proletalgoa bere egoera jasangaitzaren kontziente izatea eta ekintza iraultzailerako dispozizioa.

4) Abangoardia iraultzailearen programa argia eta zuzendaritza irmoa.

Hauexek dira iraultza proletarioaren arrakastarako lau baldintzak. Egoera iraultzaile askotan porrotaren arrazoi garrantzitsuena lau baldintza hauek aldi berean oso gutxitan heltzen direla izan ohi da. Historikoki, gerrek iraultza asko eragin izan ohi dituzte, zimeldurik dauden erregimenak euren sustraietaraino astintzen dituztelako, klase agintariak ahultzen dituztelako eta klase zapalduen haserre iraultzailea bizkortzen dutelako.

Orain, burgesiaren norabide falta eta masa herrikoien alarma eta atsekabea sakonak dira, bai herrialde beligeranteetan bai neutraletan. Joera hauek azkartu egingo dira gerrak irauten duen hilabete bakoitzeko. Azken hogeitertan, eta egia

29. Txekoslovakiaiko Presidentea 1935an. 1938ko urrian dimisioa aurkeztu zuen, naziek Sudeteak okupatu zituztenean. 1946an presidente aukeratua izan zen berriro ere eta bere buruaz beste egin zuen Alderdi Komunistak 1948an Txekoslovakian boterea hartu zuenean.

triste bat da, proletalgoak porrot bat bestearen atzetik jasan du, eta bakoitza aurrekoa baino larriagoa izan da, alderdi tradizionaletikiko konfiantza galtzera eraman zuena eta gerrara etsipen sakoneko egoera batean iristea eragin zuena. Hala ere, ez da komeni joera hauen egonkortasuna eta iraupena gainbaloratzea. Gertakariak eragin zituzten eta gertakariak desagerraraziko dituzte.

Gazteak dira gerrak eta iraultzak egiten dituztenak. Milioika gaztek, industrian lanik aurkitu ezinda, langabe bezala hasi zuten euren bizia, bizitza politikotik kanpo mantenduz. Gaur jada euren lekua betetzen ari dira edota segituan beteko dute. Estatua hari da beraiek erregimentutan antolatzen egin-kizuna hartzen, iraultzaile bezala bateratzeko aukera irekiz. Gerrak belaunaldi zaharren apatia ere desagerraraziko du.

ZUZENDARITZA IRAULTZAILEAREN AUZIA

Zuzendaritzaren auzia ikusteko geratzen da oraindik. Iraultza ez al da berriz traizionatua izango, inperialismoaren zerbitzura bi Internazional badaude eta bien bitartean elementu iraultzaileek gutxiengo txiki bat osatzen badute? Beste hitz batzuetan esanda: lortuko al dugu iraultza proletarioa zuzentzeko gai den Alderdi bat garaiz eraikitzea? Auzi honi erantzun zuzen bat eman nahi bazaio, zuzen planteatzea komeni da. Ekintza batzuek, dudarik gabe, porrotean amai dezakete, eta izatez amaituko dute, zuzendaritza iraultzailearen heldutasun falta dela eta. Baina ekintzak ez dira era isolatuan hartu behar, arazoa aro oso baten izaera iraultzailearen ingurukoa baita.

Mundu kapitalistak ez du irtenbiderik, hiltorian denbora luze bat egotea irtenbide bat dela sinesten ez bada behintzat. Gerra, krisi, su-eteneko garai labur, gerra berri eta krisi berriez beterik egongo diren urte eta hamarkada ugaritarako prestatu behar da. Alderdi iraultzaile gazte orok argi izan behar du ikuspegi hau. Historiak euren burua frogatzeko, esperientziak biltzeko eta heltzeko aukera nahikoa emango dizkio. Abangoardiaren lerroak zenbat eta lehenago elkartu, lehenago amaituko da marru odoltsuen aro hau eta txikiagoa izango da planetaren gainera etorriko den suntsiketa. Baina Historiaren

arazo handi hau ez da konponduko proletalgoaren buruan Alderdi iraultzaile bat ez badoa. Erritmo gorakorren eta beherakorren auziak garrantzia izugarria du, baina ez du zertan gure ikuspegi historikoa edo gure politikaren orientazioa aldatu. Ondorioa sinplea da: hamar aldiz energia gehiago eskaini behar zaio abangoardia proletarioa hezteko eta antolatzeke eginkizunari. Hauxe da hain zuzen Laugarren Internazionalaren eginkizuna.

Euren uste ezkorrak justifikatzen saiatzeko azken gerraren emaitza tristeak seinatzera mugatzen direnek, akats larri bat egiten dute. Lehen lekuan, gerrak Urriko Iraultza baimendu zuen, honen ikasgaiak nazioarteko langile mugimendu osoa bizirik egotea eragiten dutelarik oraindik ere. Bigarren lekuan, gerra honen baldintzak erabat desberdinak dira 1914koarekin konparatzen baditugu. Estatu inperialisten posizio ekonomikoa mila aldiz okerragoa da gaur, eta aldi berean, suntsiketa belikorako gaitasuna mila aldiz handiagoa da duela mende laurdenekoa baino. Nahikoa arrazoi daude oraingoan langileen eta soldaduen aldetik erreakzio azkarrago eta erabakigarriago bat itzaroteko.

Lehenengo gerraren esperientziak sakonki eragin zuen masengan. Bigarren Internazionalak masen ilusio bakezale eta demokratiko ia birjinetan oinarritzen zuen bere indarra. 1914ko langileek seriotasun osoz sinesten zuten gerra hura azkenekoa izango zela. Soldaduek euren buruak hiltzen uzten zuten beraien semei sarraski berri bat aurrezteko. Itxaropen hauekin bakarrik iraun ahal izan zuten lau urte baino gehiagoko gerra batean. Baina gaur ez da halako ilusio demokratiko eta bakezalerik geratzen ia. Herriek gerra hau beragan sinetsi gabe jasaten dute, beragandik kate berriak besterik itxaron gabe. Honek Estatu totalitarioentzat ere balio du. Lehen gerra inperialistaren fardela jasan zuen langile belaunaldi zaharra eta gerraren ikasgaiak ahaztu ez dituen ez da eskenatokitik desagertu oraindik. Kontsigna abertzaleen eta pazifisten falstutasunak oraindik ere badu oihartzuna hurrengo belaunaldiaren belarrietan, gerra garaian eskolara zihoazen haienetan. Sektorre hauen esperientzia politiko kalkula ezinak, orain makineria belikoaren pisuagatik zapaldurik aurkitzen denak, bere indar osoa erakutsiko du gerrak, gertatuko den bezala, langile masak euren gobernuen aurrez aurre jartzen dituenean.

SOZIALISMOA EDO ESKLABOTZA

Gerra eta Laugarren Internazionalaren (1934) inguruko gure tesiek zera zioten: “Kapitalismo modernoaren izatea erabat erreakzionario, ustel eta harrapariaren salaketak; demokraziaren, erreformismoaren eta pazifismoaren deskredituak; proletalgoak etorriko den hondamendiarentzat irtenbide bat bilatzeko duen presazko eta premiazko beharrak, bizitasun berri batekin eta indar bikoitzarekin ipintzen dute nazioarteko iraultza eguneko ordenean”.

Gaur egun egin beharrekoa jada ez da XIX. mendean bezala bizitza ekonomikoaren garapen azkarrago eta saneatua go bat segurtatzera mugatzea. Gaur egin beharrekoa Gizateria buruaz beste egitetik salbatzea da. Alderdi oportunisten hanketan belarra ebakitzen duena, hain zuzen, krisi historikoren zorroztasuna da. Bestalde, iraultzaren alderdiak esfortzu iturri agortezin bat topatzen du, krisi hau halabeharrez behar historiko batengatik gertatzen dela dakielako.

Gainera, onartezina da egungo abangoardia iraultzailea eta azken gerraren hasieran euren ahotza entzunarazten zuten internazionalista isolatuak plano berean jartzea. Boltxebike errusiarren Alderdiak bakarrik ordezkatzeko zuen indar iraultzaile bat garai hartan. Eta hala ere, bere gehiengo handiak, Leninen inguruan bildu ziren eskukada bat emigratu kontutan hartzen ez baditugu, ezin izan zuen bere hertsikeria nazionalista alde batera utzi eta munduko iraultzaren ikuspegi bat izan.

Laugarren Internazionalak abantaila izugarria du kopuruan eta bereziki bere prestaketan azkeneko gerraren hasierako bere aitzindariekin konparatzen badugu. Laugarren Internazionala boltxebismoaren lorearen oinordeko zuzena da. Laugarren Internazionalak Urriko Iraultzaren tradizioa xurgatu du eta gerra arteko garai historikoen esperientzia teorikoki landu du. Laugarren Internazionalak bere buruan eta etorkizunean sinesten du.

Gerrek, gogora dezagun, ez ohiko eran azkartzen dute garapen politikoa. Atzo urte eta hamarkadetako distantziara zeudela ziruditen helburu handiak hurrengo bi edo hiru urteetan planteatu daitezke modu irekian, lehenago ez bada. Bake-

aren ohiko baldintzetarako eginak dauden programak gainditurik geratuko dira ezinbestean. Bestalde, Laugarren Internazionalaren trantsizio programak, politiko miopeentzat hain “irreala” denak, bere garrantzia osoa erakutsiko du estatu botereagatiko masen mobilizazio prozesuan zehar.

Iraultza berriaren hasieran, oportunistak, duela mende erdi bat bezala, sozialismoa hondakinen eta atsekabearen gainean eraikitzea ezinezkoa dela langileei sinestarazten saiatzen hasiko dira berriro ere. Proletalgoak aukerarik balu bezala! Historiak ematen dizkigun zimenduen gainean eraiki behar da. Langile botereak herrialde atzeratu bat miseria beltzenera ateratzea frogatu zuen Iraultza errusiarra. Orduan eta handiagoak izango dira herrialde aurreratuetako proletalgoak egingo dituen mirariak. Gerrak oinarrizko egiturak, burdinbideak, lantegiak, meategiak suntsitzen ditu; baina ezin ditu teknologia, zientzia, jakintzak suntsitu. Bere Estatua altxatu ondoren, proletalgoak, bere lerroak zuzenki antolatuz, erregimen burgesak oinordetzan utzitako ekoizpen indarrak erabiliz, eta plan bateratu baten arabera ekoizpena planifikatuz, ez gerrak suntsitu duen guztia urte gutxi batzutan berriro bakarrik, elkartasunean oinarritutako loraldi kultural ezohiko batetarako baldintzak ere finkatuko ditu.

ZER EGIN?

Laugarren Internazionalaren Ezohiko Konferentziak manifestu hau jaurtitzen duen une honetan ejertzito alemaniarra, Holanda eta Belgika okupatu ostean eta hasierako erresistentzia aliatua zapaldu ondoren, Paris aldera eta Mantxako Kanalaren aldera zuzentzen ari dira suzko itsasaldi baten antzera. Berlinen garaipena ospatzeko prestaketak azkartasunez egiten ari dira. Aliatuen aldean, alarma ikara bilakatzerara iritsi da. Hau ez da gerraren hurrengo faseen inguruko espekulazio estrategikoetan hasteko unea. Hitlerren gailentasun izugarria bere zigitua ipintzen ari da mundu osoaren fisionomia politikoari.

“Langile klasea, egungo testuinguru honetan, ez al dago demokraziak faxismoaren aurkako borrokan defendatzeri beharrituta?” Honela planteatzen dute arazoa zirkulu burges txiki

askok, proletalgora burgesiaren frakzio baten edo bestearen mesedetan erabiltzeko instrumentu bat balitz bezala ikusten baitute. Jarrera hau geure indar guztiarekin arbuiatzen dugu. Gizarte burgeseko erregimen politikoen artean badaude desberdintasunak, noski. Tren bereko bagoiek eskaintzen duten erosotasunean ere badaude desberdintasunak. Baina tren osoa amildegi batera erortzen denean, demokrazia dekadentearen eta faxismo hiltzailearen arteko desberdintasuna desagertu egiten da sistema kapitalistak bere osotasunean jasaten duen kolapsoarengatik.

Bere garaipenekin eta basakeriekin, Hitlerrek bidezko gorrotoa eragiten du mundu osoko langileengan. Baina zilegizko gorroto honen eta erreakzionarioak izaten gutxiago ez diren bere etsai ahulduer laguntza ematearen aldean amildegi zeharkaezin bat dago. Inperialista ingelesaren edota frantziarren garaipena Gizateriaren zoriarentzako ez litzateke kezka gutxiagokoa izango Hitlerren eta Mussoliniren garaipena baino. Demokrazia burgesa ezin da salbatu. Atzerriko faxismoaren aurka euren burgesia propioari lagunduz, langileek faxismoaren garaipena azkartuko lukete euren herrialdean. Historiak ezartzen digun eginkizuna ez da sistema inperialistaren frakzio bat beste baten aurka defendatzea, sistemarekin bere osotasunean amaitzea baizik.

LANGILEEK ARTE MILITARRA IKASI BEHAR DUTE

Masen militarizazioa egunetik egunera intentsifikatzen ari da. Kontsigna bakezale ezdeusen bitartez honekin amaitzeko ideia baldarra erabat errefusatzen dugu. Datorren aroko auzi garrantzitsu guztiak armak eskuetan erabakiko dira. Langileek ez die beldurrik izan behar armeei. Hauek erabiltzen ikasi behar dute. Iraultzaileak ez dira herritik bereizten, ez bakean ez gerran. Boltxebike bat ez da sindikalista hoberena izaten bakarrik saiatzen, baita soldadurik hoberena izaten ere.

Ez gaude prest burgesiak azken unean instrukziorik ez duten edota erdi instruiturik dauden soldaduak guda zelaietara eramatea onartzeko. Estatuak langileei eta langabetuei fusila, eskuko granada, hegazkina, urpekuntzia eta gainerako

gerra arma guztiak erabiltzen ikasteko aukera eman diezaie-
la exijitzen dugu. Eskola militar bereziak zutik jarri behar
dira, sindikatuekin konektaturik, langileak arte militarren
espezialista bihurtzeko aukera izan dezaten, aginte postuak
betetzeko gai izan daitezen.

HAU EZ DA GURE GERRA!

Aldi berean, ez dugu ahazten une batez ere gerra hau ez dela
gure gerra. Bigarren eta Hirugarren Internazionalak ez beza-
la, Laugarren Internazionalak bere politika ez du Estatu ka-
pitalisten arrakasta militarretan oinarritzen, baizik eta gerra
inperialista ugazaben aurkako langileen gerra bilakatzean,
herrialde guztietako klase agintariak boteretik botatzean,
iraultza sozialista mundialean. Guda zelaietan ematen diren
aldaketak, kapital nazionalaren suntsiketa, lurren okupazioa,
Estatu batzuen desagertzea, ez dira, ikuspegi honetatik, gi-
zarte modernoaren berreraiketarako ibilbidean jazotako ger-
takari tragikoak besterik.

Gerraren norabidea edozein dela ere, guk gure eginkizun
propioak beteko ditugu; langileei euren eta kapitalismo odoltsua-
ren interesak adiskidezinak nola diren azalduko diegu; langi-
leak inperialismoaren aurka mobilizatuko ditugu; herrialde
guztietako, beligerante eta neutraletako, langileen batasuna-
ren aldeko propaganda egingo dugu; herrialde bakoitzeko lan-
gile eta soldaduek kontrako aldeko langile eta soldaduekin kon-
fraterniza daitezen dei egingo dugu; emakumeak eta gazteak
gerraren aurka mobilizatuko ditugu; iraultza konstantziare-
kin, iraunkortasunarekin, etengabeki, prestatuko dugu lante-
gietan eta fundizioetan, herrietan, kuarteletan, gudalerroan,
ontziterian.

Hauxe da gure programa. Munduko langileok: Laugarren
Internazionalaren banderapean batzea bestelako konponbide-
rik ez dago!

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

- 1 • Manifestu komunistari hitzaurrea
- 2 • Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko eritasunari hitzaurrea
- 3 • Etengabeko Iraultzari hitzaurrea
- 4 • Che Guevararen ondarea eta Latinoamerikako iraultza
- 5 • Estatua eta Iraultzari hitzaurrea
- 6 • Zer da sozialismoa?
- 7 • Marxismoa eta artea

- MANIFESTU KOMUNISTA (K. Marx / F. Engels)
- ERREFORMA EDO IRAULTZA (R. Luxemburgo)
- ESTATUA ETA IRAULTZA (V. I. Lenin)
- TRANTSIZIO PROGRAMA (L. Trotsky)
- ANARKISMOA ETA KOMUNISMOA (E. Preobrazhenski)


Liburuxka hauek EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkariak argitaratu ditu Federiko Engels Fundazioaren laguntzarekin.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria edo liburuxkak jasotzeko, gurekin kolaboratzeko, marxismoari buruzko hitzaldiak antolatzeko edo ideia hauekin interesatua bazaudela:

JARRI HARREMANETAN:
euskalherriasozialista@hotmail.com
TEL.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

FEDERIKO ENGELS FUNDAZIOA

MARXISMOAREN KLASIKOAK bilduma

- 
1. El manifiesto comunista *C. Marx / F. Engels*
 2. El Estado y la revolución *V.I. Lenin*
 3. Las Tesis de Abril *V.I. Lenin*
 4. La enfermedad infantil del 'izquierdismo' en... *V.I. Lenin*
 5. Acerca de los sindicatos *L. Trotsky*
 6. Reforma o revolución *R. Luxemburgo*
 7. Huelga de masas, partido y sindicato *R. Luxemburgo*
 8. Qué es el marxismo / Su moral y la nuestra *L. Trotsky*
 9. Salario, precio y ganancia / Trabajo asalariado... *C. Marx*
 10. El 18 Brumario de Luis Bonaparte *C. Marx*
 11. La guerra civil en Francia *C. Marx*
 12. Crítica del programa de Gotha / Erfurt *C. Marx / F. Engels*
 13. Problemas de la vida cotidiana *L. Trotsky*
 14. El manifiesto comunista (català) *C. Marx / F. Engels*
 15. Anarquismo y comunismo *E. Preobrazhenski*
 16. La crisis de la socialdemocracia *R. Luxemburgo*
 17. Contribución al problema de la vivienda *F. Engels*
 18. L. Feuerbach y el fin de la filosofía... *C. Marx / F. Engels*
 19. Introducción a 'Dialéctica de la naturaleza' (y otros) *F. Engels*
 20. La revolución proletaria y el renegado Kautsky *V.I. Lenin*
 21. Del socialismo utópico al socialismo científico *F. Engels*
 22. El imperialismo, fase superior del capitalismo *V.I. Lenin*
 23. El papel del individuo en la historia *J. Plejánov*
 24. Sobre el materialismo histórico *F. Mehring*
 25. La revolución alemana de 1918-19 *R. Luxemburgo / K. Liebknecht*
 - El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado *F. Engels*
 - La revolución permanente *L. Trotsky*
 - La revolución traicionada *L. Trotsky*
 - La lucha contra el fascismo *L. Trotsky*
 - 1905 *L. Trotsky*
 - Terrorismo y comunismo *L. Trotsky*
 - La revolución española (1930-39) - *Selec. de escritos* *L. Trotsky*
 - Terrorismo y comunismo *L. Trotsky*
 - Historia de la Revolución Rusa (2 vols.) *L. Trotsky*

KRITIKA MARXISTA bilduma

- Razón y revolución. Filosofía marxista y ciencia moderna *A. Woods / T. Grant*
- Rusia, de la revolución a la contrarrevolución *Ted Grant*
- Lenin y Trotsky, qué defendieron realmente *T. Grant / A. Woods*
- Bolchevismo, el camino a la revolución *Alan Woods*
- La revolución bolivariana. Un análisis marxista *Alan Woods*
- Euskal Herria y el socialismo. Marxismo y cuestión nacional *Alan Woods / Eloy Val*
- Apuntes revolucionarios.
 - Cuba, Venezuela y el socialismo internacional *Celia Hart*
 - En defensa de la Revolución de Octubre *-*
 - Reformismo o revolución. Marxismo y socialismo del siglo XXI *A. Woods*
 - La batalla de Inveval *Pablo Cormenzana*
 - Pirómanos apagando un fuego *Juan Ignacio Ramos*

LANGILE MEMORIA bilduma

- Rebelión obrera en Tejas y Ladrillos *José Martín*
- 3 de marzo. Una lucha inacabada *Arturo Val del Olmo*
- Carrier. Lecciones de una lucha *Felipe Palacios*
- Historia del movimiento obrero en Guadalajara *Enrique Alejandre*